

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPAN | KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPAN | KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011

**Koaderno Estrategikoaren
Berraztertze hau Eusko Jaurlaritzako
Teknologia Zuzendaritzaren ekimenez
bultzatu da, eta Innobasquek garatu
du Europako Batasuneko I+G+b-ko
proiektuetan parte hartzen duten
Euskal Eragileekiko lankidetzan.**

Argitaratzailea:

Innobasque. Berrikuntzaren Euskal Agentzia. Bizkaiko Teknologia Parkea.
Laida bidea 203. 48170 Zamudio.



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Unported
(informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>).

Diseinua: ONOFF.es
Imprimaketa: Grafilur

1	SARRERA	6
2	EUSKAL PARTAIDETZAREN BILAKAERA EUROPAKO BATASUNEKO I+G+b-KO ESPARRU PROGRAMETAN (FP1-FP6)	10
3	ESPARRU PROGRAMAREN BILAKAERA: FP7 ETA CIP	20
4	EUSKAL PARTAIDETZA I+G+b-KO 7. EUROPAR ESPARRU PROGRAMAN (LEHEN ALDIA: 2007-2010)	40
5	EUSKAL I+G+B-KO PARTAIDETZAREN 7. EUROPAR ESPARRU PROGRAMAREN HELBURUAK BERRIKUSTEA (BIGARREN ALDIA: 2011-2013)	70
6	ERA-NET LANKIDETZA TRANSNAZIONALEKO PROIEKTUAK	100
7	“HORIZON 2020” (2014-2020) IKERKETA ETA BERRIKUNTZA FINANTZATZEKO EUROPAKO BATASUNEKO ESPARRU PROGRAMARAKO SARRERA	108
8	ONDORIOAK	122
9	ERANSKINAK	130





José Manuel Salinero Feijoo
Lehendakariitzako
Idazkari Nagusia

Badirudi atzo izan zela, 2006an Europako Batasuneko 6. Esparru Programa bukatzean, ahaleginak egite hura, I+G-ko euskal eragile gehienen lankidetzarekin, nola garatuko zen 7. EP berri eta etorkizun handikoa bistaratzeko, 50.000 milioi euro baino gehiagoko finantzazioz hornitua, zazpi urteko iraupena zuena (2007-2013), ohiko laurak izan ordez.

Neurtzen ez dena hobetu ezin delakoaren konbentzimendu irmoarekin, orduko hartan "Euskal I+G+b-ko Koaderno Estrategikoan" jasotako helburu sorta bat zehazten genuen. Oroigarri gisara, honako hau nabarmendu dezakegu: Europako Batasunetik lortzeko itzulkinen kopuruan izandako gehitze garrantzitsua, zeinak 6. Esparru Programan lortutako 131 milioitik guztira 390 milioi izatera igaro baitziren 7. EP guztirako, honela banaturik: 180 milioi 2007-2010 aldirako eta 210 milioi 2011-2013 hiru urterako.

Gaur egun, helburu anbiziotsuak markatu zirenetik igarotako lau urteek ematen diguten ikuspegiarekin, eta krisi ekonomiko larria gorabehera, harro egon gaitzke I+G+b-arekin zerikusia duten eragileek beren partaidetza europar proiektuetan nola hobetu duten ikusita, zeren eta ez baitituzte soilik markaturiko helburuak bete baizik eta gainditu ere egin baitituzte. Hartara, 2007 eta 2010 bitartean, Koaderno Estrategikoan helburu bezala markaturiko 180 milioien aurrean, 195,77 milioi euroko europar finantzazioa lortu dela konstatazen dugu.

Gainera, arrakasta horiek krisi ekonomiko orokortuko egoera batean gertatu direla nabarmentzekoa da, lehiaketa handikoa izan baita EBeko Estatu Bazkideen partaidetzarekin I+G+b-ko jardueretan, eta aldi berean, Europako Batasunaren aldetik finantzazio-tresna berriak sortzeak ekarri duen berritasunak markaturiko testuinguru batean.

2006an honako hau genioen: poz handia zela Gobernuarentzat europar Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzan gure herrialdea gero eta maila garaiagoetara iristen ari zela egiaztatzea, gaur egun, 7. Esparru Programako lehen lau urte hauen ondoren, berretsi egin dezakegu gure gizartea ahalegin ohargarri bat egiten ari dela ERaren (Ikerkuntzako Europar Gunea) testuinguruan lidergo-kokagune bat hartzeko eta ezagutzan oinarrituriko gizarte baten jasangarritasuna segurtatzeko ekonomiaren globalizazioaren aurrez aurre.

Hala eta guztiz ere, jabeturik gaudelarik zeinen zaila den asmatzea epe luzerako helburuak kalkulatzeko 7. EPrako, 2006an "Euskal I+G+b-ko Koaderno Estrategikoa" burutzen genuenean, beharrezkoa bihurtu da Koaderno Estrategikoaren honako Berrikuste eta eguneratze hau egitea, FP7ren 2. aldirako (2011-2013 hiru urtekoa) finantzazio metatu oso garrantzitsu batekin hornitua, egikaritu beharreko ekintzak planifikatzeko eta helburu eta erronka berriak ezartzeko FP7aren azken fase honetarako.

Koaderno Estrategiko honetan definituriko helburu berriak ZTbP 2015ean eskuratutako konpromiso anbiziotsuaren barruan sartzen dira urte horretan gure BPGaren %3aren baliokidea den gastu bat mobilizatzeko. Europako Batasuneko programetako baliabideak atzemateko plan honetan gure enpresa eta zientzia eta teknologiko eragileen I+G-a finantzatzeko tresna gehigarri bat bezala eratzen da, aldi berean funts publikoak era garrantzitsuan haz daitezela lagunduz eta 2015ean %38ko partaidetza bat lor dezaten Euskadiko I+G-eko gastu guztizkoaren gainean.

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011



SARRERA

1.1. Atarikoa	8
1.2. Koadernoaren egitura	8
1.3. Koadernoaren hartzaileak eta helburuak	9

1.1. Atariko

7. Esparru Programa (FP7) banatu den bi aldiatiko lehena bete ondoren, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Teknologia Zuzendaritzak, europar I+G+b-ko jardueretan euskal partaidetzarako 2006an planteatu ziren helburuen berrikuste bat egiteko erabakia hartu du, honako parametro hauek izan dezaketean eraginean oinarrituta:

- 2007-2010 aldia amaitu izanak FP7an oinarritutako esperientzien emaitz errealak izatea ahalbidetu du, 2006ko Koaderno Estrategikoan finkatutako helburuetan oinarritzen ziren estimazioen aurrean.
- Tresna berriak abian jartzea hala nola Joint Technology Initiatives (JTIak) edo Partenergo Publiko Pribatuak (PPPak).
- 2007an hasitako krisi ekonomikoa eta haren ondorioak.
- Ikerketa-elkartzeak sendotzea Euskadin.

Horregatik, Koaderno Estrategikoaren berrikuste honek errealismo handiagoarekin bistaritzea ahalbidetzen du nola ikusten diren I+G+b-aren europar finantzazio-funtsetarako euskal erakundeen sarbide-ikuspegiak.

2001-2013 aldirako ezarritako helburuak eguneratzen jarraitutako prozedura 2006ko edizioan burututakoa bera izan da: eragileei (Unibertsitate, Teknologia Zentro, I+G unitate, Enpresa, etab.) zuzeneko kontsulta eginez, zeinek 6. EPan orduan esku hartu baitzuten, bai eta FP7ko lehen deialdietan parte hartu dutenei ere.

Beraz, Koaderno Estrategikoan lan-prozesu oso baten emaitza da, zenbait aktoreen esperientzia sendoa beste askoren inputarekin konbinatzen duena, herrialde-logika orokor baten irizpidea galdu gabe.

Gainera, koaderno estrategikoaren berrikuste honek, 4. Kapituluaren, 2007-2010 aldian lortutako emaitzak aurkezten ditu, eta horrek aukera ematen die I+G+b-ko aktoreei gogoeta bat egiteko arlo guztien eta bakoitzaren gainean, lehen behar adinako arreta eskaini ahal izan ez zaizen arlo interesgarriak detektatu ahal izan direlarik.

Halaber, Koaderno Estrategiko honetan zenbait eranskin sartzen dira, zeinetan balio handiko informazioa aurki baitaiteke europar I+G-aren abentura hasten, edo hastea pentsatzen ari diren erakundeentzat, hala nola:

- Arrakasta-kasuak FP7ko partaidetzan (1. Eranskina).
- FP7aren 2007-2010 aldian finantzatutako proiektuen zerrenda (2. Eranskina).
- Laguntza-zerbitzuak enpresari I+G+b-ko Europar Programatan (3. Eranskina).
- Europar I+G+b-n sarrien erabiltzen diren terminoen glosategi argigarria (4. Eranskina).

Informazio honekin guztiarekin, lortu nahi den azken helburua Euskal I+G+b-a Europar, Koaderno Estrategikoaren Berrikuste honek "Gida" eguneratu bezala balio izatea da, alde batetik, FP7an euskal aurreraztea neurtzeko eta aktore bakoitzak metodologia ezar dezala bere helburu propioak finkatzeko programara eta gai-arloa, eta bestetik, laguntza-tresna gisara oraindik europar I+G+b-rekin zerikusia duten gaietan esperientzia zabalik ez dutenentzat. Hartara, espero izatekoa da FP7an Euskadiren lan kolektiboari guztion ekarpenak eragile bakoitzarentzat emaitza hobek emateaz gainera, azken finean, ezagutzan oinarritutako kultura ekonomiko eta industrial bat Euskadin errotuz joan dadin ere izatea.

1.2. Koadernoaren egitura

Dokumentu honek, 2006an planteatutako helburuen berrikuste bat zehazteaz gainera Europako I+G+b-arentzat, beharrezko informazio-bilduma bat izan nahi du Euskal Herriaren iragana, orainaldia edo, batez ere, geroa ulertzeko I+G+b-ko europar programetarako haren ibilbidean.

Horretarako kapitulu eta eranskinen arabera antolatzea proposatzen da eta honako gaiok izango ditu:

- 2. Kapituluaren euskal partaidetzaren laburpen bat aurkezten da I+G+b-aren Esparru Programa Europarretan zehar (FP1tik FP6ra), haren ibilbidea eta emaitza orokorrak. Kapitulu honek Euskal Autonomia Erkidegoaren gero eta indar handiagoa erakusten du, etorkizuneko planteamendu anbiziotsuari sinesgarritasuna emanez.
- 3. Kapituluak informazio garrantzitsua agertzen du FP7ri buruz eta 2007-2010 urteetan zeharreko bilakaeraz, tresna berriei (JTIak, PPPak), CIP, etab. buruzko informazio eguneratua bere baitan dularik.
- 4. Kapituluaren FP7aren 2007-2010 aldian lortutako emaitza aurkezten da. Informazio hori I+G+b-n parte hartzen duten eragile guztien lankidetzari esker lortuta da europar ekintza monitorizatzeko Inno-basquek kudeatutako "Behatokiaren" bitartez, eta horrenbestez Gai Alorre, Eragileei, europartze-tresnari eta politikari buruz, datuak agertzen dira zehaztasun eta zorroztasunez.
- Nahiz eta aurreko kapituluek intereseko informazioa ematen duten, 5. Kapituluak da 2011-2013 aldirako aurreikuspenak berrikus- tearen emaitzak aurkezten dituen. Kapitulu honetan aurkezten dira, 2011-2013 aldirako aurreikuspenak ezagutzeko erabilitako metodologiaz gainera, europar I+G+b-n euskal partaidetzak lortu beharreko helburu berriak.
- 6. Kapituluaren informazio zabal eskaintzen da ERA-NET Programak esan nahi duenaz, mugez gaindiko lankidetzako proiektuei estal- dura ematen baitie eta, zeinen jarduera-modu berezia aukera bat baita enpresentzat, edo Esparru Programen proiektuetarako neurri-

rik ez dutenentzat edo oraindik mugaz gaindiko lankidetzan I+G+b-ko jarduerarik hasi ez dutenentzat.

- FP7 izan da 7 urteko iraupeneko lehen Esparru Programa eta ia amaitzeko zorian dago, horregatik hurrengo Esparru Programa hasiberritan dagoen errealitatea da. Beraz, 7. Kapituluaren alde aurretiko informazioa aurkezten da Esparru Programa berria nola ari diren planteatzen eta haren iraupena ere 7 urtekoa izango da, 2014tik 2020 arte.
- Azkenik, 8. Kapituluaren ondorio batzuk aurkezten dira euskal I+G+b-ren Europaranzko bidearen ikuspegi global baten ekarpena egiteko asmoz.
- Europako euskal presentziaren ikuspegia hain orokorra ez den puntu batetik osatzeko, I. Eranskinean europar I+G+b jardueretan Euskal enpresen praktika arrakastatsuen kasu zehatz batzuk sartzen dira.
- II. Eranskinean FP7ko 2007-2010 aldiko euskal partaidetzaren ikuspegi orokor bat aurkezten da orain arte finantzaturiko proiektu guztien zerrenda baten bitartez.
- Koaderno hau tresna baliagarria izan dadin, ez bakarrik Europako Batasuneko Esparru-programen berezitasunak dagoeneko ezagutzen dituztenentzat, bai eta halako Programetan beren ibilbidea hasi nahi duten enpresentzat ere, III. Eranskinean balio handiko informazio bat ezarri da, I+G+b-ko Europar Programa desberdinetan haien partaidetza errazteko enpresei eskaintzen zaizkien laguntza-zerbitzu ugari buruz.
- Azkenik, IV. Eranskinean Glosategi argigarri bat aurkezten da europar I+G+b-n sarrien erabilitako terminoei buruz.

rikuste global honen lehen helburua, I+G+b euskal sistemaren indarguneak eta ahulguneak identifikatzea da.

- Errealitate hori ezagutu eta 2007-2010 aldian zehar lortutako esperientzien eta ezagutza analizatzeak erronka berriak finkatzeko aukera ematen du Zazpigarren Esparru Programako bigarren aldiko (2011-2013).
- Gainera, Koaderno Estrategikoaren Berrikuste honek ekintzak planifikatzeko aukera ematen du baldintzarik hoberenetan Zazpigarren Esparru Programako azken hiru urtekoari ekiteko.
- Bestalde, informazio honek aukera ematen du euskal lehiakortasun teknologikoaren analisi bat egiteko eremu batzuetan oro har, eta eragile teknologikoena bereziki. Hartara, Koaderno gidatzen har daiteke FP7 eta CIPeranzko proposamenen aurkezpena laguntzeko, etorkizuneko deialdietan partaide potentzial izango direnei begira.
- Azkenik, 'Euskal I+G+b European, Koaderno Estrategikoaren' Berrikuste hau Euskadi lurralde teknologiko adimendun bezala aurkezteko tresna bezala erabil daiteke, izan ere emaitzek ia hirukoiztu egiten baitute European legokiokeen kokamendua BPGaren arabera. Horrela, Koaderno honek Euskadin industria-inbertsiorako proposamenen lagungarri izateko balio lezake, berrikuntzako kanpo-zentroak ezartzeko, edo besterik gabe, balio erantsiko proiektuen zerbitzurako Herrialde bezala saltzeko. Haren erabiltzaileak inbertsio-biltzaileak, funtsak, industria-korporazioak, etab. izango lirateke.

1.3. Koadernoaren hartzaileak eta helburuak

'Euskal I+G+b European, Koaderno Estrategikoaren' berrikuste hau 2006an burututako Koadernoaren eguneratze bat bezala garatu da, 2007-2010 aldian zehar europar I+G+b-ko euskal partaidetzaren helburuak berrikusteko asmoarekin, izan ere bertan dagoeneko ezagutu ahal izan dira FP7aren tresna berrien funtzionamenduaren egiturak. Hartara, dokumentu hau europar-mailan euskal I+G+b-ren jardueraren errealitatea ezagutzeko tresna bihurtzen da, eta neurtu eta kontrastatzeko lanabes bezala euskal industria-ehuna erreferentzia izan dakion erabakiak hartzeko bere I+G+b-rako erkidego-finantzazioen sarbiderako noranzkoan.

Horregatik, 2006ko edizioaren hartzaileak eta helburuak indarrean badaude ere, Zazpigarren Esparru Programako bigarren aldirako (2011-2013) honako hauek nabarmen litezke helburu gisa:

- Europako Batasuneko Esparru Programa desberdinetan beren partaidetzan Euskal Eragileek lortutako emaitza historikoen be-

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011



**EUSKAL
PARTAIDETZAREN
BILAKAERA**
EUROPAKO
BATASUNEKO
(FP1etik FP6rako)
I+G+b ESPARRU
PROGRAMETAN

2.1. Sarrera	12
2.2. I+G+b-aren Europar Esparru Programen Bilakaera	12
2.2.1. Lehen Esparru Programa (FP1)	12
2.2.2. Bigarren Esparru Programa (FP2)	12
2.2.3. Hirugarren Esparru Programa (FP3)	13
2.2.4. Laugarren Esparru Programa (FP4)	13
2.2.5. Bosgarren Esparru Programa (FP5)	14
2.2.6. Seigarren Esparru Programa (FP6)	14
2.2.7. Zazpigarren Esparru Programa (FP7)	16
2.3. Euskal Partaidetzaren Laburpena Esparru Programetan ...	16
2.4. Euskal I+G+b-aren Europartze Gakoak	18
2.4.1. Itzulkinen bilakaera	18
2.4.2. Eragileen kokamendua Esparru Programen aurrean	18

2.1. Sarrera

Europako Batasuna eraikitzearen jatorrietatik beraietatik, hau da, 1957ko martxoaren 25ean **Erromako Hitzarmena** eta **Energia Atomikoaren Europar Erkidegoko Hitzarmena** (Euratom) izenpetu zirenetik, zazpi europar herrialdek Europar ikerketa indartsu bat koordinatu beharra identifikatu zen.

Harrezkero, Zientziaren aldeko ekintza deliberatua lehenetsunezko jardueraren ardatz bezala indartu eta finkatu da Europa.

Hala, 1986an, **Europar Akta Bakarra** izenpetu zela-eta, Zientziak izan behar zuela erkidego-erantzunbeharretako bat definitu zen, europar lankidetzaren politiko bat finkatzea bilatuz, nola ikerketaren, teknologiaren eta ingurumenaren eremuetan hala segurtasunaren eta defentsarenean.

Geroago, 1995ean, **Berrikuntzaren Liburu Berdea** argitaratu zen elementu desberdinak, baikorrak eta ezkorak identifikatzeko helburuarekin, zeinen baitan dagoen europar berrikuntza eta Europako Batasunaren berrikuntza-gaitasuna gehitzea ahalbidetuko duten ekintza-proposamenak egitea ere. Hartarako, berrietasun bat sortu, asimilatu eta arrakastarekin ustiatzeko gaitasun bezala hartzen zen Berrikuntza, eremu ekonomiko eta sozialetan, arazoei argitaratu gabeko soluzioen ekarpena eginez, eta horrela, pertsonen eta gizartearen beharrei erantzuteko aukera eman.

Ildo horretatik, 1996an, **Berrikuntzarako Lehen Ekintza Plana Europar** azterlanak Liburu Berdeak irekitako bideetako batzuk aztertu zituen erreferentzia-esparru erkide bat finkatzeko asmoarekin, lehenetsunezko aukerak definitzen lagunduko zuena, bai eta Estatu Bazkideen artean lankidetzaren aukerak ere. Berrikuntzarako lehen Ekintza Plan hark hiru ekintza-barruti proposatzen zituen:

- Berrikuntza-kultura bat sustatu.
- Aldeko esparru bat finkatu.
- Ikerketa eta berrikuntza hobeto artikulatu.

2000ko martxoan, **Lisboako Europar Kontseiluak** Europako Batasunaren helburuetako bat bezala finkatu zuen “ezagutzan oinarritutako munduko ekonomia dinamikoena eta lehiakorrena bihurtzea, hazkuntza ekonomiko iraunkorrerako gai zena, enplegu-sortzailea eta gizarte-kohesioa hobetez hornitua”. Horretarako, oso garrantzitsutzat jo zen enplegua eta gizarte-kohesioa sortzen ikerketak eta garapenak burututako funtzioak.

Helburu anbiziotsu hori lortzeko, tresna gakoetako bat **Ikerketako Gune Europarra** (ERA) sortzeko erabakia izan zen Ezagutzaren Gune Europarraren barruan, zeinen bitartez nazioaren eta Europako Batasunaren mailako ikerketa-jarduerak modu eraginkorrago batean integratu eta koordinatu behar baitziren.

Gainera, osoki baliatu behar ziren Hitzarmeneko tresnak eta gainerako bitarteko egoki guztiak, borondatezko akordioak barne, helburu hura era malgu, deszentralizatu eta ez-burokratikoan lortzeko, aldi berean egoki saritu behar zirelarik nola berrikuntza hala ideiak ezagutzan oinarritutako ekonomia berria.

2.2. Europar I+G+b Esparru Programen bilakaera

I+G jarduerak koordinatu eta finantzatzeko Europako Batasunaren esparruan, Ikerketa, Garapen Teknologiko eta Frogapeneko Esparru Programak diseinatu ziren, 1984an abiarazitakoak, lehen Esparru Programan 3.750 M€-koak izan ziren (FP1: 1984-1987) eta haziz joan diren aurrekontu batzuekin Zazpigarreneko (FP7: 2007-2013) 50.521 milioiraino, **(G.2.1)** grafikoan ikus daitekeenez (*Esparru Programen Aurrekontuen bilakaera*).

Grafiko honetan ageri da aurrekontuen hazkuntzak nola erakusten duen Erkidegoko politikak eman dion gero eta garrantzia handiagoa I+G+b-ri, bai eta, lehen aldiz, Esparru Programak, lau urteko iraupena izatearen ezaugarria zutenak, zazpi urteko iraupena izatera igaro diren.

Esparru Programa bakoitzak berezitasun batzuen ezaugarriak izan ditu, eta horiek aztertuko dira ondoren.

2.2.1. Lehen Esparru Programa (FP1)

FP1 1984 eta 1987 bitartean garatu zen eta 3.750 M€-ko aurrekontua izan zuen. Bere baitan hartzen zituen barruti teknologikoak Energia, Industria, Nekazaritza, Ingurumena eta Lehen Gaiak izan ziren, nahiz eta garrantzi handiena Energiari (EURATOM) eta Informazio Teknologiei (ESPRIT) eman zitzaizkien.


1986an Espainia Europar Erkidegoan integratzeak eragin erabakigarria izan zuen FP1eko euskal partaidetzarako, harrezkero partaidetza hori Euskal Herriaren soslai teknologikoarekin identifikatzen da, Informazioaren teknologiei (ESPRIT) eta Materialeiei (BRITE) buruzko Programen metatze handi batekin.

2.2.2. Bigarren Esparru Programa (FP2)

FP2 1987 eta 1991 bitartean garatu zen, 5.396 M€-ko aurrekontua izan zuen eta Industria Teknologia, Informazioaren Teknologia, Telekomunikazioak eta Bioteknologia sustatzera bideraturik egon zen.

Lehen aldiz, FP2aren hedadura osoan parte hartu ahal izateak lagundu egin zion Euskal partaidetzari hazkuntza indartsu bat izaten FP1ekin alderatuta, eta beste behin metatze indartsu bat gertatu zen BRITE eta ESPRIT programetan. Halaber, Teknologia Zentroen jardue-

G.2.1 Esparru Programen aurrekontuaren bilakaera



rak eragin argia izan zuela hazkuntzan egiaztatua ahal izan zen; aldiz, Unibertsitateak eta Enpresak beren ahalbideen azpitik egon zirela.

2.2.3. Hirugarren Esparru Programa (FP3)

FP3 programa 1990tik 1994ra garatu zen eta 6.600 M€-ko aurrekontua izan zuen. Esparru-programa horretan programa espezifikoen kopurua 37tik 15era arrazionalizatu zen eta aurrekontuen hazkuntzaren ezaugarria izan zuen Ingurumena, Bizi Kalitatea, Bioteknologia, Ikertzaileen Mugikortasuna eta ETEen alorretan, Informazioaren eta Komunikazioen, Industrialen eta Materialen Teknologiaei eutsi egin zitzaizen zegozkien arloetan eta murriztu Energiaren aurrekontua.

Euskal partaidetza, aurreko Esparru Programetan bezala metatu egin zen, onartutako 92 proiektuetatik 73, Informazioaren Teknologia programetan eta Teknologia Industrial eta Materialenetan (BRITE/EURAM) kontzentratu zen, une hartako euskal industria-ehunaren tipologiaen ildotik.

Teknologia Zentroen eta Enpresen partaidetzak hazkuntza indartsua izan zuen, %32koa eta %59koa, hurrenez hurren, FP2rekin alderatuta.

2.2.4. Laugarren Esparru Programa (FP4)

FP4 1994 eta 1998 bitartean garatu zen eta 12.300 M€-ko aurrekontua izan zuen, FP3k baino ia bi aldiz gehiago eta haren ezaugarria Biziaren Zientzietan (Bioteknologia, Nekazaritza) laguntza handiagoa ematea izan zen, eta Informazioaren eta Komunikazioaren eta Ingurumenaren Teknologiaetarako funtsak gehitzea.

Beste behin, euskal partaidetza izaera industrialeko bi programetan metatu zen funtsean: ekoizpena eta materialen teknologietara bideratutako BRITE/EURAM Programan, eta ESPRIT programan, Informazioaren Teknologiaen inguruan bideratutako bi programen artean euskal partaidetzako proiektuen ia %50 lortuz eta finantzazio osoaren %80 eskuratuz, FP4an lortu zen itzulkina.

Enpresa-partaidetzak onartutako proiektuen %61 lortu zuen, eskuratutako itzulkin guztien % 48 erdietsiz, baina Teknologia Zentroen partaidetza onartutako proiektuen %27an gertatu zen, eta haren itzulkina guztizkoaren %44koa izan zen. Unibertsitateak partaidetza baxua izan zuen, proiektuen %2rekin egin baitzuen, eta itzulkinen %1 erdietsi zuen.

Zifra horietatik Teknologia Zentroek I+G+b ahalmen handia erakusten dutela ondorioztatzen da, zeren Enpresak izandako partaidetzen erdiarekin bakarrik lortzen baitute antzeko aurrekontu bat.

2.2.5. Bosgarren Esparru Programa (FP5)

FP5 programatik 1998tik 2002ra garatu zen eta 14.960 M€-ko aurrekontua izan zuen. Aurreko Esparru Programekin alderatuta izan zuen desberdintasunik handiena hau da: FP5 “Ekintza Gakoak”, arazoak konpontzen laguntzekoa pentsatua izan zela eta Europako Batasuneko erronka sozioekonomiko garrantzitsuenei aurre egiteko, hala nola: erkidegoko industriaren nazioarteko lehiakortasuna hobetzea, garapen jasangarria, enplegua sortzea, bizi-kalitatea edo ezagutza globalizatzea.

FP5k aurkezten dituen berritasunen artean FP4ren aldean hauek nabarmendu behar dira:

- Europak aurre egin beharreko erronkei soluzioak bilatzen kontzentratzea.
- Aurkeztutako proposamen sortaren arteko sinergia-efektuak bilatzea, proiektuak elkartzea erraztuz.
- Industria-hazkuntza lehiakor eta jasangarri bati laguntzea, zientzialariak enpresetarantz mobilizatzea bera erraztearen bitartez ere, gutxien laboratutako erregioei arreta berezia eskainiz.
- Eragin sozioekonomikoaren gaineko ikerketa, Programaren espektro osoa estaliz, ekintza gako propio bat izateaz gainera.
- Programaren egitura arazo zehatzei ekin eta haiek konpontzearen helburuari doitua, helburu lorgarriak metatzea, eskumenak integratzea eta kudeaketaren malgutasuna horrela erraztuz.

Aurrez esanaren datu adierazgarritzat balio beza FP5aren aurrekontutik %80 honako gaietarako erabili zela: Bizi Kalitatea eta Baliabide Biziak, Informazio-gizartea, Hazkuntza Lehiakor eta Jasangarria, Ingurumena, Garapen Jasangarria eta Energia.

Azkenik, gehitu daiteke enpresa-partaidetza proiektu guztien %51 izan zela, %44ko itzulkinak lortuz; aldiz, Teknologia Zentroek Proiektuetan %38ko partaidetzarekin %48ko itzulkinak lortu zituzten eta Unibertsitateek Proiektuen %4an parte hartu zutela, %3ko itzulkinekin.

2.2.6. Seigarren Esparru Programa (FP6)

FP6 2002tik 2006ra garatu zen eta 17.833 M€-ko aurrekontua izan zuen.

FP6ren oinarritzko helburua ERA, Ikerketako Europar Gunea eraikitzen metatu zen, garai hartan Philippe Busquin Ikerketako Komisarioa zenak 2000 urtean honela definitu zuen kontzeptua zen: “merkatu global berria pertsonak (ikertzaileak), taldeak, zentroak, unibertsitateak eta enpresak konektatzen ditu, trakerako egiazko gune bat eraikitzen du, bikaintasun, eskakizun, eta lehiakortasun globaleko arauekin, eta

kolektibo horrek Europan jasan duen zatikatze historikoa amaitzen du”.

ERA abian jartzeko hiru Lan-ardatz zehaztu ziren:

- **ERA integratzea**, eta horretarako baliabide ekonomikoz hornitu zen (aurrekontuaren %78) Ezagutzaren Europa eraikitzeko zortzi gai-lehentasun garrantzitsuenetarako:
 - Genomika eta Osasunaren Bioteknologia.
 - Informazioaren Gizarteko Teknologia.
 - Nanoteknologia, Material Adimendunak, Ekoizpen Prozesu Berriak.
 - Aeronautika eta Espazioa.
 - Elikadura Segurtasuna eta Osasunerako arriskuak.
 - Garapen jasangarria eta Aldaketa Globala.
 - Hiritarra eta Gobernantza Ezagutzan oinarritutako Europar Gizartean.
 - Beharrak aurreratzen.
 - **ERA egituratzea**, langile ikertzaileen mugikortasuna errazteko oinarritzko helburuarekin, bidaltze-, itzultze-ekintzekin, doktorego osteko bekak eta abarrekin. Gainera honako beste hiru kapitulu hauek estaltzen ziren:
 - Zientzia eta Gizartea: Egitura-loturen garapena erakundeen eta erkidego zientifikoaren eta gizarte orokorraren arteko elkarriketatuz arduratutako jardueren artean.
 - Azpiegiturak: Ikerketa-azpiegitura handien ehun baten garapena sustatzea Europan, azpiegiturak barne direla.
 - Berrikuntza & Ikerketa: Europako berrikuntzaren funtzionamendua hobetzeko ekintzak, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko integrazio hobea estimulatuz.
 - **ERA indartzea**. Kontuan hartzen bada FP6ren funtsek Europako Batasunean garatutako Ikerketaren %5 bakarrik estaltzen zutela, ERAren epe luzeko ikuspenak, ikuspegi zabalagoa izan behar zuen bere baitan. Horretarako FP6k lankidetzaren ekimenak jarri zituen abian Nazioen eta Erregioen I+G+b-ko funtsen artean, hala nola Europako Batasunaren Hitzarmeneko 169. artikulua, CREST ekimena eta, batez ere, ERA-NET Programa. Hartara ERA-NET Programa koordinazio-ekimen bihurtzen zen Ikerketako Programa Nazional eta Erregionalen artean, I+G+b-ko Programa Nazional eta Erregionalen arteko deialdi baterakoak eta zehatzak finkatzeko helburuarekin, enpresetara eta bereziki ETEetara zuzendutako erkidego-funtsen laguntzarekin.
- Aipaturiko Lan-ardatzetaz gainera, FP6 burutzeko beste hiru tresna berri zehaztu ziren:
- Bikaintasun Sareak (NoE).



VERDI Proiektua: “Virtual Engineering for Robust manufacturing with Design Integration”.
Partaidea: ITP partaide.

- Proiektu Integratuak (IP).
- 169. Artikulua.

Eta horiek aurrez FP5etik zeudenei gehitzen zitzaizkien:

- Ikerketara Bideratutako Proiektuak (STREP).
- Koordinazio eta Euste Ekintzak (CA eta SSA).
- ETEentzako Proiektuak (CRAFT eta KOLEKTIBOAK).

FP6ren emaitzak aztertzen badira Gai Arloen oinarriaren arabera, honako sailkapen hau gerta daiteke, arrakasta-indizearen arabera, euskal partaidetzak lortutako itzulkiniei dagokienez:

1. Nanoteknologiak, Material Adimendunak, Ekoizpen Prozesu Berriak (NMP), guztira itzulkin guztien %27 izan zituztenak.
2. Informazioko Gizartearen Teknologiak (IST), zeinen itzulkinak %18koak izan baitziren.
3. CRAFT eta KOLEKTIBOAK, %13ko itzulkinekin.
4. Aeronautika eta Espazioa, %11ko itzulkinekin.
5. Energia, itzulkinen %10 lortu zuena.
6. Osasuna, itzulkin guztien %3rekin.

Era bertsuan Tresna desberdinek onartutako Proiektuen oinarriarekin azterketa egitean, emaitza nabarmenenak honako hauek lirateke:

1. Ikerketara Bideratutako Proiektuak (STREP), proiektu onartuen %30 lortu zutenak (191 proiektu).
2. Proiektu Integratuak, (IP) guztira onartutako proiektuen %26 lortu zutenak.
3. Bikaintasun Sareak, (NoE) guztira onartutako proiektuen %5 lortu zutenak.

Azkenik, FP6an enpresa-partaidetzaren emaitzak proiektu guztien %35 izan ziren, %33ko itzulkinak lortuz; aldiz, Teknologia Zentroek Proiektuen %48an parte hartuz %54ko itzulkinak lortu zituzten eta Unibertsitateek Proiektuen %12n parte hartu zuten, %8ko itzulkinak lortuz.

2.2.7. Zazpigarren Esparru Programa (FP7)

FP7 da zazpi urteko iraupena duen lehen Esparru Programa, eta 2007tik 2013 arte doana, 50.521 M€-ko aurrekontuarekin. Esparru Programa hori bi alditan azpibanaturik dago:

- Lehenak 2007-2010 urteak estaltzen ditu, eta horietako emaitzen informazio xehea ematen da 4. Kapituluari eta zeinen aurrekontua FP6ren luzapena baita.

- Bigarren aldia 2011tik 2013ra doa, aurrekontuaren gehitze nabarmenarekin eta zeinentzat 5. Kapituluaren helburu berriak aurkezten baitira itzulkin ekonomikoak lortzeari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, 3. Kapituluaren FP7ren deskribapen osoa aurkezten da, bai eta haren tresna berriena ere.

2.3. Euskal Partaidetzaren Laburpena Esparru Programetan

Euskal partaidetza Esparru Programa desberdinetan goranzko joerak ezaugarritu du, era jarraituan, (G.2.2) grafikoan agerienez, zeinek erakusten baitu euskal partaidetzaren bilakaera Esparru Programa bakoitzean.

(G.2.3) grafikoan I+G+b-aren Euskal Sistemako eragile desberdinen partaidetzaren bilakaera nabari da, ehuneko datutan. Komeni da nabarmentzea Unibertsitateetako FP1i, FP2ri eta FP3ri dagozkien datuak Teknologia Zentroetakoekin batera txertaturik daudela, eta FP4tik aurrera haien bilakaera partikularra nabarmentzeko moduan dagoela, izan ere haren partaidetzak etengabeko hazkuntza du.

(G.2.3) grafikoan partaidetza guztien artean eragile desberdinen pisu erlatiboa nola banatzen den aurkezten den bezala, (G.2.4) grafikoan argi eta garbi erakusten da eragile bakoitzaren partaidetzaren kopuruaren bilakaera (kontuan izan bedi grafiko horretan ere, Unibertsitatearen kopuruak Teknologia Zentroetakoekin artean integraturik daudela FP1 eta FP3 bitartean).


(G.2.4) grafiko honetan, ageri da, balio absolututan, Teknologia Zentroek nola dituzten, FP1etik partaidetza-kopuru gero eta handiagoak, Unibertsitateak FP4tik dituen bezala; aldiz, enpresa-partaidetzak partaidetza gero eta handiagoko kopuru batzuen ondoren, FP5etik beheranzko joera ageri du haietan.

Azpimarratzekoa da, partaidetzaren kopuru guztizkoa pixkanaka haziz joan dela Esparru Programetan, nahiz eta FP5ean inflexio bat izan zen etengabe lortuz joan diren proiektuen goranzko zifran, (G.2.5) grafikoan nabarienez, eta horrek esan nahi du FP4tik FP5era %22ko murrizte bat gertatu bazen ere, onartutako proiektuen guztizkoan, hala ere, errealitatea da partaidetzaren kopuruaren aldi berean %60,5 hazi zela, eta Euskal Eragileen lankidetzaren FP5ean FP4an baino handiagoa izan zela ondorioztatzen da hortik.


Bestalde, finantzazioak kontuan hartzen badira, edo lortutako itzulkinak, ikus (G.2.6) grafikoak, joera hazkuntza jarraitu batekoa da Esparru Programa bakoitzean zehar.

(G.2.7) grafikoan, I+G+b-ko Sistemako Euskal Eragileek lortutako itzulkinen ehuneko-banaketa erakusten duen horretan, Unibertsitatearen pisuaren gero eta gehitze handiagoa nabari da testuinguru


G.2.2 Euskal partaidetzaren bilakaera Esparru Programa bakoitzean (M€)




G.2.3 Euskal Eragileen partaidetzaren ehuneko-bilakaera




G.2.4 Euskal Eragileen partaidetzaren kopuruaren bilakaera




G.2.5 Onartutako proiektuen kopuruaren bilakaera



G.2.6 Itzulkinen bilakaera



G.2.7 Euskal Eragileen itzulkinen ehuneko-bilakaera



orokorrean; aldi berean, Zentroen gero eta hazkuntza handiagoa nabari da Enpresei dagokiena gutxitzearekin batera.

Errealitate hau hobeto balioesten da (G.2.8) grafikoko datuak aztertzen badira, zeinean aurkezten baitira I+G+b Sistemako Euskal Eragileek lortutako itzulkinak, zeinean nabari baitira argi eta garbi Teknologia Zentroek lortutako itzulkinen hazkuntza indartsua, Unibertsitatei dagozkien pixkanakako hazkuntza eta Enpresek lortutako itzulkinen hazkuntza urria.

(G.2.9) grafikoa aurkezten den informazioan nabari da Euskadik lortutako itzulkina Espainiak bere osotasunean jasotakoarekin alderatuta, gero eta kopuru handiagoa nola den FP3tik, eta datu hori nola aldatu den FP6tik aurrera, agian Kataluniak jasotako itzulkinen hazkuntza handiarengatik.

Euskal Herriaren kuota murriztu den arren FP6ko itzulkinen dagokienez Estatuaren guztizkoarekiko, azpimarratu behar da, %12,5ko kuotarekin hirugarren Autonomia Erkidego bezala mantentzen dela itzulkinen rankingean, Madrilen (%35,3) eta Kataluniaren (%24,4) ondoren, baina Valentziar Erkidegoaren (%8,8) Andaluziaren (%5,2) eta abarren aurretik.

Euskadik itzularazitako kopuruak Erkidegoko funtsen kopuru osoekin erkatzen badira, ikus (G.2.10) grafikoa, atergabeko hazkuntza nabari da, FP6an izandako jaitsiera txikia kontuan hartzen bada, izan ere %68ko hazkuntza globala gertatzen da, FP6ko kopuruak kontuan hartzen badira FP3koekin erkatuta.

Kontuan hartzen bada proiektu bakoitzak lider bakarra duela eta funtzio hori bere gain hartzen duten erakundearen protagonismoaren adierazle bihurtzen dela proiektu baten lidergoa izatea, zeren eta ahalegin handiagoa eskatzen baitu kudeaketan, eta erantzun behar eta erabakitzeo ahalmen handiago bat haiek egikaritzen diren bitartean, adierazle horrek Euskal Eragileek beren partaidetzan duten konpromiso indartsuaren ideia bat eman dezake.

Horrela, Euskal Eragileek parte hartzen duten proiektuetan jokatzen duten paperaren ikuspen argia izateko, (G.2.11) grafikoa Euskal Eragileak lider izan dituzten proiektuen kopurua erakusten da euskal partaidetzarekin kontaktatzen dutenen guztizkoarekin batera, eta (G.2.12) grafikoa lidergoa izan duten proiektuen ehuneko-tasa lidergoa izan ez dutenen aldean.

Informazio honetatik guztitik I+G europar proiektuetan euskal partaidetza hazteko joera garbia duen gertaera bat dela ondorioztatzen da, gorabeheraren batekin, nola partaidetzatan hala proiektuen kopurutan, edo baita itzularazitako kontu-sail ekonomikoetan. Gertaera hori, oraindik ohargarriagoa da, nola balio absolutuetan hala erlati-boetan, euskal itzulkinen kopuruak Espainiar Estatu gainerako Autonomia Erkidegoek lortutako kopuruekin erkatzen badira.

Kapitulu honetatik atera daitekeen ondorioa honako hau da: Euskal Eragileek konpromiso indartsua dutela I+G+b-ko jarduerekin, espainiar batez bestekoaren oso gainetik, eta hori Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) informazioak frogatzen duen zerbait dela, izan ere 2009ko I+G-ko Gastuaren kopurua %2,06an kokatzen du BPGarekiko; aldiz, espainiar batez bestekoa %1,38an kokatzen da, Europako Batasuneko (EB27) batez bestekoa %2,01ean, Europar Batzordearen helburua 2020rako I+G-aren BPGaren gaineko gastua %3koa izatea delarik.

2.4. Euskal I+G+b europartzearen gakoak

2.4.1. Itzulkinen bilakaera

FP6ari aurre egitean, 2000 urtean, Eusko Jaurlaritzatik hartan euskal partaidetza gehitzearen beharra planteatu zen, 120 M€-ko itzulkinarekin lortzeko helburu bezala, eta horrek hazkuntza garrantzitsua esan nahi zuen aurreko Esparru Programetan lortutako kopuruaren aurrean. Ikus (G.2.13) grafikoa.

FP6ren amaieran, lortutako itzulkin-kopurua 131 M€-koa izan zen, eta horrela ezarritako helburuak gainditu zirelarik.

Berriro, FP7ri aurre egitean, Eusko Jaurlaritzak helburu batzuk ezarri zituen Zientzia, Teknologia eta Enpresaren Euskal Sistemako eragileei kontsulta bat egin ondoren eta —ikus (G.2.13) grafikoa—, 180 M€-tan kokatu zen 2007-2010 aldirako eta 210 M€-tan 2011-2013 aldirako.

Beste behin, 4. Kapituluaz azaltzen denez, helburuak gainezkatu egin dira, 190 M€-ko kopurua gainditzean eta horrek finkatutako helburuak berrikustera eramanean du, 5. Kapituluaz xeheki frogatzen denez, Euskal Zientzia, Teknologia eta Enpresako Eragileen Sistemaren aurreikuspenen aurretiazko kontsulta bat egin eta gero.


2.4.2. Eragileen kokamendua Esparru Programen aurrean

Europar Batzordeak Ikerketa eta Garapenerako jarduerekin duen konpromiso irmoak —eta hori agerian jartzen du gero eta laguntza ekonomiko handiagoa banan-banan emateak Ikerketa eta Garapen Teknologikoko Esparru Programei— I+G+b euskal jarduera finantzatzeko tresnarik garrantzitsuenetako batzuk bihurtzen ditu horiek.


Inguruabar hau aukera bat da I+G+b euskal sistemako eragile desberdinentzat mugaz gaindiko harreman sail garrantzitsu bat irekitzean, besteak beste, honako onura hauek dakartzatenak:

- Lankidetzaharreman bat europar ikerketa- eta unibertsitate-zentroekin gure zentron bikaintasunerako bilakaera erraztuko dutenak, bai eta lankidetzahauera berriak lortzea ere zentron eta enpresen artean, sakonera handiagoko ikerketa-proiektutan batera


G.2.8 Euskal Eragileen itzulkinen bilakaera




G.2.9 Euskal Eragileen itzulkinen kuotaren bilakaera Estatuko itzulkinen guztizkoarekin erkatuta




G.2.10 Euskal Eragileen itzulkinen kuotaren bilakaera Europako Batasunarekiko harremanean




G.2.11 Lidergoak, balio absolututan, euskal partaidetza duten Proiektuetan



G.2.12 Lidergoaren ehuneko-tasak euskal partaidetza duten Proiektuetan



G.2.13 Lortutako itzulkinen bilakaera (FP3-FP7-1) eta FP6-FP7rako finkatutako helburuak



parte hartu ahal izatean, bai eta ikerketarako masa kritikoak sortzea bera ere helburu anbiziotsuagoak hartzea errazten dutenak.

- Euskal unibertsitateen kasuan, beste batzuen jarduerak imitatzearren erronka planteatzen zaie, hala nola Kataluniakoak, Madrilkoak edo Valentziakoak, edo jarduera berriak hastea Europako beste eragile batzuekiko harremanean, beren lan egiten jakitearen ekarpena gai-sektore espezifikoetan, hala nola bioteknologian edo barruti sozioekonomikoan, "Ideiak" edo "People" Programek eskaintzen dituzten aukera garrantzitsuak erabiltzeaz gainera.
- Enpresek Esparru Programetan beren I+G-ko jarduerak nazioarteko aukera aurkitzen dute, bai banaka edo beste enpresa edo teknologia-zentro batzuekin batera, berek normalean izaten duten eskala baino handiagoko proiektuetan, eta negozio-aukera berriak irekitzeko abagunea ematen dieten atzerriko harreman batzuk egi-teaz gainera.

Gainera, Esparru Programetako partaidetzak Zientzia, Teknologia eta Enpresako Euskal Sistemako eragile guztientzat aukera ematen die ikerketa-jarduerak era abantailatsuan finantzatzeko, seguru asko, Estatuko edo Erregioko programek finantzatu ahal izango ez zituzketenak.

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011



7. ESPARRU PROGRAMAREN BILAKAERA: FP7 ETA CIP

3.1. Zazpigarren Esparru Programa (FP7)	22
3.1.1. FP7aren 2007-2010 aldiko Eeko ebaluazioa	22
3.1.2. Programa berezi nagusiak	23
3.1.2.1. Lankidetzeta Programa	23
3.1.2.2. Gaitasunak Programa	24
3.1.2.3. Ideiak Programa	26
3.1.2.4. Pertsonak Programa	26
3.1.3. Industria lider duten ekimenak	26
3.1.3.1. Europar Teknologia Plataformak (ETP)	26
3.1.3.2. Baterako Teknologia Ekimenak (JTI)	29
3.1.3.3. Partenergo Publiko Pribatuak (PPP)	30
3.1.4. Herrialdeak/erregioak lider dituzten ekimenak	30
3.1.4.1. ERA-NET / ERA-NET Plus	30
3.1.4.2. 185. Art. (lehengo 169. Art.)	31
3.1.4.3. EUREKA / EUROSTARS	32
3.1.5. Tresna berriak	33
3.1.5.1. Baterako Programatzearen Ekimenak (JPI)	33
3.2. Lehiakortasun eta Berrikuntza Programa (CIP)	35
3.2.1. CIPa sortu zuen testuingurua	35
3.2.2. CIParen ezaugarriak	35
3.2.2.1. Enpresa-ekimena eta berrikuntzarako Programa (EIP)	35
3.2.2.2. Informazioa eta komunikazioaren teknologia-politika laguntzeko programa (ICT-PSP)	35
3.2.2.3. "Energia Adimenduna-Europa" (IEE) Programa	35
3.2.3. Kontsulta publikoa CIPen ondorengoa izan litekeenaz	36
3.3. Berrikuntza eta Teknologiako Europar Institutua (EIT)	36
3.3.1. Ezagutza eta Berrikuntza Erkidegoa (KIC)	37
3.4. Berrikuntzako Europar Partenergoak (EIP)	37

3.1. Zazpigarren Esparru Programa (FP7)

FP7ren testuingurua era lasgarrian aldatu da azken urteetan. Europako Batasuna krisi larritik irteteko ahalegintzen ari den bitartean, erronka bati baino gehiagori aurre egin beharrean dago. Europa 2020 Estrategiaren eslogan nagusia "hazkuntza adimenduna, jasagarria eta integratzaileak" garapen sozioekonomikoaren alde-rako bidea erakusten du.

Halaber, Europak epe luzeko eraldaketei ere aurre egin beharra du hala nola biztanleriaren zahartzeari, lehiakide berriak agertzeari edo karbono-igorpenak murrizteari. Alor berri horietan, ikerketak hil edo biziko papera du aldaketa errazteko beharrezko ezagutza sortzen, berrikuntzari laguntzeko eta gizartea erronka bakoitzera moldatzeko.

Zazpigarren Esparru Programa (ingelesezko siglak, FP7, Seventh Framework Programme), bere 50.521 M€-ko aurrekontuarekin ikerketari, teknologia-garapenari eta frogapenari laguntzen dio EB osoan. Ekintzak lau programa espezifikoren barruan egikaritzen dira: Lan-kidetzak, Ideiak, Pertsonak eta Gaitasunak; energia nuklearri buruzko ikerketari ere laguntzen dio (Euratom) eta Ikerketarako Zentro Erkideari (JRC).

3.1.1. FP7aren 2007-2010 aldiko EEko ebaluazioa

Europar Batzordeak, aditu talde batekiko lankidetzan FP7ren ebaluazio bat egin zuen haren iraupenaren erdia igaro zenean (ebaluazioa 2010eko martxoan eta urria bitartean egin zen eta haren emaitzak gauzaturik geratu ziren Zazpigarren Esparru Programaren Tarteko Ebaluazioari buruzko Aditu Taldearen Txostenean). Diruz lagundutako proiektu asko egikaritze-etaparen hasieran aurkitzen direnez gero, eta diru-laguntzetara esleitutako diruaren zenbateko handiena oraindik esleitzeke dagoenez gero, behin-behineko ondorioak bakarrik atera daitezke nola FP7ren emaitzei buruz hala zientzian, ekonomian eta europar gizarteetan eragingo duten eraginaz.

Dokumentu honek FP7ren igarotako parteaz egin den, burututako ebaluazioaren eta etorkizuneko ikuspegiaren jarraipena laburbiltzen du, geroko Esparru Programa diseinatzeke finkatuz doazen orientabi-deak barne direla.

Lehen datuak, FP7ko partaidetzari buruzko erreferentziarekin, jarrai-penetik lortutakoak honako hauek izan ziren:

- EEak jasotako proposamenen kopuru osoa 41.000koa da, guztira 234.000 eskatzailearekin.

- Aurkeztutako proposamenetatik 9.100 mantendu egin dira, 51.000 partaiderekin eta erkidegoak guztira egin duen 15.000 milioi euro-ko ekarpenarekin.

- Partaidetzen emaitzak antolaera motaren arabera %30 unibersitateak direla erakusten du, %25 industrialak eta %23 ikerketa-antolaerak.

Txostenak erakusten du FP7 era esanguratsuan ari dela ERAren garapenari laguntzen, haren indarguneak nabarmenduz:

- Inpaktu baikor errealak eragingo duen irismen handia.
- Zabalkiro lortutako bikaintasuna.
- Ikerketaileen mugikortasun eta prestakuntzarako laguntza handia (Marie Curie ekintzak).
- Ikerketa Azpiegituretan izandako efektu baikorra.
- Ikerketaren arriskuaren finantzatze-sistema eraginkorra (RSFF).
- Deialdien prozesatze eraginkorra.
- Ikerketa-ahalegin nazionalen eta industriaren ahalmen berri-tzailearen efektu biderkatzaile baikorra.

Bestalde, hobetze-premia duten alor bezala txostenak honako hauek identifikatzen ditu:

- Administrazio-zama.
- Arriskua-Elkarrekiko Konfiantza balantzaren oreka.
- Emakumearen partaidetzaren erritmoa hobetzea.
- Industriaren partaidetza-joera, etengabeko gutxitzea ageri duena.
- ETEei diru-laguntzak gehitzea, oraindik ez baitira %15era iristen.

Azterlanean nabarmentzen diren kezketako batzuk honako hauek dira:

- Ikerketaren koordinazio eraginkor bat lortzeko egin beharreko aha-lerin handia Estatu Kideen eta EBaren mailan.
- JTIen lege-egituren eta prozeduren kontsistentziarik eza.
- 185. Artikuluari eta ERA-NET Plus-i buruzko datu urriak.
- FP7ko alor askotan arrakasta-ehuneko baxuak.
- Denbora luzeegiak deialdia argitaratzen denetik diru-laguntza eman arte.
- Ikerketaren eragin efektiboa segurtatzerakoan eraginkorra ez iza-tearen zirkunstantzia.

3.1.2. Programa berezi nagusiak

3.1.2.1. Lankidetzaren Programa

Lankidetzaren programaren helburua lankidetzaren estimulazioa eta industriaren eta ikerketaren lokarriak berrindartzea da nazioz gaindikoa esparru batean. Programa honek eraiki eta sendotu egin nahi du europar lidergoa ikerketaren funtsezkoak diren barrutietan. Horregatik hamar Gai ditu bere baitan, autonomoak kudeaketa baina osagarriak ezarpenaren:

1. **Osasuna:** Europar hiritarren osasuna hobetzea du helburu eta osasunarekin zerikusia duten enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza-gaitasuna gehitzea, munduko osasun-arazoei aurre eginez, hala nola epidemia berriei.
2. **Elikagaiak, nekazaritza eta bioteknologia:** Haien helburua da ezagutzan oinarritutako bioekonomia bat sortzea, zientzialariak, industriak eta ikerketa-aukera berri eta gorakorrek ustiatzeaz interesatutako gainerakoak taldekatuz erronka ekonomiko, ingurumeneko eta sozialei aurre egiteko.
3. **Informazioa eta komunikazioaren teknologia:** Helburua da europar industriaren lehiakortasuna hobetzea eta eskaera sozioekonomikoei erantzutea Informazio eta Komunikazioaren Teknologien geroko garapenak menderatuz.
4. **Nanozientziak, nanoteknologia, materialak eta ekoizpen-teknologia berriak:** Helburua europar industriaren lehiakortasunaren hobekuntza lortzea da eta haren eraldaketa segurtatzea industriaren trantsizio eraginkorraren bitartez (baliabideetan oinarritutako ezagutzan oinarritutako), ezagutza "haustailu" eta aplikagarri berri bat sortzea, europar lidergoa indartzea nanomaterialen eta ekoizpen-teknologietan, eta teknologia berriak aplikazio-sektoreetan integratzearen enfasia.
5. **Energia:** Gai honen helburu nagusia da gaur eguneko energia-sistema aldatu eta jasagarriago bihurtzea, inportatutako erregaiekiko mendekotasun gutxiagorekin eta energia-iturriak desberdintzean oinarrituta, batez ere berriztagarriak eta ez kutsagarriak izan daitezkeen, energia-efizientziako gaiei garrantzi berezia emanez, energiaren erabilera arrazionala eta biltegiratzea barne. Halaber, horniketaren segurtasun eta klima-aldaketarena gisako erronkei ere ekingo zaie, aldi berean europar industriaren lehiakortasuna gehituz.
6. **Ingurumena (klima-aldaketa barne):** Honen helburu nagusia da ingurumenaren eta haren baliabideen kudeaketa jasagarria sustatzea, klima, biosfera, ekosistemak eta giza jardueraren arteko interakzioez ezagutza gehitzearen bitartez, bai eta teknologia berriak, tresnak eta zerbitzuak garatuz ingurumen-azti globalen tratamendu integratua zuzenduekin ere.

7. **Garraioa (aeronautika barne):** Gai honen helburua da garraio paneuroparreko sistema integratuak garatzea, seguruagoak, ekologikoagoak eta adimendunagoak izango direnak, aurrerapen teknologiko eta operatiboen oinarritik eta garraioaren europar politikatik.
8. **Zientzia sozioekonomikoak eta humanitateak:** Gai honen helburu nagusia da Europak aurre egin beharreko erronka sozioekonomikoen ezagutza partekatu eta sakon bat sortzea, batez ere ezagutza-oinarri hobea emateko dagozkien barrutietako politikei. Erronka horien artean hauek dira nabarmentzekoak: hazkuntza, enplegua eta lehiakortasuna, gizarte-koherentsia eta jasagarritasuna, bizi-kalitatea, hezkuntza, kultura-alderdiak eta munduko interdependentsia.
9. **Espazioa:** Gai honen helburua Europar Espazio Programa bat bultzatzea da Segurtasun Sistema eta Munduan zehar Ingurumena eta Segurtasunaren Zaintza (GMES) moduko aplikazioetan zentratua, hiritarren mesedetan eta europar espazio-industriaren lehiakortasunari begira.
10. **Segurtasuna:** Gai honen helburu nagusia hiritarren segurtasuna bermatuko duten teknologia eta ezagutzak garatzea da, terrorismoa eta krimen antolatua, hondamendi naturalak eta istripu industriak mehatxuen gain arituz, giza eskubide oinarrikoak kontuan hartuz, pribatutasuna barne.

Aipaturiko helburuekin lortu nahi diren helmugak honako hauek dira:

- Garapen jasagarriari laguntzea ikerketa sustatze-testuinguru batean bikaintasun-maila jasoena lortzeko aukera emango duena.
- Sektorre publiko eta pribatuaren artean esparru paneuroparrak sortzea sustatu, zeinek helburu anbiziotsuetara bideraturik oinarritutako teknologia garatzea ahalbidetuko duten baterako ekimen teknologikoak abiarazteko.
- Ikerketa-programa nazionalen koordinazioa hobetu ERA-NET mekanismoa berrindartuz eta ERA-NET Plus mekanismo berri bat ezarri.
- Estatu Kideekiko lankidetzaren estuan, lau ekimen espezifiko abian jarri: etxe-autonomiari laguntzea, Itsaso Baltikoan ikerketa egitea, metrologia eta ETEtan zentratutako ikerketako programa nazionalak taldekatzea.
- Nazioarteko lankidetzaren tratamendua hobeto bideratzea.
- Gai bakoitzari egokitutako erantzunak lantzea sortzen ari diren beharrei eta ezusteko behar politikoei aurre egiteko eta.

Programa honek egiten duen ekarpenik handiena da Europako baliabideak, diziplinak eta bikaintasun zientifikoa elkartzea. Politika nazionalen koordinazio handiagoa, emaitzak Batasun guztian hedatzea.

tzea, ikerketa-ekipo eta -sare paneuroparrak sortzea eta eta gaur Europak dituen desafioen konponbidera zuzenduriko lanak elkarrekin egitea ikerketa eta garapena Europan zehar integratzea indartuko duten faktoreak dira.

Hamar Gai hauek abian jartzeak, zeinetan zentratuko baita EBaren jarduera, kontuan hartu beharreko zenbait alderdi ageri ditu:

- Jakintzagaiartekotasuna sustatzea ikerketa eta garapen teknologikoko gaien asko baterako planteamenduekin landuz.
- Agenda beharren eta ahalbideen bilakaerara egokitzea (“gorantz datozen beharrak” eta “ezusteko behar politikoak”).
- Koordinazioa indartzea ezagutzak hedatzean eta ikerketaren emaitzak transferitzean, sareak edo mekanismoak sortzeko ekimenen finantzazioaren bitartez, nagusiki, bai eta mintegi eta beste gertaldi batzuen bitartez ere, eta kanpo-adituek eta informazio-zerbitzuek emandako laguntzarekin ere.
- Enpresa txiki eta ertainen (ETE) partaidetzari bultzada ematea, besteak beste, prozedura finantzario eta administratiboak hobetzeari esker, enpresa horien beharrak hobeto ezagutzeari eta haien aldeko neurriak ezartzeari esker.
- Oinarrizko alderdi etikoekiko errespetua, zeinen artean baitaude EBaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean enuntziaturiko printzipioak, bai eta alderdi sozial, juridiko, sozioekonomiko eta kulturalak eta genero-berdintasunarekin zerikusia dutenak.
- “Lankidetzak-ikerketa” sustatzea europar gaitasun teknikoaren ospea munduan zehar gehitzeko asmoz.
- Baldintza jakin batzuetan (balio erantsia, konpromisoaren sendotasuna, dauden bitartekoekin helburua lortzeko ezintasuna, etab.) elkarrekiko ekimen teknologikoak abiaraztea, inbertsio pribatuak eta laguntza publiko nazional eta europarrak konbinatuko dituztenak.
- Erkidegokoak ez diren ikerketa-programak (nazionalak eta erregionalak) koordinatzea ERA-NET mekanismoaren bitartez eta Bata-sunaren partaidetzarekin.
- Zientzia- eta teknologia-gaietan nazioarteko politika bati laguntzea nazioarteko lankidetzak-neurrien bitartez, adibidez, hirugarren herrialdeekin lankidetzak-estrategikoko esparruak ezartzearen bidez ikerketa- edo arazoak konpontze-gaietan elkarrekiko interesa eta onura printzipioaren arabera.

3.1.2.2. Gaitasunak Programa

Gaitasunak Programaren helburua da Europa osoan ikerketa eta berrikuntza bultzatzea eta horretarako Europar Batzordeak honako hau proposatzen du:

- Politiken garapen koherentea bultzatzea.
- Lankidetzak Programa osatzea.
- Estatu Kideen politiken koherentzia eta eragina hobetzeko erkidegoko politikei eta ekimenei laguntzea.
- Sinergiak aurkitzea politika erregional eta kohesioekin, Egitura Funtsekin, heziketa eta prestakuntzako programekin eta Lehiakortasuna eta Berrikuntzarako Esparru Programarekin.

Helburu horiek lortzeko “Gaitasunak” programak bere jarduera zazpi Alor espezifikotan egituratzen du:

1. Ikerketa-azpiegiturak.
2. ETEen mesederako ikerketa.
3. Ezagutzaren erregioak.
4. Ikerketa-ahalmena.
5. Zientzia eta Gizartea.
6. Nazioarte-lankidetzako jarduera horizontalak.
7. Ikerketaren garapen koherentea.

• Ikerketa-azpiegiturak

Alor honen helburua europar ikerketako azpiegiturak erabili eta garatzea da eta, aldi berean, haiek sortu eta modernizatzea. Gainera, laguntza-neurriak aurreikus litezke gerora agian sortuko diren behar posiblei erantzuteko xedearekin. Kontua da europar ezagutza teknologikoak indartzea ezagutzaren ekonomia lehiakorrago eta dinamikoago baten zerbitzuan.

Ikerketa Azpiegiturei buruzko ekintzak honako hauek dira:

- Dauden egituretara sarbide transnazionala bultzatzea.
- Koordinazioa hobetzea modernizazio integratu baten bitartez.
- Lineako azpiegiturak garatzea IKTetan oinarrituta.
- Azpiegitura berriak pentsatu eta eraikitzeari laguntzea.
- Lankidetzak indartzea europar gunean eta nazioartean.

• ETEen Onurarako ikerketa

Alor honetan bilatzen den helburua da ETEei eta ETEen elkarteei ikerketaren aurrerapenen ustiapen hobe bat haien hazkunderaren, haien ezagutza teknikoaren eta haien berrikuntza-gaitasunaren mesedetan. Horretarako, bi erregimen espezifikoki aurreikusten dira:

- Bat enpresa talde txikiak bultzatzera zuzendua da epe laburrean arazo teknologiko erkideak edo osagarriak konpon ditzaten.
- Besteak aukera eman behar du arazo erkideei soluzio teknikoak bilatzeko ETEen kopuru handi bati epe luzeagoan.

• Ezagutzaren erregioak

Alor honen helburua da europar erregioen ikertzeko ahalmena indartzea. Horretarako “elkartze erregionalen” garapena bultzatuko da, Europa osoan, zeinek lotuko baitituzte erregio-agintariak, unibertsitateak, ikertegiak, enpresak eta beste alderdi interesatu batzuk. Alor horretako lehentasunen artean dago, halaber, erregio politika eta ikerketarekin zerikusia duten politikak hobeto koordinatzea.

Alor horren babespean garatuko diren proiektu guztiak honako jardueretan zentratu beharko dira:

- Erregio-elkartzeen analisia, garapena eta ikerketa-planen ezarpena (gaitasun- eta lehentasun-plana ikerketa- eta garapen-gaian).
- Ikerketa-soslai baxuagoko erregioak tutoretzea erregio-partzuergo transnazionalak sortzearen bitartez.
- Ikerketaren barrutiko eragileen eta erakundeen integrazioa gehitzera zuzenduriko ekimenak erregio-ehun ekonomikoan (adibidez: jarduera transnazional antolatuak erregio-elkartzeen esparruan).
- Informazio-truke sistematikoa sustatzea eta antzeko proiektuen arteko interakzioa (adibidez, analisi eta sintesiko tailerrak, mahai-inguruak, argitalpenak, etab.).

• Ikertzeko ahalmena

Gaitasunak Programaren Alor honetako ekintza Europako Batasuneko gutxien aurreratutako erregioetan kontzentratu behar da eta erregio ultraperiferikoetan beren gaitasunak osoki ustia ditzaten ikerketa-gaian. Zirkunstantzia horrek aukera eman beharko luke, epe luzean, Europako Batasun handituaren ikertze-ahalmena bikoizteko (ezagutzak gehitzea, gaitasun gehigarriak garatzea, ikusgaitasuna gehitzea).

Ekintzek elkartze estrategikoak aldeztuko dituzte, bereziki, senidetzak barne direla erregio hauetako ikerketa-taldeen artean (nola sektore publikoak hala pribatukoak) eta European dauden beste erregio batzuetako lehen mailako ikerketa-taldeen artean. Elkartze eta senidetze horiek erregio gutxiago aurreratueta hautatutako ikerketa-taldee (haien kalitatearen eta ahalmenean oinarriturik) honako onura hauek izateko aukera emango die:

- Ezagutzak eta esperientziak trukitzea.
- Ezagutza eta prestakuntza transferitzeaz arduratzen diren ikertzaile esperientziadunak kontratatzea.

- Ikerketa-ekipamendu jakin batzuk eskuratu eta garatzea.
- Tailerrak eta konferentziak antolatzea.
- Haien ikusgaitasuna gehituko duten jendarteratze- eta sustatze-jarduerak burutzea.

• Zientzia eta gizarte

Ezagutzaren gizarte europar efektibo eta demokratiko bat eraikitzea dimentsio zientifikoa europar ehun sozialean integraztetik pasatzen da. Helmuga hori lortzeko, Alor horretako jardueren helburuak honako hiru jarduera-lerro nagusi jarraitu beharko ditu:

- Zientzia eta gizartearen arteko harremanen gobernantza: Europar sistema zientifikoa sendotzea eta hobetzea, arazo politiko, etiko eta sozialak aurreikusi eta ebaztea, zientziak eta teknologiak gizartearen duten lekua hobeto ulertzea, unibertsitateen paper aldatzea.
- Zientzia-munduaren ahalmena eta ikuspegiak: emakumeen eta gazteen papera sendotzea.
- Komunikazio zientifikoa: zientzia eta gizartearen arteko lotura berrezartzea.

• Nazioarteko Lankidetzaren Jarduerak

Europar Erkidegoko Alor honetan honako helburu hauek planteatzen ditu nazioarteko zientzia- eta teknologia-politika indartsu eta koherente bat izateko, lehiakorrago izan eta lidergo globaleko papera jokatzeko aukera emango diona:

- Europar lehiakortasunari lagundu partenergo estrategikoen bitartez EBaz kanpoko herrialdeekin, zientziaren eremu hautatu batzuetan, zientzialari hobereenak erakarri haiekin lankidetzan aritzeko edo European lan egin dezaten.
- Ezagutza eta bikaintasun zientifikoaren ekoizpena gehitu europar unibertsitateei, teknologia-zentroe (eta enpresei hirugarren herrialde horietan beren kideekin kontaktuak ezartzea erraztuz, sinpletuz horrela, Europaz kanpoko ikertzaile-inguruneetarako sarbidea eta munduan zehar sinergiak sustatuz.
- Hirugarren herrialdeei dagozkien arazoei edo izaera globala dutenei aurre egin, elkarrekiko interes eta onuran oinarrituta.

• Ikerketaren garapen koherentea

Alor honek ikerketa-politiken efektibotasuna eta koherentzia handitzea du helburu erkidegoan eta nazioan, eta beste politika batzuekin haiek artikulatzea ikerketa publikoaren eragina eta industriarekiko haien harremana hobetuz, laguntza publikoa sendotuz eta aktore pribatuen inbertsioetako haien palanka efektua.

3.1.2.3. Ideiak Programa

“Ideiak” Programak bilatzen duen helburu nagusia da europar ikerketaren maila jasotzea garapen bizkorra duen eremuetan, eta horrenbestez Europaren lehiakortasun ekonomikoa eta ongizatea gehitzea. Kontua da “ikerketa esploratzaile” bat egitea, zeinek diziplina bakoitzaren mugak eta geografia-mugez harago, aukera emango baitu nabarmen aurrera egiteko eremu zientifiko, teknologiko eta unibertsitarioan. Programa hau “ezagutza ikerketaren mugetan” bultzatzeko pentsaturik dago ikertzaileek berek aukeratutako gaiei buruz.

Programa bikaintasun zientifiko, autonomia, gardentasuna eta erantzukizuna printzipioen arabera egikarrituko da, Ikerketako Europar Kontseilu baten (IEK) laguntzarekin soluzio zehatzak emanaz gaur egun Europak ageri duen bikaintasun-defizitari.

Ideiak Programaren helburu orokorrak honako hauek dira:

- Europar ikerketaren bikaintasuna, dinamismoa eta sormena gehitzea.
- Europa erakarpen-polo bihurtzea Europako eta hirugarren herrialdeetako ikertzaile hoberenentzat, bai eta ikerketa-enpresen inbertsioetarako.
- Europar ikerketa aurrerapen zientifikoaren abangoardiara eramatea.
- Bidea urratzea aurrerapen zientifiko eta teknologiko berriei.
- Ideien zirkulazioa bultzatzea.
- Ezagutzaren europar gizartearen joko-altxaldiak hobeto ustiatzen saiatzea.

3.1.2.4. Pertsonak Programa

Pertsonak Programaren funtsezko helburua da Europako ikertzaileen ikuspegi profesionalak, kalitatez eta kantitatez hobetzea. Bestela esateko, enpleguaren merkatu europarra egokitzen ahalegintzea da ikertzaileen prestakuntza, mugikortasun eta garapenaren beharrei hobeto erantzuteko eta, horrela, beren geroa Europan eraikitzea estimulatzea.

Programa honek baliabide finantzario garrantzitsuak jartzen ditu jokoan eta “Marie Curie” ekintzetatik lortutako esperientzian oinarritzen da. Zehatzago esateko, honako hiru alderdiok azpimarratuko dira:

- Abantailak eta efektu egituratzaileak sortzea, adibidez, programa erregional, nazional, nazioartekoan elkarrekin finantzatzearen bitartez.
- Karrera prestakuntza eta garapenaren ahalbideak hobetzea sektore pribatuan (enpresen inplikazio handiagoa eta enpresen eta unibertsitateen arteko lankidetzaren handiagoa).

- Nazioarteko dimentsioa indartzea.

Ikerketaren eremuan giza ahalmena berrindartzeko honako ekimen hauek abiaraztea beharrezkoa da:

- Ikertzaile-bokazioak estimulatzea.
- Europar ikertzaileak Europan geratzera adoretzea.
- Erkidegokoak ez diren ikertzaileak Europan erakartzea.
- Herrialde, sektore, erakunde eta jakintzagaien artean ezagutzaren hedapena hobetzea.
- Ikerketan eta garapen teknologikoan emakumeen integrazioa indartzea.

Pertsonak Programako helburu desberdinak lortzea karrerako fase guztietan ikertzaileen kualifikazioak eta gaitasunak garatzera bideratutako “Marie Curie” ekintzen bitartez lortuko da, mugikortasuna azpimarratuz (transnazionala eta sektoreartekoa), sektore eta herrialde desberdinetan lortutako esperientzia ezagutzuz, eta lan-baldintzak optimizatuz.

3.1.3. Industria lider duten ekimenak

3.1.3.1. Europar Teknologia Plataformak (ETP)

Europar Teknologia Plataformak (ingelesezko siglak, ETP - European Technology Platform) sektore jakin batean interesa duten europar erakundeek elkartzeak dira, industria lider dutenak, baina ikerketa-organismoen ordezkaritza zabal batekin, europar kokamenduko ikuspen bat zehazteko helburuarekin epe luzera, dagokion Ikerketa Agenda Estrategikoarekin (ingelesezko siglak, SRA - Strategic Research Agenda) estrategikoki garrantzitsuak diren gaiei buruz.

Teknologia Plataformek oinarritzko papera dute Europan Ikerketaren Gunean, eragile inplikatu desberdinak barruti batean biltzean Ikerketa Agenda Estrategikoa zehaztu eta abiarazteko.

Europar Teknologia Plataformek beren garapenerako hiru faseko prozesu bat jarraitzen dute:

- Europar Teknologia Plataformak sortzea: sektoreko eragile nagusi guztiak biltzea. Industriari dagokio lidergo- eta zuzendaritza-papera. Hala ere, Europar Batzordearen funtzioa oinarritzko da teknologia plataformen lehen urratsetan, bai eta prozesuaren gardentasuna segurtatzeko ere.
- Ikerketa Agenda Estrategikoa zehaztea, bertan epe luzeko teknologia-agertokiei buruzko ikuspen erkide bat finkatzen da, epe ertain eta luzera lortzeko helburuak eta haiek lortzeko ibilbide-orria.
- Ikerketa Agenda Estrategikoa abiaraztea, giza eta finantza-baliabide ugari mugiaraziz, bai Esparru Programaren ohiko deialdietara joz, edo haren funtsen parte bat kudeatuz Baterako Teknologia Ekimen



EDEFU Proiektua: "New design of ecological furnaces". Partaideak: Tecnalia, Vidrala eta Indal Casting.

bat eratzearen bitartez (Ikus sail hau: 3.1.2.2. Baterako Teknologia Ekimenak, JTI).

Industriak izan behar du plataforma bakoitza sortu eta garatzearen lider; hala ere, beste partaide batzuek ere tarteko izan behar dute hala nola agintari publikoak, ikerketa-zentroak eta erkidego akademikoa, erkidego finantzarioa, gizarte zibila, etab.

Barruti teknologiko jakin batean funtsezkoak diren eragileen lankidetzaren bitartez, teknologia-plataformek zehaztu ditzakete teknologia- eta ikerketa-lehentasunak halako sektorerako epe ertain eta luzerako, hori lortzeko arau batzuk ezarri eta inbertsio nazional eta europarrak koordinatu, publikoak eta pribatuak, I+G-ean, eta horregatik ekarpen garrantzitsua egin dezakete Ikerketako Europar Gunea garatzen.

Europar Teknologia Plataformek gaur egun duten garrantzia kontsulta-organo bat izatean datza, zeinek proposatzen baitu Europar Batzordea FP7n abian jartzen ari den ikerketa-lehentasunetan edukien parte bat.

(T.3.1) Laukiak orain arte sortu diren 36 Europar Teknologia Plataformak erakusten ditu.

Herrialde batzuetan ETPen “talde ispiluak” sortu dira, Espainiar Estatuan, adibidez, “talde ispilu” horiek foroak dira eta:


- Informazioaren truke jariakorra ahalbidetzen dute sektore edo teknologia-barruti batean interesatuen arteko lankidetzaz errazteko.
- Auzitan dagoen sektoreko eragile publikoak eta pribatuak elkartzea bultzatzen dute, sektore horretan beharrezkoak diren behar teknologiko eta ikerketakoei lehentasuna emateko, epe labur edo luzera.
- Inbertsio erregional, nazional eta/edo europarrei, bai eta I+G inbertsio publiko eta pribatuei buruz orientabideak ematea ahalbidetzen dute.

Espainiar Teknologia Plataformek eragin handia izan dute. Denbora laburrean plataforma horiek zientzia eta teknologiako lankidetzaz sare nazional bihurtu dira, sistemako aktore guztientzat topagune direlarik (enpresak, ikertzaileek, teknologia- eta ikerketa-zentroak, administrazio publikoak) eta bertan ekintzen eta jarduteen gomen-dioak burutzen dira beren jardueretan sektore estrategikoak berrindartzeko nola espainiar Estatuan hala Europan.

T.3.1 Europar Teknologia Plataformak

Energy	ICT	Bio-based economy	Production and processes	Transport
Biofuels	ARTEMIS	FABRE TP	ECTP	ACARE
SmartGrids	ENIAC	Food	ESTEP	ERRAC
TPWind	ISI	GAH	ETP SMR	ERTRAC
Photovoltaics	Net!Works	NanoMedicine	Manufuture	Waterborne
ZEP	NEM	Plants	FTC	ESTP
SNETP	NESSI	Forestry	WSSTP	
RHC	EUROP		SusChem	
	EPoSS		EuMaT	
	Photonics21		IndustrialSafety	

Iturria: http://cordis.europa.eu/technology-platforms/individual_en.html



LearnForm Proiektua: “Self Learning sheet metal forming system”. Partaideak: AEP I+D+i Fundazioa.

• Europar Teknologia Plataformen Ebaluazioa

Europar Batzordeak Teknologia Plataformen ebaluazio bat eskatu zuen haien funtzionamendua, kontzeptu-garapena eta helburuak aztertzeko, haien emaitzak eta eragina berrikusteko, haien lorpenak, faktore mugatzaileak eta jarduera hoberenak zehazteko, eta etorkizunerako gomendioak egiteko. 2009ko azaroan argitaratu zen “Strengthening the role of European Technology Platforms in addressing Europe’s Grand Societal Challenges”¹ Txostena.

Txosten honetan Teknologia Plataformen arteko koordinazioa eta lankidetzaren beharra nabarmentzen zen “haien eskala finantzarioa eta baliabideak, haien balio erantsia eta eragimena handitzeko, bikoiztea eta efizientziarik eza saihesteko”, eta izaera sozialeko auzientzat planteamendu erkideak bilatzeko. Gainera, ETPei eskatzen zitzaizen arreta berezia eskaintzea GKEen eta kontsumitzaileen inplikazioari, eta, halaber, ohartarazten zitzaizen “klub” bihurtzeko ondorio ezkor batzuk berekin ekarriko zituela, zeren eta era desegokian kideek beren enpresentzat finantzazioa sortzeko plataformez baliatzen saiatzearen arriskua planteatuko bailitzateke.

Txostenean gomendatzen zen Batzordeak argitu zitzala Plataformek EBeko mugez harago hedatzeko zituzten ahalbideak, izan ere haiek batzuek nazioarteko lankidetzaren funtsezkotzat jotzen zuten munduko beste potentzia batzuekin lehiakortasuna berrindartzeko.

Halaber, nabarmendu egiten zen arduradun politikoen Plataformei kontsultatzeak zuen garrantzia eta politikak prestatzerakoan beren iritzia ematera eta ekarpenak egitera gonbida zitzaten teknologiaz harago joan zitezela. Txostenaren gomendio espezifiko bat, Plataformei beraiei zuzendua izan zen desafio zientifiko eta teknikoetan bakarrik ez zentratzea eta ikerketaren komertzializazioa erasango zuten araudi eta estandarretara beren asmoak bideratzea. Txostenaren arabera, ETPak “antolatze-, komunikatze- eta sustatze-prestakuntza eta heziketako programa berri eta egokituak sorrarazteko” lana ere egin behar zuten.

3.1.3.2. Baterako Teknologia Ekimenak (JTI)

Baterako Teknologia Ekimenak (ingelesezko siglak, JTI – Joint Technology Initiatives) europar hedaturako partzuergo publiko eta pribatuak dira I+G-arentzat garrantzitsuak diren alorretan industriaren barruan. JTIak, Teknologia Plataformetan sortzen direlarik trenan dira industria lankidetzan aritzeko ikerketako sistema publikoarekin, eta haietako gehienek 10 urteko iraupen aurreikusia dute (2007tik 2017ra), eta parte batez Zazpigarren Esparru Programako, Lankidetzaren Programako funtsez finantzatzen da.

Esan liteke JTIak Plataforma kopuru mugatu baten SRA osatzeko birtarteko bat direla. Kasu horietan, helburuen tamaina eta irismena hainbestekoa da non handiegiak gertatzen diren ETPen bitartez koordinatuak izateko.

JTIak abiarazten aritzen diren egiturak legezko erakundeak dira, era integratuan ikerketa-programak kudeatzen dituztenak, industriarekin, beste alderdi interesatu batzuekin ahaleginak bateratuz. JTIek beren aurrekontu propioa dute, bai eta haiek kudeatzen aritzen diren, proposamen-deialdiak antolatzen, prozeduren hautespena gainbegiratzen eta proiektuetarako kontratu-planak ezartzen dituzten langileak ere. Beraz, iturri desberdinetatik datozen funtsak batera kudeatuak izatea ahalbidetzen dute, eta komunikazio- eta hedapen-jardueren arduradunak dira.

Gaur egun, dagoeneko onartu diren eta jardunean dauden ETPak hauek dira:

- **IMI:** sendagai berritzaileei buruzkoa.
- **Artemis:** sistema informatiko landatuei buruzkoa.
- **Clean Sky:** aeronautika eta aire-garraioari buruzkoa.
- **ENIAC:** nanoelektronikari buruzkoa.
- **FCH:** Hidrogeno eta Erregai Pilei buruzkoa.
- **GMES:** Ingurumenaren Munduko Zaintza eta Segurtasuna (nahiz eta JTI bat bezala ez den abiarazi).

Sortu ohi den intereseko auzi bat da “zein den Baterako Teknologia Ekimenen (JTI) eta Europar Teknologia Plataformen (ETP) arteko aldea”. Oinarritzeko aldea hau da: ETPek posible egiten dutela sektore publikoak eta pribatuak batera determinatzea beren ikerketa-beharrik; aldiz, JTIek aukera ematen dute tamaina handiko ikerketa industrialeko jardueran aplikatuak burutzea, parte batez Plataformek adierazten dituzten beharretan oinarrituak. Gainera, nabarmendu behar da JTIek finantzazioa har dezaketela Esparru Programatik, eta hori ETPei aplikagarri ez zaien zirkunstantzia da.

2010eko uztailan argitaratu zen ARTEMIS eta ENIAC JTIen tarteko lehen ebaluazioa². Ebaluazio-taldeak aitortzen zuten txosten hartan, alderdi baikor bat bezala, JTIen egitura hiru aldekoaren balioa teknologia-barruti hauetan, industriaren, EBaren eta Estatu Kideen baliabideak erkidetzan ezartzea.

Hala ere, adituek beren beldurra agertzen zuten ARTEMIS eta ENIAC ez ote ziren ari behar adinako arreta eskaintzen beren europar helburu estrategikoei. Ebaluazio taldeak bi JTIen birplanteatze estrategiko baten alde egiten zuten, alderdi interesatu guztiei parte hartzeko aukera eman zezaten eta egiazki elkarrekiko ahalegin baterantz au-

(1) http://ftp.cordis.europa.eu/pub/etp/docs/fa-industrialresearch-b5-full-publication-tp_en.pdf

(2) http://ec.europa.eu/dgs/information_society/evaluation/rtd/jti/index_en.htm

rrera egiteko. Testuinguru honetan, adituek eskatzen zuten gainera industriak berriro jo zezala industriako, administrazioetako eta zientzia-erkidegoko goi-mailako "lider intelektualengana". Era berean, Estatu Kideen finantzazio-konpromisoa espero zenetik nabarmen beharago zegoela, eta horrek arriskuan jartzen zuela jardura-masa kritiko bat finkatzea eta seriooki mugatzen zuen proiektu-kartera egoki batzuk eraikitzea.

3.1.3.3. Partenergo Publiko Pribatuak (PPP)

Berreskuratze Ekonomikoaren Europar Planaren atal bezala (ingelesez, European Economic Recovery Plan), Batzordeak 2009an hiru Partenergo Publiko pribatu (PPP, Public-Private Partnerships) abiarazi zituen eta 2010ean laugarren PPP bat jaurti zuen. PPP hauek bulkada bat dira industria-sektore handietako ahalegin ikertzaileentzat (automozioa, eraikuntza, fabrikazioa, etab.) bereziki erasanak geratu baitziren atzeraldi ekonomikoarengatik eta zenean berrikuntzak era erabakigarrian lagundu baitezake ekonomia berde eta jasangarriago bat eraikitzen.

Helburu hori lortzeko, Batzordeak FP7ko aurrekontutik I+G-aren aurrekontu guztizkora % 50eko ekarpen bat aurreikusten du, beste erdia industriak egindako funtsen ekarpenean dagoela.

Gaur egun funtzionamenduan dauden lau PPPak hauek dira:

- **Etorkizuneko fabrikak (FoF: Factories of the Future):** Erkidegoko fabrikatzaileei laguntzera zuzenduriko ekimena, batez ere, enpresa txiki eta ertainei, mundu zabaleko lehia-presioetarako egokitzapenean, beren ezagutza eta etorkizuneko teknologien erabilera hobetuz.
- **Eraikin energetikoki efizienteak (EeB: Energy efficient Buildings):** Ekimen honek sustatu egin nahi ditu teknologia ekologikoak eta material energetikoki efizienteak sortu eta eraikinetan erabili, energiaren kontsumoa eta CO₂-aren igorpena errotik murriztearen helburuarekin.
- **Automobil ekologikoak (GC. Green cars):** Ekimen honek energia berriztagarrien eta ez-kutsagarrien iturriak sustatzea azpimarratzen du, bai eta automobil-trafikoaren segurtasuna eta jariakortasuna. Beharrezkoa da kontsiderazio ekologikoak integratzea erkidegoko eta munduko helburuak betetzeko igorpenak murrizteari dagokionez.
- **Etorkizuneko Internetak (FI: Future Internet):** Europako IKTeko 16 enpresak sortua eta asmo nagusia planteamendu berri bat egitea du Europar etorkizuneko Internetaren erronkei aurre egiteko.

PPP-en figurek dakartzaten abantaila nagusiak hauek dira:

- Konfiantza ikerketan epe luzera inbertitzeko, nahiz eta epe laburren arazo ekonomikoek aurre egin behar izan.

- Industriaren lidergoa, ETEak barne direla, lehentasun estrategikoak zehazten eta ikerketa burutzen.
- Urte askoko programa integratu bat izatea aurrekontu predefinitu batekin, jarraipen bat segurtatuz eta industriari planak egiteko aukera emanez epe luzera.
- Zehar-lerroko planteamendu bat ikerketa oinarritzko eta aplikatutik hasita, eskala handiko baliozkotze eta frogapenetik pasatuz, eragina eta ustiapena bereziki azpimarratuz.
- Aukera gehiago ETEetan berrikuntza bultzatzeko.
- Proposamenak aurkeztea fase bakar batean, horrela ebaluazio lasterrago bat eta ondorioz "time to contract-a" murriztuz.

3.1.4. Herrialdeak/erregioak lider dituzten ekimenak

3.1.4.1. ERA-NET/ERA-NET Plus

Gertaera bat da nazio-mailako ikerketa Europar ikerketari esleitutako gastuaren %85 dela³, horregatik behar edo lehentasun nazionaleri aurre egiteko programa nazionalen baliagarritasuna faktore ukalezina da. Hala ere, ikerketa nazionalaren eragina gehitzeko Estatu Kideek koordinatu egin behar dituzte beren ahaleginak, beren ahalbideak partekatzea iritsi, eta ahaleginak bateratu inbertsio nazionalen eragina hobetzeko barruti estrategiko jakin batzuetan.

ERA-NET eskema, FP6ren tresna berri bezala sortu zena eta indarrean jarraitzen duena FP7n Estatu Kide eta Estatu Bazkideetan garatutako ikerketa-jardura eta -politiken lankidetzak eta koordinazioa sustatzearen funtsezko helburua du bakoitzaren ikerketa-programen birtartez maila nazio- eta/edo erregio-mailan. Lankidetzak eta koordinazio hori iritziak eta jardura onak trukatzeko, ikerketako elkarrekiko programen plangintza estrategikoan eta diseinuan, eta elkarrekiko jardueren garapenean eta egikaritzean gauzatzen dira, batera egindako deialdiak barne direla.

Finantzazio nazional/erregionaleko programen jabeak eta kudeatzaileak lankidetzan aritzeari ekin zioten, funts nazional/erregionalekin elkarrekiko proposamenetarako deialdiak ere eginez. Lehen urteetan lortutako esperientziak eta arrakastak erakutsi zuten ERA-NET eskemarekin jarraitu beharra FP7an.

Indarrean jarraitzeaz gainera, FP7an, "ERA-NET Plus" izeneko eskema berri bat diseinatu zen ikerketaren finantzazio transnazionala oraindik gehiago hobetzeko.

(3) Europar Batzordeari Europar Parlamentuari, Kontseiluari, Europar Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Erregioen Batzordeari, 2008ko uztailaren 15ean egindako jakinarazpena, izen honekin: "Elkarrekiko ikerketa baterantz ikerketan: batera lan egin guztion kezka diren auziei modu eraginkorragoan ekiteko" [COM(2008) 468].



KUBIK by Tecnalia: I+G+b-ko Eraikin Esperimentala Energian Eraikuntzan.

“Plus” tresna honek emandako dimentsio berria da Batzordeak pizgarri bat ematen duela elkarrekin deialdiak antolatzeke, elkarrekiko finantzazio transnazionala erkidego-funtsekin handituz.

6. Kapituluaren ikuspen osoago bat aurkezten da ERA-NET eta ERA-NET Plus eskemei buruz.

3.1.4.2. 185. Art. (Lehenengo 169. Art.)

Lisboako Hitzarmeneko 185. Artikuluak (Europako Batasuneko Hitzarmeneko lehenengo 169. artikulua) baimena ematen dio Europako Batasunari Estatu Kide batek baino gehiagok elkarrekin abiatutako ikerketa-programetan parte hartzea.

Hitzarmeneko 185. artikulua araberara: *“Urte askoko Esparru Programa egikaritzean, Erkidegoak aurrekusi ahal izango du, interesa duten Estatu Kideekiko adostasunean, Estatu Kide batek baino gehiagok abiarazitako ikerketa- eta garapen-programetan parte hartzea, programa horiek egikaritzeko sortutako egituretan parte hartzea barne dela”.*

Gaur egun programa bat baino gehiago daude abian Artikulu horrek kontuan dauzkan ahalbideen arabera:

- **AAL (Ambient Assisted Living)**, Zahartze osasuntsu baten aldeko ikerketa sustatzeko. Biztanleria zahartzeak aukera bat eskaintzen duen IKTen garapenak hobetu dezan biztanleriaren nitxo horren bizi-kalitatea, AAL Programak helburutzat du IKTak sustatzea, adinekoren beharrei erantzungo dieten produktuak eta zerbitzuak sortuko dituztenak, adinekoei bideratutako IKTetan masa kritiko bat sortzeaz gainera, baldintzak erraztuz industriak balia ditzen eremu horretako ikerketaren emaitzak.
- **EUROSTARS**: ETEak estimulatzerazuzendurik dago ikerketa-jarduerak burutu ditzaten, nazioarteko lankidetzan, eta berrikuntza-proiektuak laguntza eta finantzazioa lortzeko sarbide erraz baten bitartez (Hurrengo sailean argibide gehiago).
- **BONUS-169**: Programa hau, Itsaso Baltikoan ikerketak egitera zuzendua erabat lerrokaturik dago itsasoko eta itsasaldeko europar estrategiaren helburuekin. Programa EBaren Itsaso Baltikorako estrategiaren parte da, eta haren helburua da esparru koordinatu eta barne-hartzaile bat ematea Itsaso Baltikoaren erregioak aurre egin beharreko funtsezko erronkei erantzunez, bai eta erronka horiei aurre egiteko konponbide zehatzak ere.
Bulkada politikoaren eta interesatuei etengabe egindako kontsultetan oinarritutako ikerketa-programa bat ezartzearen bidez aurreikusten da BONUS-169k erregioko garapen jasangarria bultzatzen du, ikerketako lankidetzaz sendotzea eta baliabide erkideen eta erregioko azpiegituren erabilera erraztea.
- **EMRP (European Metrology Research Programme)**: Programa hau metrologia, neurketaren-zientziaren eremura zuzendurik dago

eta 22 herrialde ditu tarteko (Estatu Kideak eta FP7ra Bazkideak), Europar Batzordearen eta European Association of National Metrology Institutes-en (EURAMET) laguntza du. Programa honen helburu nagusia Europako berrikuntza eta lehiakortasuna bizkortzea da.

- **EDCTP (European Development Clinical Trials Partnership):** Programa honek hiesa, malaria eta tuberkulosiaren aurkako azterlanak sustatzen ditu eta 2003an sortu zen sendagai, txerto eta mikrobizida berri eta hobeak garatzea bizkortzeko helburuarekin hiru gaitz horien aurka, Saharaz azpiko Afrikako saiakera klinikoan II. eta III. Faseei arreta berezia eskainiz. EDCTPek zentro asko biltzen dituen proiektuei laguntzen die, saiakera klinikoak eta sareko lana konbinatzen dituztenak. Hiru jarduera horiek integratzearen asmoa da garatutako gaitasunak behar bezala erabiltzen direla saiakera klinikoak modu jasagarrian gidatzeko.

3.1.4.3. EUREKA / EUROSTARS

EUREKA gobernu arteko ekimen bat da, I+G+b-ri laguntzeko, 1985ean sortua, europar enpresen lehiakortasuna bultzatzea xede duena proiektu teknologikoak burutzea sustatuz, teknologia berriazailtan oinarritutako produktuak, prozesuak eta/edo zerbitzuak garatzera bideratuak eta nazioarteko merkatuan merkataritza-interes argia dutenak.

Eureka proiektuko partaideen gehiengo handia enpresa handiak eta ETEak dira nahiz eta Eureka zabalik dagoen unibertsitateak eta teknologia-zentroen moduko beste erakunde batzuetara.

Eurekan ez dago lerro teknologiko predeterminaturik, teknologia guztiak dute sarrera, izaera berriazaila baldin badute. Proiektuen edukia partaideen sustatzen dute, partzuergo bakoitzaren beharren arabera, baina horrek ez du eragozten Eureka beste Alor teknologiko batzuetan proiektuen garapena sustatzea, garrantzi estrategikoa aitortzen bazaie.

Ia europar Herrialde guztiak dira Eureka Programako kideak, eta gainera Eurekan parte har dezakete beste europar herrialde batzuek ere, baldin eta bi Estatu Kiderekin lankidetzan egiten badute; herrialde horien artean sar daitezke: Albania, Bosnia-Hertzeboina eta Bulgaria. Halaber, eta egoera berean, Hego Koreak ere parte har dezake Programa Estatu Bazkidearen estatusarekin.

Proiektuen finantzazioa era deszentralizatuan egiten da, hau da, Herrialde bakoitzak bere gain hartzen du bere lurraldeko erakunde finantzazioa.

Eureka deialdiak beti zabalik daude eta proiektuan parte hartzen duen Herrialde bakoitzeko Eureka Bulegoaren bitartez era deszentralizatuan egikaritzen den burokrazia pixka bat eskatzen du.

Proiektuak esleitzeko prozedura oso erraza da, zeren lehen instantzia batean, Eureka Proiektuen Koordinatzaile Nazionalak aztertu egiten baitu programaren barruan aurkeztutako proposamenen egokitasuna, gero Eureka abalatu izatera pasatzeko, eta hori "kalitate-zigilu" baten bidez egiten du, zeinek sustatze- eta maila teknologikoa aitortze-elementu bat izateaz gainera, onartutako proiektuek finantzazio publikoaren merezimendudun izatea egiten duen.

Eureka programaren kudeaketa Estatu espainiarrean CDTiren esku dago, eta horregatik berekin dakar espainiar enpresa askoren partaidetza sustatzea ekimen honetan, proiektuaren hasierako proposamenaren formulazioan, kideak bilatzen, proiektuaren dokumentazioa lantzeko eta finantzazio-iturrietarako sarbidean aholku emanaz.

Lehenago esan denez Eureka proiektuek ez dute lehenetsuneko teknologia-alorrik, baina batzuetan haiek duten gaiarengatik, dau den ekintza estrategikoetako baten barruan koka daitezke:

- **Umbrella (Aterkia):** Elementu bitartekari bat da Eureka proiektuak sortzeko, zeinen gaia teknologia-alor espezifiko batean edo negozio-sektore batean planteaturik baitago. Ekintza estrategiko hori Eureka ordezkari edo aditu industrial edo sektoreko talde batek koordinaturik eta inplementaturik dago, eta EUREKA sareko ordezkariak eta aditu nazionalak erabiltzen dute. Estatu espainiarrak aktiboki parte hartzen dueneko "Aterki" Proiektuak honako hauek dira:
 - **EUREKATOURISM:** turismo eta aisiaren sektoreko lehiakortasuna sustatzen du berrikuntza teknologikoaren bitartez.
 - **EUREKABUILD 2:** jasagarritasun-irizpidera bideratutako proiektuak sustatzen eta bultzatzen ditu eraikuntzaren sektoreko jardueran.
 - **EULASNET II:** produktu, prozesu eta zerbitzu berriak sortzean inplikatzeko proiektuei laguntzen die laser eta teknologia optikoak erabiliz.
 - **PRO-FACTORY:** ekoizpenaren alorreko hobetze eta aurreratze teknologikoekin zerikusia duten proiektuak sustatu eta bultzatzen ditu.
 - **EUROAGRI FOODCHAIN:** nekazaritza eta elikaduraren sektorean proiektuak sustatu eta koordinatzen ditu, eta animalia- eta landare-ekoizpenarekin zerikusia duten beste sektore batzuetan.
 - **LOGCHAIN +:** merkantzien logistikako alorrean espezializaturik dago haren helburu nagusia delarik errepideko merkantzia-trafikoa trenbidera edo itsas edo ibai-bidera desplazatzea.
 - **ENIWEP:** Industria eta ikerketaren arteko interakzioa sustatzen du tribologiaren eremuan.

• **Cluster:** Ekimen industrialak epe luzera eta estrategikoki esanguratsuak, partaide kopuru handi bat dutenak eta balio-kate guztia estaltzen duten teknologia generikoak garatzen dituztenak. Espainiar Estatuak” parte hartzen duen “Klusterretako” batzuk hauek dira:

- **CELTIC:** haren helburua da europar lehiakortasuna sendotzea telekomunikazioen eremuan.
- **ITEA2:** haren helburua da plataformak sortzea eta sistema intentsiboak softwarean garatzeko metodologiak erabiltzea.
- **EURIPIDES:** aurretiazko bi Klusterren fusioaren jarraipena da: EU-RIMUS (Mikrosistemen aplikazio industriala) eta PIDEA (azpisisistema elektronikoen kapsulatzea eta interkonektioa).
- **CATRENE:** plataformak sortzera bideraturik dago mikroelektronikako teknologiak eta prozesuak garatzeko.
- **EUROGIA +:** energia guztien konbinazioan zentratzen da, “Igorpen baxuetarako teknologiak”, erregai fosiletatik iturri berriztagarrietara.

• **EUROSTARS:** programa honek I+G+ean intentsiboak diren ETEei laguntzen die merkatura bideratutako proiektu transnazionalak garatzen:

- Europar euste-mekanismo jasangarri bat sortuz antolaera horiei.
- I+G horren emaitzetan oinarritutako jarduera ekonomikoak sortzera akuilatuz eta produktuak, prozesuak eta zerbitzuak merkaturuan sartzera bizkortuz.
- Garapen teknologiko eta enpresariala sustatuz eta enpresa horien nazioartekotzea.
- Proiektuetan parte hartzen dutenen finantzazio publikoa segurtatuz.

Proiektu horiek haustura bat adierazi behar dute arte teknikoaren egoerarekiko eta hainbesteko erronka komertziala, non enpresa horiei aukera emango dien jauzi kualitatibo garrantzitsu bat ematera merkaturako beren kokagunean.

EUROSTARSen onartutako proiektuak funts nazionalekin finantzatzen dira, eta haien finantzazioa segurtaturik dago herrialde bakoitzak eta Europar Batzordeak deialdi bakoitzerako ezartzen duten aurrekontuaren mugak agortzeraino.

Estatu espainiarrean EUROSTARS proiektuen finantzazioa “Interempresas Internacional” programaren bitartez egiten da, CDTik finantzaturik eta, Eureka Proiektuak bezala, finantzazioa eskatzeko deialdiak zabalik daude era jarraituan, batez beste urtean bi itxe-datatuekin.

3.1.5. Tresna berriak

3.1.5.1. Baterako Programatzearen Ekimenak (JPI)

FP6tik hasita ERA-NET eskema bazegoen inbertsio nazional eta erregionalen eragina hobetzeko tresna bezala, FP7an tresna berri bat sortu da Baterako Programatze Ekimenak deritzona (ingelesezko siglata JPI, Joint Programming Initiative).

2008ko martxoko Europar Kontseiluak Batzordeari eta Estatu Kideei eskatu zien baterako programatzearen ahalmena esplora zezala, eta horretarako proposamen batzuk egin zituen jakinarazpen honetan “Baterako Programatze baterantz Ikerketan: Elkarrekin lan egin modu eraginkorragoan auzi kezagarri erkideei ekiteko”. Ministroen Kontseiluak berretsi egin zituen proposamenak eta 2008ko abenduan prozesua abiaraztea hitzartu zuen.

Gerora, 2010eko martxoan, Europar Batzordeak estrategia hau abiarazi zuen: “Europa 2020 - Estrategia bat hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako eta Berrikuntzaren aldeko Batasuna ekimen intsignia”. Bertan esaten zen Batzordeak lan egingo zuela Ikerketako Europar Gunea osatzeko asmoz baterako programatzea gehituz Estatu Kideekin eta erregioekin.

Baterako Programatzeak (JPI) helburu du mugez gaindiko lankidetzaren indartzea Estatu Kideen ikerketa-programen koordinazioa eta integrazioa barruti kopuru mugatu batean, zeinek gainditu egiten baitituzte EBaren Estaturikideen mugak, hala nola elikadura-segurtasuna, osasuna, garapen jasangarria, hornitze energetikoaren segurtasuna, etab.

Baterako programatze alorrak JPIko Goi Mailako Taldeak identifikatzen ditu frantsesezko siglak, GPC, Groupe de Programmation Conjointe) zeinen osatura Estatu Kideen eta Batzordearen aldetik izendatua baita, alderdi interesatuei kontsulta zorrotz bat egin eta gero.

JPI (Baterako Programatzea) erronka sozioekonomiko eta ingurumeneko nagusien ikuspen erkide bat zehaztea da, ikerketa-programa estrategikoak eta ikuspegiak landu eta abian jartzeko xedearekin. JPIek Estatu Kideei erronka erkide horiei erantzuteko aukera eskaintzen diete, ikerketa-programen gama handitzea Europa osoan eta baliabideak xahutzea bikaintasuna bultzatuz. Halaber, Europako herrialde desberdinetan dauden ezagutzak partekatuz ere bultzatzen du garapena, eta kudeaketa-gastuak gutxituz programen ikusgaitasun handiagoari esker.

Praktikan, baliabideak guztien eskura jartzea, tresna egokiak hautatzea, ezarpena, jarraipena eta aurrerapen erkideen ebaluazioa esan nahi du horrek. Estatu Kideen partaidetza ekimenean erabat borondatezkoa da.

Ekimen bakoitzean —ikus (6.3.1)— herrialde partaideak honela hasten dira:

- Barrutiaren ikuspen partekatu bat garatuz.
- Ikerketa Estrategikoko Agenda bat zehaztuz (ingelesezko siglak, SRA, Strategic Research Agenda) eta helburu espezifikokoak, neurgarriak, garrantzitsuak eta denbora-epe bati lotuak finkatuz.
- SRA inplementatzeko prestakuntza aukerak aztertuz, espero den eragina balioetsiz eta helburu horiek lortzeko tresna egokienak zehaztuz.

2009ko abenduan, batzordeak abian jarri zuen pilotu moduan JPI bat gaixotasun neurodegeneratiboen barrutian, bereziki Alzheimer-enean. Esperientzia horretatik, 2010eko apirilean Gomendio batzuk finkatu zituen JPI berriak jaurtitzeko honako barrutiotan:

- Nekazaritza, elikadura-segurtasuna eta klima-aldaketa.
- Osasuna, elikadura eta dietarekin zerikusia daten gaixotasunen prebentzioa.
- Kultura-heredentzia, klima-aldaketa eta segurtasuna.


2010eko maiatzean beste sei gai berri identifikatu ziren:

- Erronka mikrobiarra: mehatxu hasiberria giza osasunerako.
- Klima-ezagutzen konexioa Europarako (Clik'EU).
- Bizitza hobeta luzeagoa: aldaketa demografikoaren aukerak eta erronkak.
- Europar hiritarra: mundu-mailako erronkak, toki-mailako soluzioak.
- Uraren erronkak mundu aldakor batean.
- Itsaso eta ozeano osasuntsu eta emankorrek.

Batzordeak aipatutako JPIei laguntzeko erabiliko dituen lanabesak honako hauek izango dira:

- Laguntze-ekintzak finantzatzea.
- Neurri osagarri posibleak abiaraztea herrialde partaideek burutuak eta JPIaren SRAn identifikatuak.
- JPIen konexioa nazioarteko ekintzei eta erakundeei, non Batzordeak EBa ordezkatzen duen.
- JPIen aurrerapenaren informazioa Kontseiluari eta Legebiltzarrari.

G.3.1 JPIen Zikloaren Faseak



Framework Conditions of Joint Programming

- (F) Foresight Activities
- (D) Funding of Cross-border Research by National or Regional Authorities
- (P) Peer Review Procedures
- (I) Protection, Management and Sharing of Intellectual Property Rights
- (O) Optimum Dissemination and Use of Research Findings
- (E) Evaluation of Joint Programmes

Iturria: ESF.

3.2. Lehiakortasun eta Berrikuntza Programa (CIP)

3.2.1. CIPa sortu zuen testuingurua

Lisboako prozesuak, zeinen helburua baitzen *“Europa ezagutzan oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena egitea”*, Europako Batasuneko arreta politiko garrantzitsuenetako bat bezala ezarri zuen lehiakortasuna. Lehiakortasuna gehitzera zuzendutako erkidegoaren ahaleginean parte hartzen duten programa desberdinen artean koherentzia handiagoa lortzeko asmoz, Lisboako Estrategia berrituaren helburuei erantzunez, Europar Batzordeak Berrikuntza eta Lehiakortasunerako Esparru Programa bat (CIP) proposatu zuen.

3.2.2. CIParen ezaugarriak

Berrikuntza eta Lehiakortasunerako Esparru Programa (ingelesezko siglak, CIP, Competitiveness and Innovation Framework Programme), funtsean enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzendua da, berrikuntza-jarduerak bultzatuz, finantzaziorako sarbidea erraztuz eta enpresei laguntza-zerbitzuak eskainiz.

CIP Programak informazio eta komunikazioaren teknologien jasotze-eta erabiltze-sistema hobe bat indartzen du eta informazioaren gizarteari garatzen laguntzen dio. Gainera, energia berriztagarrien eta efizientzia energetikoaren gero eta erabilera handiagoa sustatzen du.

CIP Programak, Esparru Programak (FP7) eta Kohesio Funtsek (2007-2013) iraupen bera dute, 3.621 M€-ko aurrekontua du eta lau helburu, ETEei kontu berezia egiten diena.

CIPa hiru azpiprogramaz osaturik dago hiru jarduera-barruti desberdinetarako. Azpiprograma bakoitzak bere helburu espezifikoak ditu, enpresen lehiakortasuna eta haien berrikuntza-gaitasuna sustatzera bideratuak bakoitzari dagozkion alorretan:

- Enpresa-ekimena eta berrikuntzarako Programa (ingelesezko siglak, EIP, Entrepreneurship and Innovation Programme).
- Informazio eta komunikazioko teknologien politikari laguntzeko programa (ingelesezko siglak, ICT-PSP, ICT Policy Support Programme).
- Programa “Energia Adimenduna-Europa” (ingelesezko siglak, IEE, Intelligent Energy Europe Programme).

3.2.2.1. Enpresa-ekimena eta berrikuntzarako Programa (EIP)

EIPek enpresa-ekimena, industria-lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzera zuzendutako ekintzak biltzen ditu. Programa ETEei espreski zuzendurik dago eta honako hauetan zentratzen da:

- ETEen finantzaziorako eta inbertsioetarako beren hasierako eta hazkuntzako fasean sarbidea erraztea, eta garapen teknologikoko inbertsioak bultzatzea, berrikuntzan eta eko-berrikuntzan, transferentzia teknologikoan eta enpresa-jardueraren (mugaz gaindiko) hedapenean.
- Enpresa-zerbitzuak eskaini Enterprise Europe Network sarearen bitartez (EEN) (ikus 3. Eranskina).
- Euskarria eskaini berrikuntza-politikak hobetzeko, enpresa berritzaileko sareak sortzeari lagunduz, bai eta aktore desberdinak berrikuntza-prozesuan, ebaluazio konparatiboak (benchmarking) eta jarduera onen trukea burutzeko.
- Ezarpen komertzialeko proiektu pilotuei lagundu teknika edo produktu berritzaileak merkatuan sartu eta haien ustiapen ekonomiko efektiboak egiteko asmoarekin, zeinak baitaude ingurumeneko eragina murriztera, kutsadura prebenitzera edo baliabide naturalen erabilera eraginkorrago bat bermatzera bideratuak, eta zeinen frogapen teknikoa arrakastarekin dagoeneko egina baita, nahiz eta oraindik era esanguratsuan merkaturatu gabe badaude ere.
- Estrategia politikoak lantzea lagundu berrikuntza eta ETEen eremuan deialdien eta diru-laguntzen bitartez.

3.2.2.2. Informazioa eta komunikazioaren teknologia-politika laguntzeko programa (ICT-PSP)

ICT-PSPk komunikazioa eta informazioaren teknologiak (IKT) erantsi eta ustiatzeko helburua du. Programa honek ekintza pilotuak finantzatzen ditu nagusiki, erakunde publiko eta pribatuak inplikatzeko dituztenak, KT berritzaile eta elkarrekiko operagarrietan oinarritutako zerbitzuak baldintza errealetan baliozkotzeko helburuarekin. ICT-PSPk lagundu egiten die sareko ekintzei helburua esperientziak partekatzea eta ICTetan oinarritutako soluzio berritzaileen erabilera prestatzea baldin bada, bai eta informazioaren gizartearen jarraipena azterlan konparatiboan, analisisien eta sentsibilizazio-ekintzen bitartez.

3.2.2.3. “Energia Adimenduna-Europa” programa (IEE)

EEren helburua da EBean finkatu diren helburu anbiziotsuak lortzen laguntzea energia-gaia klima-aldaketaren esparruan. Horretarako, IEE programak proiektu zehatzei, ekimenei eta jarduera onei laguntzen die proposamen-deialdien bitartez.

3.2.3. Kontsulta publikoa CIPen ondorengo izan litekeenaz

Europar Batzordeak 2010aren azkenetan kontsulta publiko bat hedatu zuen CIPen ondorengo izango den programak bildu behar dituen oinarriko ideiak finkatzeko (eragin-ebaluazioa eta gogoeta zabalago baten parte zen kontsulta Europako Batasunaren hurrengo esparru finantzario urte askokoari buruz). 2011ko otsailera arte irekita da goen kontsulta honek alderdi interesatuen iritziak jaso zituen hurrengo lehiakortasun-programak finkatu beharreko lehentasunei buruz. Inkesta CIPen onuradunak diren enpresei zuzendu zitzairen, berrikuntzari laguntzen dioten erakundeei, administrazio nazionaleri, erregionalei eta tokikoei, bai eta finantza-erakundeei ere.

Europar Batzordeak, kontsulta publikoko oinarriko dokumentuak baieztatzen duenez, CIPen ondorengoak gaitasuna izan behar du lehiakortasunaren gastua nabarmentzeko, zeren eta ikerketa-fasearen ondoren lehiakortasunean egindako gastua garrantzitsua baita “Europa 2020” estrategia egikaritzeko.

Inkesta prozedura egokienak esploratzen ziren erronka nagusiei aurre egiteko:

- Enpresentzako laguntza nola hobetu (ETEentzako batez ere) EBe-ko programen bitartez.
- Nola bultzatu lehiakortasuna eta berrikuntza garapen-ahalmen handiko sektoreetan.
- Nola estimulatu IKTetan oinarrituriko zerbitzu berritzaileak gehiago eranstea eta eduki digitalak aprobeztatzea Europan.
- Nola sustatu energia-efizientzia eta energia berriztagarriak erabiltzea.


Kontsulta publikoaz gainera, Batzordeak programaturik dauzka jendaurreko konferentzia bat, alderdi interesatuekiko bilkurak eta ebaluazio bat baino gehiago. Batzordearen zerbitzuek lortutako emaitzak jakinaraziko dituzte eraginaren ebaluazio-txosten batean.

3.3. Berrikuntza eta Teknologiako Europar Institutua (EIT)

Berrikuntza eta Teknologiako Europar Institutua (ingelesezko siglak, EIT, European Institute of Innovation and Technology) 2008ko martxoan hasi zen funtzionatzen. EITen helburu nagusia hazkunde ekonomiko jasangarriari eta Europako lehiakortasunari laguntzea da Estatu Kideen eta EBaren berrikuntza-gaitasuna indartuz.

Halaber, sustatzea espero du ezagutzaren triangeluaren hiru atalak integratzea: goi-hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza, maila gorenean —Ikus (6.3.2). EITek erraztu egin nahi ditu eta bultzatu sareak sortzea, lankidetzak eta europar berrikuntzako erkidegoen arteko sinergiak ezartzea.

6.3.2 Ezagutzaren triangelua



Iturria: http://eit.europa.eu/fileadmin/Content/Downloads/PDF/Background_Information/eit_brochure_en.pdf

EITen ekintza garrantzitsuenen artean hauek nabarmendu daitezke:

- Europar kultura ekintzaile bat sustatzeko aldeko ingurune bat sortzera bideratutako lana. Bere planteamendu komertziala eta heziketa-osagaiaren bitartez, EITk lagundu egiten du ekintzaile-belaunaldi bat prestatzen ideiak aukera bihurtzeko beharrezko gaitasunak eta ezagutzak dituen.
- EITn parte hartuko daten goi-hezkuntzako erakundeek Masterrak eta doktorego-graduak eskaini beharko dituzte "EIT" zigilua dutenak kalitate handiaren eta izaera berritzailearen isla bezala.
- Aukera eman enpresei ikerketa-aurkikuntza garrantzitsuenak eta arestikoenak merkaturatzeko aukera.

Sortu zenetik, EIT pixkanakako ezartze-prozesu bat jarraitzen ari da, eta horretarako Europako Batasunaren 308,7 M€-ko laguntza du 2013 arte; 2010eko apiriletik, EITn bulego zentralak Budapestean, Hungarian, kokatuak daude.

Oraingoz, EITk hiru Ezagutza eta Berrikuntza Erkidego (ingelesezko siglak KIC, Knowledge and Innovation Communities) sortu ditu eta oraindik gehiago sortu nahi dira Berrikuntzako Agenda Estrategikoa (ingelesezko siglak, SIA, Strategic Innovation Agenda) hartu ondoren, EITrentzat geroko ekimenen lehentasunak bera baitan izango dituenak. Jarduera-lerro honetan, EITk prestatuak eduki beharko luke SIA 2011aren erdi aldera eta 7 urtez behin berritu. Parlamentua eta Kontseilua erakunde egokiak dira agenda hori (SIA) hartzeko, Batzordeak proposaturik.

SIAren elementu nagusiak hauek dira:

- Aurreikusitako goi-heziketa, ikerketa eta berrikuntzako jardueren berrikuste bat.
- Haren eragin sozioekonomikoaren eta berrikuntzako balio erantsi hobereana sortzeko gaitasunaren ebaluazioa.
- Beharren eta finantza-iturrien kalkulua bat EITen garapena eta finantzazioa epe luzera ikusita.
- Finantza-plan adierazgarri bat finantza-esparruaren aldia estaliko duena.

"Europa 2020" Batzordearen Adierazpenak behartu egiten du EIT SIA aurkeztera jarduerak hedatzera Europaren berrikuntzaren erakusgarri. SIAk EITen epe luzeko garapena finkatu beharko luke "Berrikuntzaren aldeko Batasuna"ren barruan, KIC berriak sortzea, sektore pribatuarekin harreman estuago bat lortzea, eta paper handiago bat ekintzailetzan barne direla.

3.3.1. Ezagutza eta Berrikuntza Erkidegoa (KIC)

Ezagutza eta Berrikuntza Erkidegoak (KIC) goi-heziketa, ikerketa-antolara, enpresa eta berrikuntza-prozesuko beste partaide batzuen erakundeetako elkarte autonomoak dira (ikerketa finantzatzeko agentziak, erregio- eta nazio-gobernuak, etab.) KICak sare berritzaile bezala eratzen dira eta berrikuntzaren baterako plangintza bilatzen dute epe ertain eta luzera EITen erronkak betetzeko asmoarekin. KICak EITen atal operazionalak dira berrikuntza sustatzeko Europar lehiakortasuna gehitzeko eta gizarte-erronkei aurre egiteko.

KICek funtsezko autonomia bat dute beren lege-estatusa, barne-antolara eta lan-metodoak zehazteko. Kide berrietara irekita daude, balio erantsiaren ekarpena eginez gero elkarteari. KIC bat eratzeke gutxienez baldintza gutxienez hiru kidek parte hartzea da (elkarrekiko independente direnak), gutxienez hiru Estatu Kide desberdinetan kokatuak eta gutxienez goi-heziketako erakunde bat eta enpresa pribatu bat izan behar ditu bere baitan. KICetan Europako Batasuneko kideak ez diren herrialdeetako erakundeek parte hartu ahal izan beharko dute.

KICek honako hauen bidez beteko dituzte beren helburuak:

- Kurrikuluen eta ikaskuntza- eta irakaskuntza-metodoen hobekuntzak goi-heziketan, lanbide-eskaerarekiko kontsistentek diren ezagutzak, garapen pertsonala eta ikerketa- eta ekintzailetza-gaitasunak ikasleei emanez.
- Heziketa ekintzailea goi-mailako pertsona ekintzaileentzat, negozio berriak sustatzeko gaitasuna, kultura eta gobernantza ekintzailea garatuko dituztenak.
- Ekintzailetza ustiatzea negozio berriak sortzeko.

2009an lehen deialdi bat egin zen eta bertan hautatu ziren gaur egun dauden lehen hiru KICak —Ikus (G.3.3):

- **Climate-KIC** (klima-aldaketa): <http://www.climate-kic.org/>
- **EIT ICT Labs** (geroko komunikazioaren informazioaren teknologiak): <http://eit.ictlabs.eu/>
- **KIC** (InnoEnergy: energia jasagarria): <http://www.kic-innoenergy.com/> (Tecnalia partaidea).

3.4. Berrikuntzako Europar Partenergoak (EIP)


Berrikuntzako Europar Partenergoak (ingelesezko siglak EIP, European Innovation Partnerships) "Berrikuntzaren aldeko Batasunaren" atala den kontzeptu berri bat da gizartearen erronka handiei aurre egiteko hala nola zahartzeari edo klima-aldaketari, berrikuntzaren hedapen arrakastatsuen bitartez.

EIPk erronka berriak bultzatzeko pentsaturik daude, onura sozialetan eta sektore asoziatu eta merkatuen modernizazio laster batean zentratuz. Horretarako ikerketa eta berrikuntzaren kate osoan jardun beharko dute eta dauden tresnak eta ekimenak arrazionalizatzen, sinpletzen eta koordinatzen saiatuko dira eta behar izanez gero jarduerak ekintza berriz osatzen.

Bada EIP bat Pilotu bat "Zahartze aktibo eta osasungarria" barrutian. EIP horrek berrikuntza hori ezartzen zentratuko da, gaur egunekoa baino eskala zabalagoan, osasuna sustatzea, prebentzioa, diagnosia eta tratamendu goiztiarra, gizarte- eta osasun-zerbitzuak integratuak eta lankidetzakoak, bizitza autonomoa eta hirugarren adinari laguntzeko teknologiak; lortzeko planteatu diren helburuak honako hauek dira:

- 2 urtetan gehitu batez besteko bizitza baliagarri osasuntsua EBean 2020rako.
- Hirugarren adinekoen bizi-kalitatea hobetu eta artapen-soluzio eraginkorragoak lortu.

G.3.3 EITen eta KICen eskema





PORTFASTFLU Proiektua "Portable automated test for fast detection and surveillance of influenza". Partaideak: Biodonostia, Gaiker-IK4 eta Ikerlan-IK4. FP7k eta MICINnek kofinantzatutako proiektua.

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011

4

**EUSKAL
PARTAIDETZA**
I+G+b-KO
7. EUROPAR
ESPARRU
PROGRAMAN:
(LEHEN ALDIA:
2007-2010)

4.1. Sarrera	42
4.2. FP7aren emaitzak maila europarrean	42
4.3. Espainiar partaidetza FP7an	43
4.4. Euskal partaidetza I+G+b europar programetan	45
4.4.1. Emaidza globalak	45
4.4.2. Euskal Partaidetzaren bilakaeraren analisia FP7an	45
4.4.2.1. Jarduera Klasikoak eta Jarduera Berriak	46
4.4.2.2. Gaikako analisia/azpiprogramak	48
4.4.2.2.1. Lankidetzeta Programa	48
Osasuna	49
Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia (KBBE)	50
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT)	51
Nanozientziak, Nanoteknologia, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak (NMP)	52
Energia	54
Ingurumena (Klima Aldaketa barne)	55
Garraioa (Aeronautika barne)	56
Beste Gai batzuk: Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak	59
4.4.2.2.2. ETEen Onurarako Ikerketa	61
4.4.2.2.3. Ideiak Programa	62
4.4.2.2.4. Pertsonak Programa	64
4.4.2.2.5. Gaitasunak Programa (ETEen Onurarako Ikerketa izan ezik) ...	65
4.4.2.3. Euskal Eragileen analisia tipoka	66
4.4.2.4. Ondorioak	68

4.1. Sarrera

I+G+b-aren nazioartekotzean aurrera egiteko gure Zientzia eta Teknologia Eragileen eta Industriaren kokamendu-mailaren diagnosi fidela behar da nazioarteko agertokian. Diagnosi hori burutzeko moduetako bat Euskal Eragileak I+G+b europar proiektuetan identifikatzea da. Helburu horretarako, sortu zen 2005ean **“Euskal Partaide-tzaren Behatokia I+G+b-ko Europar Proiektuetan”** (horri buruzko aipamena egingo da Koaderno honetan Behatoki gisa), bere egunean Eurobulegoak kudeatzen zuena eta gaur egun Innobasquek.

Behatokiak (<http://observatorio.innobasque.com>) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Eragileen partaidetzarekin proiektuak erregistratzen ditu, Europar Batzordeko (EE) I+G+b programa nagusiek finantzatuak, eta lehentasunez VII. Europar I+G Esparru Programan (FP7).

Datu-base bat da Eragileko sarrera pribatu bat duena (bottom-up baliozkotzea), zeinek iraultzen baititu bere partaidetza-datuak proiektua EErekin negoziatze-fasean ofizialki sartzen denean. Innobasquek, Administrazioaile bezala, kontrastatu egiten ditu datuak eskuarki CDTiak emandako EEaren informazio ofizialarekin (top-down baliozkotzea).

Gure Eragileek eskuratutako datuen xehetasunak Europan haien partaidetza aise identifikatzea ahalbidetzen du, I+G+b europar programetan Euskadiren partaidetza-egoeraren analisia errazten du, eta emaitzak kontrastatzeko aukera ematen du Koaderno Estrategiko honetan markatutako erronkekin.

4. Kapitulu honen helburua FP7an lehen partaidetza-emaitzak aurkeztea da 2007-2010 aldian maila europar, espainiar eta euskaldunean.

4.2. FP7ren emaitzak maila europarrean

Europar Batzordeak argitaratutako FP7aren azken monitorizatzetxostenaren arabera¹, orain arte maila europarreko estatistika globalak miresgarriak dira. Lehen hiru urteetan, 2007-2009, 170 deialdi egin dira eta haiei 55.379 proiektu-proposamen aurkeztu zaizkie. Proposamen horietatik, 41.474k gainditu zituzten hautesgarritasun-irizpide formalak zegozkien deialdietan eta %21,8 (9.121) izan ziren atxikiak EEaren negoziatze-prozesua hasteko, eta horrek eskuarki finantzatuak izango direla esan nahi du. Partaideen batezbestekoa, bai proiektu ebaluatutan eta bai negoziatze-egoerako proiektutan,

(1) *European Commission (2010): Third FP7 Monitoring Report (Monitoring Report 2009)*. Brussels 13.07.2010.

5,6koa da. 13.300 partaidetza inguru negoziatze-proposamenetan irabazi-asmoko erakunde pribatuak izan ziren (%32,7).

Arrakasta-tasak² hazi egin dira zertxobait 2007 eta 2009 bitartean, bosten baten gainetik zehazki ia laurden baten azpitik jartzearaino, baina joera gehituz doa %25era eskaerek jaitziera txiki bat izan dutelako nagusiki. Arrakasta-tasak nabarmen aldatzen dira programa batetik bestera. Altuena Pertsonak programan kokatzen da (%32,2ko batezbestekoa), ondoren datozela Gaitasunak programa (%18), Lankidetzak (%16) eta baxuena Ideiatan (%13).

Batzordearen datuen arabera, lehen hiru urteetan ETEek Finantzaio Akordioak sinatu dituzten partaide guztien %14,5 hartzen dute eta EEari eskatutako proiektu-aurrekontuaren %11 eratzen dute (1,8 bilioi euro) proiektuetako aurrekontutik eta %11,3 (1,3 bilioi euro) EEari eskatutako ekarpenetik. ETEen partaidetzaren ia bi heren (%63,6) Lankidetzak programan burutzen da eta %27,4 Gaitasunak programan, baina ia ez dago ETE bakar bat Ideiak programan parte hartzen duenik (903tik 3). ETEen partaidetza Pertsonak programan, oro har, baxua da, nahiz eta nabarmen aldatzen den Marie Curie ekintza desberdinen artean.

Estatu Kide guztiak parte hartzen dute FP7an intentsitate desberdinekin. Eskaera-kopuruaren terminotan zerrendaburuak Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia eta Espainia dira. Itzulkin-terminotan Espainia seigarren postuan dago Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia eta Holandaren ondoren. Herrialde-hautagaien eta herrialde asoziatuen partaidetza oso heterogeneoa da, Suitza, Norvegia eta Israel direlarik zerrendaburu.

Nabarmendu behar da ikerketan gehitutako inbertsio publikoa antzekoa dela Atlantikoaren bi aldeetan. 2008an, I+G aurrekontu-kreditu publikoak (GBAORD)³ EBean 89,8 bilioitara iritsi zirela, EEBBetako 96,8 bilioi eurotik zertxobait beherago dagoen zifra. Hala ere, Esparru Programetako gastua gehitzen bazaio (FP7 osoa eta FP6ren azken urratsak), 6,4 bilioi eurokoa, EBaren 96,2 bilioiko aurrekontua nahikoa hurbiltzen zaio EEBBenari.

Beste datu esanguratsu bat hau da: nahiz eta Esparru Programek ikerketa publikoan egindako ahaleginaren %6,7 adierazi (azken urteotan aurrekontuan egindako gehitzeak gehiago hurbiltzen du %10era), FP7ren urteko aurrekontuak gainditu egiten du Estatu Kide guztien urteko ikerketa-gastua bost handienena izan ezik. Gainera, FP7ren iraupen-aldaketa aukera eman du Esparru Programak Urteas-

(2) Arrakasta-tasa: EEarekin negoziatze-fasea lortzen duten proiektuen ehunekoa, dagokien deialdi aurkeztutako eta hautesgarritzat hartzen diren proposamenen kopuruarekiko.

(3) I+G-aren aurrekontu-kreditu publikoari buruzko Estatistika, GBAORD (Government budget and appropriations or outlays for R&D) bezala ezagutua, Administrazio Publikoek —zentralak eta autonomikoek— I+G jardueretara bideratzen dituzten finantza-baliabideak determinatzeko xedea du, datuak bi urratsetan identifikatuz: aurrekontu-ekitaldiaren hasieran Parlamentuek onartutako aurrekontuak (hasiera-kredituak) eta behin betiko kredituak, aurrekontu-ekitaldiaren berriki eta onartuak (azken kredituak). Iturria: Micinn.

G.4.1 Espainiar itzulkina FP7an Alor/Programaka (aurrekontu guztikoaren araberako tamaina 2007-2013)



koko Esparru Finantzarioaren iraupenarekin lerrokatzeko (Multi-annual Financial Framework, MFF), eta horrek ikerketa era askoz esplizituagoan kokatzea ahalbidetu du EBeko jardueraren erdigunean. Hartara, bestalde, planteamendu estrategikoago bat errazten da iraupen handiago batez hornitzean aurretiazko Esparru Programak, laupabost urteko iraupenez.

Erkidegoko aurrekontuak Egitura Funtzen bidez ere laguntzen dio ikerketari, nahiz eta baliabide horiek gastatzeko desberdintasun nazional eta erregionalengatik, ezinezkoa den finantzazio osagarri horren kalkulu bat egitea. REGIO Zuzendaritza Nagusian eskuratutako datuek iradokitzen dute 50 bat bilioi euro bideratuko direla ikerketari laguntzeko 2007-2013 aldian, FP7koarekin konpara daitezkeen zenbatekoa. Hortik, hartzaile batzuentzat zenbateko gehigarri nabarmen samarra izatea I+G-aren finantzazio nazionalaren parekoa.

4.3. Espainiar partaidetza FP7an

Industriaren Garapen Teknologikorako Zentroak 2011ko irailean argitaratutako azken datuen arabera (CDTI)⁴, espainiar erakundeek 1.325,7 M€-ko⁵ itzulkina lortu dute FP7an. Itzulkin-zifra hori EB-27ren %6,5-i legokioke 2007an, %7 2008an, %8,2 2009an eta %8,3 2010ean. Gaur arte 1.393 espainiar erakunde parte hartzen dute 2.877 finantza-jardueratan, eta haietatik 806 enpresak dira (%76,2 ETEak). Enpresek, %31ko itzulkinarekin, lortu dituzte emaitzik hobeenak, ondoren datozelarik Unibertsitateak (%21,9) eta Berrikuntza eta Teknologiako Zentroak (%10,5).

Gaien lehentasunari dagokionez, itzulkin handienak balio absolututan IKTen lortzen dira (263,3 M€), Pertsonak (157 M€), NMP (145,3 M€), Ideiak (131,6 M€), Osasuna (115,9 M€) eta Energia (104 M€). (G.4.1) grafikoak termino erlatibotan islatzen du espainiar itzulkina FP7ko Gai/Programaka eta erkatu egiten ditu emaitzak EEak Gai/Programa (2007-2013) bakoitzari esleitzen dion aurrekontu osoarekin eta halaber, espainiar ehuneko adierazten du (koordinatuen ardatza) itzulkingean EB-27arekiko.

Hala, Gaiak/azpi-programak *Ezagutza-eremu, ETEen Onurarako Ikerketa eta Energia* bezala EB-27ko itzulkin guztikoaren %12 baino gehiago dela erakusten du.

IKT da itzulkin handieneko Gaia maila espainiarrean eta zifra horrek irudikatzen du maila espainiarrean ehuneko handieneko Gaia ere EEak esleitutako aurrekontu osoarekiko, baina, hala ere, EB-27ri esleitutako itzulkin osoaren %8aren inguruan kokatzen du. Gauza bera

(4) VII. Esparru Programaren Txosten Globala. Espainiar partaidetza behin-behineko emaitzak. Emaitzen Eguneratzea. 2011ko Iraila.

(5) Gainera, 10 erakunde espainiarrek 980 M€ (%22,8) lortu bide dituzte BEren kreditutara FP7ak finantzatutako RSFFren bitartez.

gertatzen da Ideiak programarekin, izan ere ehuneko batean kokatzen da EEK esleitutako aurrekontu guztizkoan eta ICTren antzeko EB-27rekiko ehunekoan.

Bestalde, Osasuna eta Garraioa dira bosgarren eta zazpigarren Gaia itzulkinetan, hurrenez hurren, estatu-mailan eta, hala ere EB-27ren itzulkinaren %6 besterik ez da.

Nabarmenezkoa da ETE azpi-programak, nahiz eta ez izan itzulkin handieneko programa estatu-mailan, EB-27ri esleitutako itzulkin osoaren ia %14 adierazten duela. Gauza bera gertatzen da Ezagutza Erregioaren azpi-programarekin, FP7an aurrekontu baxua duenarekin eta zeinean Espainiak emaitza apartak lortu baititu, EB-27k lortutako itzulkin guztizkoaren %15 adieraziz.


Azkenik, NMP eta Energiak hirugarren eta seigarren lekuan estatu-mailako itzulkinetan, hurrenez hurren, EB-27ri esleitutako itzulkin osoaren %10 eta %13 adierazten dituzte.

Euskadik FP7ko partaidetza autonomikoaren rankingean hirugarren kokagunean jarraitzen du. Autonomia Erkidegoen arabera, Madril (%31), Katalunia (%28,9) eta Euskadi (%13,3) gailentzen dira beren partaidetza-mailarengatik, eta hiruren artean espainiar partaidetzen %73 baino gehiago ordezkatzeko dute (G.4.2).


Erakunde nabarmenduenei dagokionez, 2010 maiatzeko datuen arabera, Tecnalia eta IK-4 zeuden bigarren eta laugarren lekuan, hurrenez hurren, itzulkinetan, lehen postua CSICi zegokiola eta hirugarrena Carlos III. Osasun-institutuari. Enpresen rankingari dagokionez, Iberdrola agertzen zen itzulkin handieneko seigarren lekuan. Azkenik, ez zen ageri euskal unibertsitatearik FP7an itzulkin handieneko 10 espainiar Unibertsitateen artean.

G.4.2 Autonomia Erkidegoen emaitzak FP6an eta FP7an

Partaidetza FP6 2003-2006




Partaidetza FP7 2007-2009



Fuente: CDTI.

G.4.3 Emaita eta helburuen erkaketa FP7an



4.4. Euskal partaidetza I+G+b europar programetan

4.4.1. Emaita globalak

2011ko lehen hiruhilekoan Innobasquek sendotu egin ditu Behatokiaren bitartez Euskal Eragileen partaidetza-datuak honako Europar Programetan:

- VII Europar I+G Esparru Programa (FP7).
- Lehiakortasun eta Berrikuntzako Esparru Programa (CIP).
- Ikerketa Funtsa Ikatzean eta Altzairuan (RFCS).
- “Ambient Assisted Living” Baterako Programa (AAL).
- Ikerketa-programa Osasunean Osasuna eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiarena (DG SANCO).

Behatokiaren arabera, 2007tik 2010era Euskal Eragileek lortutako itzulkin globala **198,80 Milioi eurokoa** izan da, zifra horren 96% **FP7an** lortutako itzulkinari dagokio (**190,74 M€**); 5,03 M€ CIPari; 2,31 M€ RFCSi, 0,14 M€ AALi eta 0,58 M€ DG SANCOri.

Itzulkin hau guztira euskal erakundeen 661 partaidetzari dagokie produktu finantzatueta: **606 partaidetza FP7an**, 34 partaidetza CIPen, 12 partaidetza RFCSen, 2 AALen eta 7 partaidetza DG SANCOen.

195,77 Milioi euroko itzulkin-emaitezkin FP7rako eta CIPerako, Euskadik Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuak nabarmen gainditzea lortzen du (180 M€) 2007-2010 aldirako.

4.4.2. FP7ko euskal partaidetzaren bilakaeraren analisia

Sail honetan analisi zehaztua aurkezten da, gaika eta erakundeka, Euskadiren partaidetzaren emaitzena FP7an 2007-2010 aldirian zehar.

Euskal partaidetza FP7ren lehen aldirian hobetu egin da aurreko esparru Programarekiko. FP6rekin erkaketa bat eginez gero FP7ren lehen aldiriarekin, biak iraupen berekoak (4 urte) eta antzeko aurrekontuak izaki (18.000 M€ gutxi gorabehera), **itzulkinaren gehitze garrantzitsua** ikusten dugu **131 M€**-tik **190,74 M€**-ra. Partaidetzen-kopurua ia mantendu egiten da (FP6an 632 partaidetzatatik 606ra FP7an).

Gainera azpimarratu behar da FP7 eta CIPeko helburua 2006an Koaderno Estrategikoan planteatua 2007-2010erako gainditu egin dela itzulkin-terminotan. Aldi horretarako itzulkin globala 195,77 M€-koa izan da, eta horrek **%8,8ko** hazkuntza esan nahi du 180 M€ko helburuarekiko. FP7aren lehen aldirian honetako emaitzek **%49,4ko** hazkuntza adierazten dute FP6an zehar lortutako emaitzekiko (**G.4.3**).

Euskadiko jardueraren plangintza kuantitatiboa FP7an, itzulkinak lortzean, proiektutako partaideen kopuruan, lidergoetan oinarriturik egoteaz eta bi aldirian (2007-2010 eta 2011-2013) desberdintzeaz gainera, Euskadirentzat garrantzi handienekoak diren sektore/Alor tek-

nologikoen partaidetza-tradizioaren arabera egituratu zen (Jarduera Klasikoak eta Jarduera Berriak sailkapena), FP7ko gaien arabera finkatu zituen helburuak (Gai/azpi-programakako sailkapena), eta desberdintze bat egin zuen Eragile-tipoaren arabera (sailkapen Sektorial/Teknologikoa). Ondorengo sailek analisi zehaztua aurkezten dute sailkapen horien funtziotan.

4.4.2.1. Jarduera Klasikoak eta Jarduera Berriak

Koaderno Estrategikoko Partaidetzaren plangintza globalak FP7an eta CIPen bi motatan desberdintzen du euskal jarduera:

- **Jarduera Klasikoak:** Esparru Programetako alorrak, zeinetan tradizioz parte hartzen baitu Euskadik, esaterako Lankidetzeta programan eta ETEen Onurarako Ikerketa azpi-programan.
- **Jarduera Berriak:** alor berriak FP7ko Ideiak programa bezalakoak eta orain arte Euskadik partaidetza urria izan duen programak, esaterako CIP, Pertsonak edo Gaitasunak programaren azpi-programa batzuk.

Tradizioz Esparru Programetan Euskadik izan duen partaidetza gehienbat lankidetzako proiektuak garatzera zuzendurik egon da Gai Alorretan zehazturiko barruti zientifiko eta teknologikoetan. Hala, euskal erakundeek partaidetzen %86 FP6an lankidetzeta-proiektuetan izan ziren Gai Alorretan eta *ETEentzako Ikerketa Horizontaleko proiektuetan* (Jarduera Klasikoak). Horietaz bestelako alorretan FP6ak eskaintzen zituen aukerak ez zirela behar bezala aprobetxatu esan daiteke (Euskadik Alor horietan lortutako itzulkina EEak haiei bideratutako aurrekontuaren %0,32koa da). Aukera horietako batzuk, *Marie Curie Programa* ikertzaileen mugikortasunerako merezi zezaketen Zientzia eta Teknologia Euskal Eragileak tartean sartze berezi bat.


Horregatik guztiarengatik, FP7an planteatutako Euskadiren jardueraren helburu globala, Jarduera Klasikoetarako hazten jarraitzea izan zen proiektu-partaidetzan, Euskadin gorantz datozen alor estrategikoetako partaidetza sendotzea bereziki azpimarratuz, esaterako Osasunean eta Jarduera Berrietarako hazkuntza handi bat lortzea Alor guztietan.

Ildo horretatik, nahiz eta 2007-2010 aldian lortutako emaitza globalak zabalkiro gainditzen dituzten planteatutako helburuak, ez dute hori hainbeste egiten Jarduera Klasikoak deituetan, nahiz eta Jarduera Berriek hazkuntza bortitza ageri duten partaidetzan (**G.4.4**).

Ondorengo sailak zehazten duenez, Jarduera Klasikoek lortutako itzulkina FP7ko Lankidetzeta programako hamar Gaietako gehienetan Euskal Eragileen partaidetza bikainarengatik izan da, nahiz eta ETEen Onurarako Ikerketa azpi-programako emaitzek ez lortu aurreikusitako helburua.

Hazkuntzarik ikusgarriena Jarduera Berrien barruko programa batzuek erakutsi dute, adibidez partaidetza oso baxua edo ia hauteman-

G.4.4 FP6 eta FP7 emaitzak Jarduera motaren araberako plangintzaren aurrean



ezina zuten batzuek, Pertsonak programak esaterako (2007-2010ean planteatutako helburua halako hiru aldiz eta gehiago itzuli du), Ezagutzaren Erregioak eta Ikerketaren Azpiegiturak programek. Gainera, Euskal Eragileen partaidetza oso ona hauteman da sortze berriko programetan FP7an, hala nola Ideiak, zeinaren emaitzek bikoiztu egiten baitituzte helburuak.

Koaderno Estrategikoak partaidetzaren hazkuntza planteatzen zuen bi Jarduera mota hauetan Aktore motaren funtzioaren arabera.

Hala, Jarduera Klasikoetarako helburu estrategikoak aurreko esparru Programan galdutako partaidetza-kuota enpresek berreskuratzea planteatzen zuen. Bestalde, ZTBESko Eragileek jarraitu beharreko estrategiak enpresen partaidetzan Teknologia Zentroen paper traktorea sendotzen oinarrituta egon behar zuen, eta oraindik europar I+G+b-an parte hartzen ez duten Zientzia eta Teknologiako Eragile berriak berenganatzen. Azkenik, FP7ari begira planteatzen zen erronka garrantzitsu bat euskal Unibertsitateen jardueraren gehitze esanguratsu bat lortzea zen proiektuetan.

Ilido horretatik emaitzek Teknologia Zentroen jardute ona erakusten dute, zeinen Jarduera Klasikoetako partaidetza (90,81 M€) gehitu egin baita dagoeneko baduen partaidetza bikainarekiko FP6an (70 M€). Enpresak, kuota berreskuratu gabe jarraitzen du (33,73 M€ FP7an 44 M€ FP6an lortu ondoren, eta helburua 56 M€ lortzea zelarik). Azkenik, Teknologia Zentroen eta enpresen lankidetzama⁶ %26,16an kokatzen da FP7an, eta horrek esan nahi du gutxi gorabehera onartutako lau proiektuetatik batean parte hartzen duela Euskal Teknologia Zentro batek eta euskal enpresa batek.

Jarduera Berriei dagokienez, jarduera horietan partaidetza nabarmen haztea zen helburua eta ekintza hori zentralizaturik egotea batez ere Teknologia Zentroek eta euskal Unibertsitateek egin zezaketen papelean interes estrategikoko Programatan, esaterako Ideiak programan oinarritzko ikerketako proiektuak garatzearekin zerikusia duten aukeak edo Europako beste ikerketa-zentroetara ikertzaileak mobilizatzearekin Pertsonak programaren bitartez. Eta hala izan da: Ideiak programan lortutako itzulkinak (9,13 M€) bikoiztu egin du planteatutako helburua (4 M€); aldiz, Pertsonak programan 20,35 M€-ko itzulkina lortu da planteaturik zeuden 6 M€-ren aurrean.

Halaber, CIP berria Koaderno Estrategikoan enpresa eta Teknologia Zentroentzako beste partaidetza-erronka handi bat bezala enpresaberrikuntzarekin zerikusia duten proiektuen, IKTen eta Europarako Energia Adimenduneko Programaren garapenean. Nahiz eta partaidetza oraindik ez den iritsi lehen aldirako proposatutako helburura (9 M€) baikorra izan da (5,03 M€) batez ere IKT gaietako eta Ekin-

(6) ZZIT-enpresa lankidetzaren ehunekoa: finantzatutako proiektuen kopurua, zeinetan parte hartzen baitu Teknologia Zentro batek eta euskal enpresa batek Teknologia Zentroen partaidetza-kopuru guztizkoarekiko.

tzaitletza eta Berrikuntza programa sustatzeko Politikei Laguntzeko programan. Hala eta guztiz ere, CIPEk finantzaturiko proiektuetako partaidetza Zientzia eta Teknologiako Eragileen kontura doa nagusiki, oraindik oso gutxi direlarik proiektu finantzatutan tarteko diren euskal enpresak.

4.4.2.2. Analisia Gai/azpiprogramak

Partaidetzako helburu globalez gainera Euskadin, Koaderno Estrategikoak helburu espezifikoak planteatzen ditu, Gaika eta azpi-programak, FP7an. Emaitzak, itzulkin-terminotan, 2007-2010 lehen aldiaren eta FP6ko emaitzekiko erkaketan eta aldi horretarako Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuekikoan, (G.4.5) grafikoa agertzen dira.

Lankidetza programan 10 Gaietatik 4k gaintu egiten dituzte finantziatutako itzulkin-helburuak: *NMP, Energia, Ingurumena* eta *Espazioa*. *IKT* eta *Garraioak* lortu egin dute proposatutako helburua (hurrenez hurrenez planifikatutako helburuetatik %88 eta %93 itzultzen dute) *KBBE* eta *Segurtasuna* Gaiak planteatutako itzulkinaren %50aren gainetik geratzen dira (%62 eta %57 hurrenez hurrenez). Proposatutako helburuen 50%en azpitik bi Gai geratzen dira: *Zientzia Sozioekonomikoak* eta *Humanitateak* (%36) eta *Osasuna* (%34).

Gaitasun programaren kasuan ETEen Onurarako Ikerketa azpi-programa Koaderno Estrategikoan proposatutako helburuen ia %60 itzultzerira iristen da. *Ikerketa Azpiegiturak* eta *Ezagutzaren Erregioak* azpi-programetan euskal partaidetza ona izateak gaindiaz egiten du *Gaitasun* programarako proposatutako helburua (*ETEen Onurarako Ikerketarako* helburua salbuetsita).


Bereziki esanguratsuak dira **Ideiak** eta **Pertsonak** programetako emaitza baikorrak, zeinek aise gaintzen baitituzte planteatutako helburuak.

Ondoren, zehaztasunez analizatzen da Euskadik izan duen partaidetza FP7ko Programa, Gai eta azpi-programetan.


4.4.2.2.1. Lankidetz Programak

Programa Berariazko honek laguntza ematen die nazioz gaindiko lankidetz maila guztietan, Europako Batasunaren barruan eta hartaz kanpo, ezagutzen eta teknologien aurrerapenaren barruti nagusieki dagozkien gai-eremu batzuetan, zeinetan ikerketa errotzea eta sendotzea komeni baita, Europak aurre egin beharreko erronka sozial, ekonomiko, osasun publikoko, ingurumeneko eta industrialak gaintzeko.

G.4.5 Euskal partaidetzaren bilakaera FP7an Gai/azpiprogramak



G.4.6 Partaidetza Osasun Gaian



>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (Osasuna Gaia)

- Beren proiektuen onarpena lortu duten Euskal Eragile gehienek paper garrantzitsua dute haietan, izan ere ondorio hori ateratzen da erakunde bakoitzari eman zaion finantzazio altutik.
- Lankidetzat dago proiektutan ZTBESeko Eragileen artean, nahiz eta ez den inolako lankidetzarik izan enpresa eta ZTBESen artean.
- Euskal erakundeen lidergoa proiektu-proposamenetan %15en inguruan kokatzen da, eta ehuneko hori gutxitu egiten da finantzaturiko proiektuetan (ZTBESeko 2 erakunde dira lider finantzaturiko proiektuetan)
- FP7az gainera, Euskal Osasun Sistemaren partaidetza nabarmendu behar da Osasuna eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusitik (DG SANCO) finantzaturiko proiektutan, 0,58ko itzulkin globalarekin europar proiektutan.
- Euskal arrakastaren tasa %18,18an kokatzen da Osasunean.

4.4.2.2.1.1. Osasuna

Gai honetako ikerketaren helburu nagusiak, FP7aren azpian, europar hiritarren Osasuna hobetzea eta osasunarekin zerikusia duten industrien eta negozioen lehiakortasuna gehitzea dira. Osasuna Gaia nagusietako bat EEarentzat Lankidetzatza programan eta bigarren handiena aurrekontuz, guztira 6.100 M€-rekin 2007-2013 aldirako.

Euskadik 4,43 M€-ko itzulkin bat lortzen du 2007-2010 aldiran (Euskal Eragileen finantzaturako 18 partaidetza-proiektutan), eta FP6an lortutako emaitzaren oso antzekoa da (4,5 M€). Hala ere, Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuetatik gehien urruntzen diren emaitzak dira (13 M€ eta 50 partaidetza).

Onartutako proiektuen %70 2 Azpialorretan biltzen dira: “*Bioteknologia, Tresna Generikoak eta Teknologia Medikoak Giza Osasunerako*” eta “*Ikerketa Giza Osasunera aldatzea*” (G.4.6).

Osasuna proiektuetan parte hartzen duten Euskal Eragileak askotarikoak dira, eta ZTBESeko Eragileak dira gehienak (itzulkin guztiaren %22,31 Teknologia Zentroek lortzen dute, %9,80 Unibertsitateak, %18,93% CICek eta %12,40 ospitaleek) eta enpresa-partaidetza murriztu batek (guztizko itzulkinetik %36,56k, 4 ETEen eta enpresa handi baten partaidetzari esker).

Gainera, *Osasuneko* Sendagai Berritzaileen Joint Technology Initiative (JTI) (IMI) 3 deialdi eginak ditu azkeneko hiru urteetan, zeinetan euskal ETE batek arrakasta izan duen.

Euskadik itzulkinetan izandako emaitza EEak 2007-2010eko deialdietan dagoeneko esleitu dion aurrekontuaren %0,18koa da. Gainera, Espainiak guztira lortutakoaren %3,91 da (115,9 M€). Bestalde, Gai honetan Espainiak duen itzulkin osoa EEak Osasunean duen aurrekontuaren %5,3koa da, funts gehien jasotzen dituzten herrialdeen artean zazpigarren postua duelarik (Erresuma Batua, Alemania eta Frantzia ranking horren buru direla).

Azkenik, CDTIk⁷ Euskal Eragileen 99 partaidetza izan ditu 2007-2010 aldiran aurrekontutako proiektu-proposamenetan, eta haietatik 18k lortu dute finantzazioa, arrakasta-tasa %18,18koa izan delarik, ehuneko hori Lankidetzatza programarako batez besteko arrakastaren tasaren azpitik kokatzen delarik (%24)⁸. CDTIk kontabilizatutako euskal partaidetza duten 75 proiektu-proposamenetatik, 11k euskal erakundeak izan zituzten lider (3k Teknologia Zentroak, 4k ETEak, 2k Unibertsitateak eta 2k Elkarteak).

(7) DDTIk honetan eta gainerako Gaietan emandako datuak 2011aren ekainekoak dira.

(8) Hirugarren monitorizazio-txostenean, EEak Arrakasta-tasa proposamen hautesgarrien kopuruan oinarritzen du, dagozkien deialdi hautesgarritasun-eskakizunak bete dituzten haiek direlarik, proposamen bikoiztuak edo baztertuak kontuan hartu gabe beraz, bi faseko deialdien lehen fasean hautesgarriak diren proposamenak.

4.4.2.1.2. Elikadura, Nekazaritza, Arrantza eta Bioteknologia (KBBE)

KBBEk 1.935 M€-ko aurrekontua du *Lankidetz*a programan. Gai horren helburua ezagutzan oinarritutako bioekonomia bat Europan sortzea da, zientzialariak, industrialak eta gainerako interesatu guztiak elkarturik ikerketa-aukera berri eta goranzkoetan erronka ekonomiko, ingurumeneko eta sozialei aurre egiteko.

KBBE hiru zutabe tematiko handiren pean eraikitzen da: Baliabide Biologikoen Ekoizpen eta Kudeaketa Jasangarria; Elikadura, Osasun eta Ongizatea ("Granjatik Sardexkara") eta Bizi Zientziak, Bioteknologia eta Biokimika Elikagaiak ez diren Produktu eta Prozesuetarako.

Euskadik 3,74 M€ itzularazten ditu Euskal Eragileen 14 partaidetzarekin finantzaturiko produktuetan. Zifra horiek urrun geratzen dira Koaderno Estrategikoaren lehen edizioan 2007-2010 aldirako planteatutako helburuetatik (6 M€ eta 35 partaidetza).

Gai honetan Euskadiren itzulkina estatu-itzulkinaren %7,47koa da, eta EEak esleitutako aurrekontuaren %0,47koa. Bestalde, Espainiaren itzulkin osoa (50 M€) EEek esleitutako aurrekontu osoaren %7,2koa da eta gehien itzularazten duten herrialdeen artean seigarren postuan kokatzen du horrek (Erresuma Batua, Holanda eta Alemania daude zerrenda-buruan).


Euskal partaidetza azpialorrekin zerikusia duten proiektuetan banatzen da "*Biziaren Zientzia eta Bioteknologia Elikagaiak ez diren Prozesu Jasangarrietarako*" eta "*Baliabide Biologikoen Ekoizpen eta Kudeaketa Jasangarria Ur Ingurunetan*" (G.4.7).

Euskal partaidetza gehienak Teknologia Zentroen kontura doaz (11 partaidetza 3,19 M€-ko itzulkinarekin). Enpresa-partaidetza oso urria da. 2 ETE bakarrik dira partaide 3 proiektu finantzatutan.

Azkenik, CDTIk Euskal Eragileen 104 partaidetza erregistratu ditu 2007-2010 aldira aurkeztutako proiektu-proposamenetan, eta haietatik 14k lortu dute finantzazioa, beraz, arrakasta-tasa %13,46koa izan da, *Lankidetz*a programarako kokatzen den batez besteko arrakasta-tasaren azpitik (%24).

CDTIk kontabilizatutako euskal partaidetza duten 85 proiektu-proposamenetatik, 16k euskal erakundeak izan zituzten lider (9 Teknologia Zentro eta 7 enpresa, haietako 6 ETEak zirelarik). Finantzaturiko proiektu-proposamenetatik bakarrak du lider Teknologia Zentro bat.


G.4.7 KBBE Gaiko partaidetza



>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (KBBE Gaia)

- 2007-2010 aldira lortutako euskal itzulkinak (3,74 M€) Koaderno Estrategikoan planteatutako itzulkin-helburuaren %60 adierazten du (6 M€).
- Nabarmentzekoa da enpresa-partaidetza aurkeztutako proiektu-proposamenetan (37 enpresa-partaidetza, 33 ETEnak dira, partaidetza guztien %43,53), baina proportzio hori murriztua ageri da proposamen finantzatutan (ETEen 2 partaidetza, partaidetza guztien %21,43).
- Ez dago lankidetz kasurik enpresen eta ZTBES artean.
- Lidergo kasu bakarra dago, nahiz eta aurkeztutako euskal partaidetzaren proposamenen %18,82k Euskal Eragileak izan lider.
- Arrakasta-tasa %13,46an kokatzen da.

G.4.8 IKT Gaiko partaidetza



>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (IKT Gaia)

- IKTeko euskal partaidetzak FP7aren lehen urteetan era hazkorreko bilakaera izan du eta, 103 partaidetzarekin eta 25,51 M€-ko itzulkinarekin, Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuak iristetik hurbil geratzen da (100 partaidetza, 29 M€).
- ZTBESeko Eragileen partaidetza-emaitzak baikorrak dira.
- Lidergo-datu onak bai aurkeztutako proposamenetan (%18,80) eta bai onartutako proiektuetan.
- Euskal Eragileen partaidetza ona ARTEMISen eta Euskal Eragileen arteko lankidetzaren ohargarria JTI horrek finantzatutako proiektuetan.

4.4.2.1.3. Informazio eta Komunikazioko Teknologia (IKT)

FP7ko aurrekontu handienarekin (9.050 M€), EEak sostengatzen du Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) kritikoak direla europar industriaren lehiakortasunerako eta gizartearen eta ekonomiaren eskaerei aurre egiteko. Horretarako, IKTek eragin katalizatzailea izan behar du funtsezko 3 alorretan:

- Produktibitatean eta berrikuntzan, sormena eta kudeaketa erraztuz.
- Zerbitzu publikoak modernizatzean, hala nola osasuna, hezkuntza eta garraioa.
- Zientzia eta teknologiako aurrerapenetan, lankidetzari eta informazioarako sarbideari laguntza emanez.

2007-2010 aldiko euskal partaidetza hazkorra izan da (25,51 M€ eta 103 partaidetza). Guztira lortutako itzulkinaren zifrak gainditu egiten du FP6an lortutakoa (24,01 M€), Koaderno Estrategikoaren lehen idatzaldian planteatutako partaidetza-helburua gainditu egiten du (100 partaidetza) baina ez du lortzen planteatutako itzulkin-helburua (29 M€).

IKTeko euskal itzulkinak Espainiak lortutako finantzazioaren %7,18 adierazten du (241,8 M€) eta aldi horretan EEak esleitutako finantzazio guztiaren %0,47. Estatu-mailan, itzulkin handieneko Gaia da FP7an.

Nabarmentzeko aspektu bat JTI ARTEMISen (Konputazio Sistema Landatuak) partaidetza ohargarria da. Euskal erakundeek 31 partaidetza daude 19 proiektutan JTI horrek lagunduta, haietako 2k euskal enpresa handi bat eta Teknologia Zentro bat lider dituztela.

IKT Gaiko azpi-alorrei dagokienez, euskal partaidetza duten proiektuak oso azpialor desberdinetan banatzen dira, batez ere honakoe-tan: “Sistema Kognitiboak, Interakzioa eta Robotika”, “Osagaiak, sistemak, ingeniari-tza”, “IKT mugikortasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta energia-efizientziarako”, “Zerbitzu oropresente eta fidagarrien Sareak eta Azpiegiturak”, eta “IKT bizitza autonomorako eta inklusiorako”.

Euskal partaidetzen %76,70 (%70,21 itzulkinen) ZTBESen Eragileak dira. Enpresen presentziak (7 ETE, 6 enpresa handi, I+G enpresa unitate bat eta kluster bat) proposamen finantzatutan %17,48koa da partaidetzatan eta %19,63koa itzulkinen.

Datu baikor bat ZTBESko 8 Eragileren eta 3 enpresaren aldetik 15 proiekturen lidergoa da.

CDTIren arabera 638 euskal partaidetza kontabilizatu dira proiektu-proposamenetan 1997-2010 aldian, eta horregatik arrakasta-tasa %20,6an kokatzen da IKTrako. Euskal partaidetza duten eta aurkeztutako 500 proposamenetatik, 94k euskal erakundeak izan zituzten lider: 61ek Teknologia Zentroak, 19 enpresak (11 ETE), 9 Unibertsitateak eta 5 Elkarteak.

4.4.2.1.4. Nanozientziak, Nanoteknologiak, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak (NMP)

Guztira 3.475 M€-ko aurrekontuarekin, NMP ikerketak FP7an euro-par industriaren lehiakortasuna hobetzea du helburu eta ezagutzak sortzea baliabideen erabilera intentsiboko industria izatetik ezagutzen erabilera intentsiboko beste batera pasatzea, bermatzeko ezagutzatan errotiko aldaketak sortzearen bitartez, eta ezagutza erabakigarriak aplikatuz teknologia eta diziplina desberdinen arteko bidegurutzean aplikazio berriak ahalbidetuko dituztenak. Horrek mesede egingo die goi-teknologian dauden balio erantsi handiagoko industria berriei, bai eta ezagutzan oinarritutako industria tradizionaleri ere, arreta berezia eskainiz ikerketa eta garapen teknologikoaren emaitzak ETEetara egoki hedatzeari. Jarduera horiek nagusiki laguntza-teknologiekin erlazionaturik daude, zeinek eragina baitute industria-sektoreetan eta VII. Esparru Programako beste gai askotan.

Historikoki, NMP da Esparru Programetan partaidetza eta itzulkin handieneko Gaia, eta halaxe dirau FP7an ere. %33 hazi da itzulkinetan (53,23 M€) Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuekiko 2007-2010 rako (40 M€) eta %53,18 FP6ko itzulkinarekiko (34,75 M€).

Partaidetzen kopuruari dagokionez, proposatutako helburua 135 partaidetza lortzea zelarik, Euskal Eragileen 146 partaidetza lortu dira proiektu finantzatuetan, eta hori hazkuntza esanguratsu samarra izan da FP6ko 124rekiko.


NMP da FP7an euskal enpresa-partaidetza handieneko Gaia. 2007tik 2010era 52 enpresa-partaidetza izan dira, guztira 11,28 M€-ko itzulkin guztizko bat lortu delarik. Garrantzitsua da 34 ETEren eta 10 enpresa handiren partaidetza azpimarratzea.

ZTBESko Eragileen partaidetza NMPen lortutako itzulkin guztizkoaren %78 baino gehiagokoa da. Teknologia Zentroek ZTBESen itzulkin guztizkoaren %87 itzularazten dute eta proportzio ia berdinetan, partaidetzan eta itzulkinetan, Tecnalia eta IK-4rentzat.

Azpialorren partaidetzari dagokionez, Ekoizpenean biltzen da partaidetzen kopuru handiena (36 partaidetza, 11,5 M€), ondoren Nanozientziak eta Nanoteknologiak datozela (37 partaidetza, 14 M€), Materialak (23 partaidetza, 9,3 M€), Industria Aplikazioetarako Teknologia Integrazioa (21 partaidetza, 8 M€).

Joera argi bat dago Teknologia Zentroen *Ekoizpen Berriko* azpialorrean (23 partaidetza, 9,41 M€), NMPko beste hiru azpialorrean partaidetza antzekoa delarik (Nanozientziak eta Nanoteknologiak: 14 partaidetza, 6,16 M€), Materialak (12 partaidetza, 7,25 M€), Industria Aplikazioetarako Teknologia Integrazioa (11 partaidetza, 5,09 M€). Enpresa-partaidetzaren kasuan partaidetza-kopuru handiago bat dago Ekoizpen Berria azpialorreko projektutan 12 partaidetzarekin, haietako 8 ETEenak direlarik 1,74 M€-ko finantzazioarekin, ondoren 15 partaide-

G.4.9 NMP Gaiko partaidetza



>> **KONTUAN HARTZEKO DATUAK (NMP Gaia)**

- Euskadin itzulkin eta partaidetza handiena lortu duen Gaia da. 2007-2010ean itzulkina %33an gehitu zen, planteatutako helburuarekiko, eta %53 FP6koarekiko.
- ZTBESko Eragileen partaidetza NMPeko itzulkin guztizkoaren %78 baino handiagoa da.
- Euskal enpresen (ETEak nagusiki) partaidetza handieneko gaia da.
- Proiektuen lidergoa bereziki garrantzitsua da (Teknologia Zentroak dira nagusiki proposamenen %18aren liderrak).
- Lankidetzaren handieneko Gaia da enpresen eta ZTBESko Eragileen artean.
- Euskal Eragileen kokamendu ona “Factories of the Future” eta “Energy Efficient Buildings” PPPetan.
- Arrakasta-tasa %64,22an kokatzen da.

tza datozela (haietako 11 ETEenak) Nanozientziak eta Nanoteknologiak azpialorrean (4,88 M€).

Oso garrantzitsua da gure Eragileen kokamendua bi Partenergo Publiko-Pribatutan (PPPak). “Factories of the Future” PPPan euskal erakundeen 19 partaidetza izan dira lehen deialdietan 6,61 M€-ko guztizko itzulkin bat lortuz. “Energy Efficient Buildings” PPPan 10 partaidetza erregistratu dira 3,84 M€-ko itzulkinarekin.

Bereziki garrantzitsua da lidergoa Gai honetan. 146 partaidetzatitik, 27 Euskal Eragileek koordinaturik daude (%18):18 proiektuk ZTBESko liderrak dituzte (14k Teknologia Zentroak) eta 7 proiektuk enpresak dituzte lider (6 ETE), edo I+G enpresa-unitateak.

Beste datu baikor bat ZTBESko enpresen eta Eragileen arteko lankidetzaren da. NMP da Euskal Eragileen arteko lankidetzaren handieneko Gaia. Guztira izan diren 149 partaidetzetatik, 30 alditan lankidetzaren gertatu da euskal enpresen eta Sareko Eragileen artean (%20,13).

Euskadiko itzulkinaren bikaina da Estatuarenarekin alderatuta, Espainiak NMPen lortutako itzulkin osoaren %32,68koa da. Espainiak, bestalde, 145,3 M€ itzularazten ditu, eta hori EEak Gai honetan esleitutako aurrekontuaren %9,5 da eta NMPek itzulkin handieneko herrialdeen artean bosgarren postuan kokatzen du (Alemania, Erresuma Batua, eta Italia daude rankingaren buruan). Euskal itzulkinak, bestalde, EEak orain arte esleitutako aurrekontu osoaren %2,75 ordezkatzen du.

Azkenik, bikaina da halaber %64,22ko Arrakasta-tasa (euskal partaidetzarekin aurkeztutako 232 proiektu-proposamenetatik, 149 partaidetza izan dira onartuak).

4.4.2.1.5. Energia

Guztira 2.350 M€-ko aurrekontuarekin FP7an Energiako ikerketaren helburu nagusia teknologia sortu eta ezartzea da gaurko energia-sistema beste sistema jasangarriago, lehiakorrago eta seguruago batera, erregai fosilekiko mendekotasun gutxiagokora eta energia-iturri berriztagarriak erabiliko dituen batera egokitzeko.

Euskadiren Energia-itzulkinak (18,79 M€) 2007-2010 aldian Koaderno Estrategikoan planteatutako helburua gainditu egiten du (13 M€) eta FP6an lortutako emaitza ere bai (12,72 M€).

Itzulkin hau estatu-itzulkinaren %17,15ekoa da. Bestalde, Euskadiren itzulkina orain arte EEak esleitutako aurrekontu guztizkoaren %1,88koa da. Espainiak 104,2 M€ itzularazten ditu eta horrek EEk esleitutako aurrekontuaren %12,5 esan nahi du, eta horrek Energian itzulkin handiena duten herrialdeen artean bigarren postuan kokatzen du, Alemania lehen postuan eta Danimarka hirugarrenean daudelarik.

Emaitza on horiek gorabehera, bada halako joera arin bat gutxitzekoa, 4 urteetan zehar (2007: 15 partaidetza eta 7,12 M€; 2008: 6 partaidetza eta 0,84 M€; 2009: 14 partaidetza eta 6,54 M€, 2010: 9 partaidetza eta 4,29 M€).

Garrantzitsua da nabarmentzea Energia dela Gai bakarra, zeinean enpresa-partaidetzaren datuak (19 partaidetza, 7,06 M€) berdindu egiten baitira ZTBESko Eragileen partaidetzakoekin (19 partaidetza, 6,54 M€). Hala ere, euskal enpresa-sektorearen eta ZTBESaren arteko lankidetzak baxua da.


Enpresa-partaidetzari dagokionez, enpresa handiak dira nagusiki proiektu finantzatuaren parte hartzen dutenak (8 enpresa handi 17 partaidetzarekin onartutako proiektuetan), itzulkin guztizkoaren %34,73 lortuz Energian. Azpimarratzekoa da enpresa handi hauen artean elkarrekin parte-hartzea finantzatutako proiektuetan.

ZTBESko Eragileei dagokienez, Teknologia Zentroek 18 partaidetza erregistratzen dituzte, guztizko itzulkinaren %33,53 lortuz, Unibertsitatearen aldetik partaidetza bat gehitzeaz gainera.

Merezi du 3 erakunde publikoren partaidetza 5 proiektutan nabarmentzea %26,61ko itzulkinarekin, garraioko energia-efizientziarekin erlazioatutako proiektuetan eta eraikitze-bidean dauden Sare Elektriko Adimendunekin.

Arrakasta-tasa bikaina da eta %47 inguruan kokatzen da, finantza-zioa lortu dutelarik 93 euskal erakundeetatik 44k. Aurkeztutako 64 proposamenetatik 40 partaidetza izan dira Teknologia Zentroenak eta 40 enpresenak. Partaidetzaren emaitza onak gorabehera, 4 proiektu bakarrik dituzte Euskal Eragileak lider gisara. Hala ere, euskal presentzia duten 93 partaidetzetatik 15ek euskal erakundeak ziztuzten lidertzat.


G.4.10 Energia Gaiko partaidetza



>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (Energia Gaia)

- Euskal Eragileek Energian lortutako itzulkinak (18,79 M€) gainditu egiten du Koaderno Estrategikoan planteatutako helburua (13 M€).
- Nabarmentzekoa da enpresa handien eta erakunde publikoen partaidetza Gai honetan.
- Lankidetzak nabaria dago euskal enpresen artean proiektu handietan.
- 47%ko arrakasta-tasa altua.

G.4.11 Ingurumena Gaiko partaidetza



>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (Ingurumena Gaia)

- Hazkuntza interesgarria FP6ko partaidetzarekiko. 2007tik 2010erako partaidetzak gainditu egin ditu Koaderno Estrategikoak aldi horretarako planteatutako helburuak.
- Proiektuetako partaidetza handiena Teknologia Zentroen kontura izan da.
- Parte hartu duten enpresa urriek kasu guztietan ZTBESeko Eragileekin egin dute.

4.4.2.2.1.6. Ingurumena (Klima Aldaketa barne)

Gai honen helburu nagusia FP7an baliabide naturalen kudeaketa jasangarria sustatzea da klima, biosfera, ekosistema eta giza jarduerak eta teknologien garapena, tresnak eta ingurumen-zerbitzuei buruzko ezagutza gehitzearen bitartez. EEak 1.890 M€-ko aurrekontua esleitzen du FP7aren iraupen osorako.

Gai honek hazkuntza interesgarria izan du euskal partaidetzari dagokionez FP7an. FP6an partaidetza baxu samarra izan bazen ere, (6 partaidetza, 0,56 M€), FP7ko 2007-2010 aldian partaidetza gehituz joan da 5,95 M€-ko itzulkina lortuz Euskal Eragileen 26 partaidetzarekin, eta emaitza horiek gainditu egiten dituzte Koaderno Estrategikoak proposatutako helburuak (25 partaidetza, 4 M€).

Proiektuetako partaidetza handiena (18) CTBESko Eragileen kontura doa, Gai horretan %85eko itzulkinarekin, partaidetza horren %88 Teknologia Zentroena izan delarik. Enpresa-sektoretik 4 ETEek parte hartu dute, Enpresa handi batek eta kluster batek. Nabarmentzekoa da aipaturiko enpresa-erakunde horiek kasu guztietan Teknologia Zentroekin aritzen direla lankidetzan. Azkenik, aipatu beharrekoa da bi erakunde publikoren partaidetza proiektu baten garapenean.

Onartutako proiektuen gaiak 2 ardatzetan biltzen dira: baliabideen kudeaketa jasangarria (ura, hondakinak, lurzorua) eta ingurumen-teknologiak (ura, airea, hondakinak eta eraikuntza-materialak).

Euskadiren itzulkina Estatuarenarekiko %12,20koa da, eta %0,72koa EEak esleitutako aurrekontuarekiko 2007tik 2010era. Espainiak 49,9 M€-ko itzulkina lortu du, eta zifra horrek EEak esleitutako aurrekontu osoaren %6,9 esan nahi du eta 6. postuan kokatzen du itzulkin handieneko herrialdeen artean (zerrendaren buruan Alemania, Erresuma Batua eta Holanda daude).

Gai honetako arrakasta-tasa %20,63koa da (euskal erakundeek 126 partaidetza aurkeztutako proiektu-proposamenetan eta 26 partaidetzaren proiektu finantzatuetan). 20 kasutan aurkeztutako proiektu-proposamenak Euskal Eragileak zituzten liderrak (15 Teknologia Zentroen aldetik eta 3 ETEen aldetik). Finantzaturiko proiektuetan euskal erakundeek izandako 26 partaidetzetatik, 2 lidergo lortu dira Teknologia Zentro baten aldetik.

4.4.2.1.7. Garraioa (Aeronautika barne)

Garraioko europar sistema oparotasun ekonomiko eta sozialaren hil edo biziko osagaia da. Eskaintzen dituen funtzioak erabakigarriak dira pertsonen eta merkantzien garraioari dagokienez nazioarteko, Europako, nazioko, erregioko eta tokiko testuinguruan. Gai honek garraioaren Liburu Zurian dauden gaurko erronketako batzuk landuko ditu, garraio-sistemek gizarteari eta lehiakortasun industrialari egiten dizkieten ekarpenak hobetuz Batasun zabaldu baten barruan, eta aldi berean, garraioaren ondorioak eta eragin ezkorrak minimizatuz, ingurumena, energia-kontsumoa, segurtasuna eta osasun publikoari dagokienez.

Aurrerapen teknologiko eta operatiboetan eta garraioaren europar politikan oinarrituz, Gai honen helburua garraio-sistema paneuropar integratu seguruago, ekologikoago eta "adimendunago" batzuk garatzea da, hiritar guztien, gizartearen eta klima-politikaren mesedetan, ingurumena eta baliabide naturalak errespetatuz; eta mundu-merkatuan europar industrien lortutako lehiakortasuna mantenduz eta aurrerraraziz.

FP7an Garraioaren ikerketak duen helburu nagusia hau da: garraio-sistema seguruagoak, garbiagoak eta adimendunagoak Europarako garatzea, hiritarrei mesede egingo dietenak, ingurumena errespetatuko dutenak eta europar industrien lehiakortasuna merkatu globallean gehituko dutenak. EEak Gai honi esleitutako aurrekontua hirugarrena da zenbatekoz, 4.160 M€.


Euskal partaidetzaren emaitzak Garraioan baikorrak dira (76 partaidetza, 22,34 M€), FP6ko partaidetza-emaitzak hobetu egiten dituzte (67 partaidetzak, 18,07 M€), nahiz eta ez dituzten lortu Koaderno Estrategikoan 2007-2010 aldirako proposatutako helburuak (87 partaidetza, 24 M€).

Garraioko enpresa-partaidetza ohargarria da (%37 partaidetza guztietatik eta %29,63 gai honetako itzulkin guztitik) batez ere bost enpresa handi Aeronautikako proiektuetan dabiltzalako, Green Cars PPPa eta Clean Sky JTIa.

Euskal Eragileen partaide-kopuru handiena *Aeronautikako* proiektuetan biltzen da (33 partaidetza, 10,25 M€), ondoren *Automozioa* dator (8 partaidetza, 1,73 M€), *Trenbidea* (8 partaidetza 1,65 M€) eta *Jarduera Horizontalak Garraioa programa inplementatzeko* (5 partaidetza 2,19 M€). *Itsas Garraioan* ez dago partaidetzarik. Gainera ohargarria da Clean Sky JTIko partaidetza (13 partaidetza, 3,52 M€) eta Green Cars PPPan (7 partaidetza, 2,6 M€). Bi partaidetza Galileo programari dagozkio (0,39 M€).

Aeronautikan Teknologia Zentroak dira partaidetza handiena dutenak 16 partaidetzarekin, proiektuetan, eta 6,9 M€-ko itzulkinarekin. Enpresen eta Teknologia Zentroen arteko lankidetzak agerian gertatzen da Aeronautikako proiektuetan. Nabarmentzekoa da bi enpresa

G.4.12 Garraioa Gaiko partaidetza





CIVITAS-ARCHIMEDES Proiektua: “Achieving Real Change with Innovative Transport Measures Demonstrating Energy Savings”. Partaideak: Donostiako Tranbiaren Konpainia, Donostiako Udala eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

handiren arteko lankidetzak, zeinek beren proiektu gehienetan Teknologia Zentroak hartzen baitituzte lankide gisa.

Aeronautikako proiektuetako 33 partaidetzez gainera, nabarmengarria da euskal erakundeen partaidetza ona Clean Sky JTIan, 5 Teknologia Zentroekin eta bi enpresa handirekin guztira 9 proiektu finantzatutako parte hartuz ekimen honen bitartez 3,52 M€).

Garraioeko euskal partaidetza baxuagoa da, 3 Teknologia Zentroekin eta 4 enpresarekin Automozioa proiektuan parte hartuz eta 4 Teknologia Zentro eta enpresa handi bat Trenbidea proiektuan lan eginez.

Azkenik, interesgarria da nabarmentzea Euskal Eragileek izan duten partaidetza esanguratsua Green Cars PPPetan 3 enpresarekin eta 3 Teknologia Zentroekin ekimen honek finantzatutako 6 proiektutan eta 2,6 M€-ko itzulkin guztizkoarekin.


Euskadiren partaidetza-ehunekoa (%26,98) Espainiak garraioan izan duen itzulkin guztizkoarekiko garaientako bat da, NMP eta Energiarekin batera. Gainera, Euskadik %1,46 itzularazten du EEK orain arte esleitutako aurrekontu osotik. Espainiarentzat itzulkin-emaizta 85,7 M€-koa da, eta zifra hori esleitutako aurrekontu osoaren %6 da eta 7. postuan kokatzen du itzulkin gehien lortzen dituzten herrialdeen rankingean (zerrendaren buruan Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua daude).

Euskal proposamen aurkeztuen arrakasta-tasa %41,19an kokatzen da, Euskal Eragileen 39 partaidetza finantzatu direlarik aurkeztutako proposamenetako 93 partaidetzaren aurrean.

>> **KONTUAN HARTZEKO DATUAK (Garraioa Gaia)**

- Garraioeko partaidetza-emaizak baikorrak dira (76 partaidetza, 22,34 M€). FP6ko partaidetza-emaizak hobetu egiten dituzte baina ez dute lortzen 2007-2010 aldirako proposatutako helburuak lortzea (87 partaidetza, 24 M€).
- Euskal Eragileen partaidetza-kopuru handiena Aeronautikako eta Clean Sky JTI proiektutan biltzen da, ondoren Green Cars PPPak, Automozioa eta Trenbidea datozelarik. Ez dago onartutako proiekturik Itsas Garraioa azpialorrean.
- Garraioeko enpresa-partaidetza ohargarria da, batez ere, enpresa handiak daudelako Aeronautikako proiektuetan: Green Cars PPPak eta Clean Sky JTIa.
- Ohargarria da enpresa handien eta Teknologia Zentroyen arteko lankidetzak Aeronautikako proiektu gehienetan.
- Arrakasta-tasa altua (%41,19).

G.4.13 CSHa Gaiko partaidetza



4.4.2.2.1.8. Beste Gai batzuk: Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak, Espazioa eta Segurtasuna

Aurrekontu txikiagoko 3 Gai dira FP7ko Lankidetzaren programan eta horietan ere euskal partaidetza baxua izan da.

- *Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak (GZH)*

Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak Gaia erakunde askok parte hartzeko duten interesa erakutsi duten barrutietako bat izan da. Izatez nabari da euskal partaidetzarekin aurkeztutako proiektu-proposamenen kopurua altua izan dela (69 partaidetza) onartutako proiektutan euskal partaidetzen kopuru baxuaren aldean (5). Bestalde, aurrekontu baxuko Gaia da (623 M€), "topic" gutxi eta oso mugatuak dituen, eta horrek zaildu egiten du erakunde horietako askoren ideiak txertatzea.

Gai honen helburua FP7an Europak aurre egin beharreko erronka sozioekonomiko konplexu eta elkarlotuen ezagutza sakoneko eta partekatuari laguntzea da. Gai honetako ikerketak laguntza emango du honako gai hauekin zerikusia duten galderak aztertzen eta haiei erantzunak bilatzen:

- Hazkuntza, enplegua eta lehiakortasuna.
- Kohesio sozial, kultural eta hezkuntzakoari buruzko erronkak EB zabaldu batean.
- Jasangarritasun eta ingurumena, demografia-aldaketa, emigrazioa eta integrazioa, bizi-kalitatea eta elkardepentzia globaleko erronkak.

FP6ko partaidetza-erronkak erkatuz (9 partaidetza, 0,75 M€) esanenezake partaidetza hobetzen ez den Gaietako bat dela (5 partaidetza eta 1,09 M€ itzulkinean, eta 2007-2010 aldirako Koaderno Estrategikoak proposatutako helburuak 24 partaidetza eta 3 M€ ziren.

Bi unibertsitate eta elkarte bat dira Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak Gai horretan onartutako proiektuen onuradunak 2007-2010 aldirako.

Euskal itzulkina %7,33koa da estatu-mailan, gai honetan lortutako itzulkin osoarekiko, eta %0,31 EEak esleitutako aurrekontu osoarekiko orain arte. Espainiak 11,6 M€ itzularazten ditu, eta zifra hori %4,7 da EEak Gai honetan esleitutako aurrekontutik eta horrek 7. postuan kokatzen du herrialdeen rankingean (Erresuma Batua, Alemania eta Italia buru direla).

- *Espazioa*

Gai berri bat da FP7an aurreko Esparru Programetan Garraioan sartuta egon zena. FP7ko aurrekontua guztira 1.430 M€-koa da. Gai honen helburua FP7an Espazioko Europar Programa bultzatzea da "Global monitoring for environment and security (GMES)" gisako aplikazioetan zentratuz, hiritarrentzat eta espazioaren europar industriaren

lehiakortasunerako onurekin. Horrek lagundu egingo du espazioaren europar politika garatzen, Estatu Kideen eta funtsezko beste aktore batzuen arteko ahaleginak osatuz, Espazioko Europar Agentzia (ESA) barne dela.

Euskal erakundeen 8 partaidetzarekin eta guztira 2,41 M€-ko erabateko finantzazioarekin, Koaderno Estrategikoan 2007-2010 aldirako proposatutako helburuak lortzen dira (7 partaidetza, 2 M€). Emaitza horiek Teknologia Zentroyen partaidetza bikainari zor zaizkio.

Gai honen itzulkina Espainiak aldi honetan duen finantzazio osoaren %12,07koa da. Gainera, EEk dagoeneko esleitutako aurrekontuaren %0,79 da.

Proiektu-proposamenetako 16 euskal partaidetzetatik, haietako 8 onartu dira (arrakasta-tasa %50ekoa da).

• *Segurtasuna*

FP7ko Gai berri honek 1.400 M€-ko aurrekontua du guztira. Gai honen helburuak FP7an honako hauek dira:

- Teknologia eta beharrezko ezagutza garatu hiritarren segurtasuna segurtatzeko terrorismoa eta krimen (antolatuaren), hondamendi natural eta ezbehar industrial gisako mehatxuen aurrean, halaber gizakiaren oinarriko eskubideak errespetatuz.
- Eskura dauden eta bilakatutako teknologien erabilera hobereana eta hitzartua segurtatu europar segurtasun zibilaren mesedetan.
- Hornitzaileen eta erabiltzaileen lankidetzak estimulatu segurtasun zibileko soluzioetarako, segurtasuneko europar industriaren lehiakortasuna hobetuz eta emaitza bideratuak sortuz segurtasun-hutsuneak murrizteko.


Gai honetan Euskal Eragileen partaidetzak ikusten hasi dira, nahiz eta 2007-2010eko emaitzek (13 partaidetza, 2,86 M€) Koaderno estrategikoan proposatutako helburuak ez lortu (20 partaidetza, 5 M€).

Teknologia Zentroak dira partaidetza gehienak erregistratzen dituztenak (9 partaidetza, 2,07 M€) eta azpialor desberdinetan: hiritarren segurtasuna, azpiegituretako segurtasuna, muga-segurtasuna, integrazioa hobetzea, segurtasun-sistemen interkonektibotasuna eta interoperagarritasuna; segurtasuna eta gizartea). 2 ETEek eta enpresa handi batek finantzazioa lortzen dute beren proiektuetan (G.4.15).


Euskadiren itzulkina %6,6-koa da estatu-mailako guztirako itzulkinarekiko eta %0,55-ekoa EEk esleitutako aurrekontu osoarekiko. Espainiak guztira 43,5 M€ lortzen ditu (EEak esleitutako aurrekontu osoaren %5,3) eta 5. postuan kokatzen du itzulkin gehieneko herrialdeen artean (Frantzia, Erresuma Batua eta Italia dira buru).

Arrakasta-tasa %20an kokatzen da, Euskal Eragileen 13 partaidetza finantzatu direlarik aurkeztutako proposamenetako 65 partaidetzaren aurrean.

G.4.14 Espazioa Gaiko partaidetza



G.4.15 Segurtasuna Gaiko partaidetza



>> **KONTUAN HARTZEKO DATUAK**
(ETEn Onurarako Ikerketa Programa)

- FP7ko euskal partaidetza gutxitu egin da FP6koarekiko eta ez ditu betetzen Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuak.
- Espainia da gehien itzularazten duen bigarren herrialdea EB-27an (43,5 M€). Euskal itzulkinak Espainiak lortutakoaren %9,08 da.
- Programa honek aukera ematen die I+G propioa burutzeko gaitasunik ez duten enpresei “I+G+b-ko Betearazleak” azpikontratatzeko (eskuarki ikerketa-zentroak edo unibertsitateak). Ildo honetatik, kasuen %33an lankidetzak dago enpresen eta Euskal Teknologia Zentroen artean.
- Arrakasta-tasa %17an kokatzen da.

4.4.2.2.2. ETEen Onurarako Ikerketa

I+G+b propioa burutzeko gaitasunik ez duten eta hirugarrenak azpikontratatu behar dituzten ETEei bideratutako programa bat da, finantzazio-eskema oso interesgarri batekin, bai enpresentzat eta, bai “I+G+b-aren Betearazle” izendatuentzat.

Programa honen helburua FP7an ETEen gaitasun berritzailea indartzea da Europan eta teknologian oinarritutako produktu eta merkatu berriak garatzen laguntzea, eta horretarako 1.336 M€ko aurrekontu guztizko bat esleitzen da. Ikerketa kanporatzen, ikerketan ahaleginak gehitzen, beren sareak hedatzen, ikerketaren emaitzak hobeto ustiatzen eta know-how teknologikoa eskuratzen lagunduko die programak, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko tartea laburtuz. ETEak Europako enpresen %99 dira eta bi heren baino gehiagoan egiten dute europar BPGaren ekarpena, sektore pribatuan 75 milioi lanpostu baino gehiago hornituz. Beraz, ETEak funtsezkoak dira Lisboako Estrategia berritua inplementatzeko hazkuntza ekonomikoan eta enpleguarenean.

Nahiz eta euskal partaidetza handia izango zela uste izan programa honetan, FP6an gertatuenez, 2007-2010eko euskal partaidetzak ez ditu itxaropenak betetzen. Partaidetza-emaitzek (55 partaidetza, 10,70 M€) ez dituzte lortzen FP6an lortutako emaitzak (116 partaidetza, 17,25 M€) ez eta Koaderno Estrategikoan planteatutako helburuak ere (122 partaidetza, 18 M€).

Euskal ETEen 24 partaidetza daude (4,23 M€), bi enpresa handi (0,31 M€), I+G enpresa unitate bat (0,17 M€) eta 3 partaidetza kluster baten aldetik (0,85 M€).

Programa honetako partaidetzaren analisirako datu esanguratsu bat ETEen eta “I+G-aren Betearazle” izendatuen arteko tokiko lankidetzamailea da. Hala, ETEen 24 partaidetzetatik, 8 abagunetan euskal Teknologia Zentroak kontratatu dituzte “I+G-aren Betearazle” gisara. Programa honetan onartutako proiektuak dituzten gainerako 18 enpresak Euskadiz kanpoko Eragileekin ari dira lankidetzan. Bestalde, 14 partaidetza daude Teknologia Zentroenak, zeinetan ez baita lankidetzarik euskal enpresekin.

ETEn programako itzulkinak %9,08 da Espainiaren finantzazio osotik aldi horretan. Gainera, EEak dagoeneko esleitutako aurrekontuaren %1,12 da. Espainiak 43,5 itzularazten ditu programa honetan eta hori EEak esleitutako aurrekontuaren %13,8 da eta 2. postuan kokatzen du itzulkin gehienarekin (lehen postuan Erresuma Batua dago eta hirugarrenean, Italia).

Proiektu-proposamenetako 325 euskal partaidetzetatik, 55 partaidetzak EEaren finantzazioa lortu dute (%16,92ko arrakasta-tasa). 22 proiektu-proposamenek enpresak izan zituzten lider eta 49k Teknologia Zentroak. Haietatik guztietatik, azkenean 10 proiektu onartu zituzten euskal lidergoarekin.

4.4.2.2.3. Ideiak Programa

Ikertzaileen ekimenez egiten den “ezagutzaren mugetako ikerketa”, oinarritzko ikerketa bezala urletzen diren jardueren esparruaren barruan eskuarki, aberastasun eta gizarte-aurrerapenerako funtsezko faktorea da, zeren eta abagune berriak sortzen baititu zientzia eta teknologiaren aurrerapenerako, eta ezagutza berriak sortzeko balio izaten du geroko aplikazio eta merkatuetarako.

Eremu askotan iritsitako lorpenak eta errendimenduaren maila gairiak gorabehera, Europak ez ditu aprobetxatzen dezakeen guztia bere ahalmena eta bere ikerketa-baliabideak, eta ezagutzak sortzeko ahalmen handiagoa premiaz lortu beharra du eta ezagutza hori balio ekonomiko, sozial eta hazkuntzako bihurtu.

Ideiak programaren helburuak europar ikerketaren bikaintasuna, dinamismoa eta sormena sendotzea dira eta Europaren erakargarritasuna gehitzea Europako eta hirugarren herrialdeetako ikertzaileentzat, eta industriak ikerketan inbertsioak egin ditzan finantzazio-egitura lehiakor bat hornituz europar-eskalan, (finantzazio nazionala osatuko duena eta ez ordeztu) ekipo independenteek burututako “ezagutzaren mugetako ikerketarako”. Ikerketaren emaitzen komunikazioa eta dibulgazioa programa horren aspektu garrantzitsuak dira. Helburu horiek betetzeko, EEak 7.510 M€-ko aurrekontu bat esleitzen du FP7aren iraupen guztirako.

Programa honetako euskal partaidetza bikaina da. Euskadik bi aldiz baino gehiago lortzen du Koaderno Estrategikoan proposatutako itzulkinen 2007-2010 aldirako. Guztira lortutako finantzazioa 9,13 M€-koa izan da, eta planteatutako helburua 4 M€-koa izan zen. Gainera partaidetza hazkorra izan da 4 urte hauetan zehar.

Aurkeztutako proiektuen proposamenetan euskal erakundeek 16 partaidetzetatik, haietako 6 finantzatu dira (arrakasta-tasa %37,50koa). Onartutako proiektuetan parte hartzen duten erakundeak ZTBESko Eragileak dira (Unibertsitatea, CIC eta BERC).

Euskadiren itzulkina estatu-itzulkinaren %1,72 da eta %0,10 orain arte EEak esleitutako aurrekontuarekiko. Espainiak 96,7 M€ itzulazaten ditu, eta zifra hori EEak esleitutako aurrekontuaren %6,9 da eta 7. postuan kokatzen du partaidetza handieneko herrialdeen rankingean (Erresuma Batua, Frantzia eta Alemania dira zerrendaburu).

>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (Ideiak Programa)

- Berriki sortutako programa bat da FP7an eta bertako euskal partaidetza bikaina izan da. Euskadik bi aldiz baino gehiago eskuratzen du Koaderno Estrategikoan 2007-2010 aldirako proposatutako itzulkinaren helburutik.



CHAMALEON Proiektua: "Production Dependent Adaptive Machine-Tool". Partaideak: Ideko-IK4, Soraluce, Fagor-Aotek, Goialde eta Tekniker-IK4.

4.4.2.2.4. Pertsonak Programa

Marie Curie Ekintzak izan dira Erkidegoko Esparru Programen mekanismo herritarren eta preziatuenak teknologia eta ikerketaren garapenerako. Ekintza horien orientabidea nabarmen garatuz joan da denborarekin, eta mugikortasunari mesede egiteko beka-programa bat bezala hasi zen hura, orain ikertzaileen karreraren garapena sustatzeko programa bat da. Mari Curie Ekintzek duten aparteko arrakasta europar zientzia-erkidegoaren beharrei erantzuna ematean datza prestakuntza, mugikortasuna eta lanbide-ibilbidearen garapenaren auziei dagokienez. EEak esleitutako aurrekontu osoa FP7rako 4.750 M€-koa da.

Pertsonak programaren helburuak honako hauek dira: kuantitatiboki eta kualitatiboki giza ahalmena sendotzea Europako ikerketan eta teknologian. Programaren asmoa helburu hori lortzea da ikertzaile-karrera hautatzera pertsonak estimulatzu, europar ikertzaileak Europan irautera animatuz, eta munduko alderdi guztietako ikertzaileak Europara etortzea, hitz batean, ikertzaile hoberenentzat Europa erakargarriagoa izatea lortuz.

Programak helburu hori “Marie Curie ekintza” multzo esanguratsu bat ezarri aurreikusten du, bereziki kontuan hartuz europar balio erantsia bere efektu baikorrekiko ikerketako europar gunea egituratzean.

Pertsonak programako euskal partaidetzaren emaitzak ere bikainak dira. FP6an *Marie Curie* programan partaidetza baxua izan zen (2,7 M€), baina FP7ko 2007-2010 lehen aldiko euskal partaidetza Koaderno Estrategikoan (6 M€) planteatutako helburuarekiko hiru bider baino handiagoa da (20,35 M€), euskal erakundeen 36 partaidetzei esker. Nabarmentzekoa da ZTBESko Eragile batzuen partaidetza garrantzitsua programa honetan.

Onartutako proiektu gehienak Marie Curie Ekintzetakoak dira ikertzaileen hasierako prestakuntzarako (“*Initial Training Networks, ITN*”), ikerketa karreraren garapenerako (“*Intra-European Fellowships for Career Development, IEF*”), enpresa-sektorearen eta Akademiaren arteko lankidetzarako (“*Industry-Academia Partnerships and Pathways, IAPP*”) eta ikerketa-karrerak hirugarren herrialdeetan garatzeko (“*International Research Staff Exchange Scheme, IRSES*”).

Euskadiren itzulkina %16,72 da estatuaren itzulkinarekiko, eta %1,44 orain arte EEak esleitutako aurrekontuarekiko. Espainiak 117,5 M€-ko itzulkin bat lortu du, eta zifra horrek %9,5 esan nahi du EEak esleitutako aurrekontu osoarekiko eta 4. postuan kokatzen du itzulkin handiena duten herrialdeen artean (zerrendaren buruan Erresuma Batua, Alemania eta Frantzia daude).

>> KONTUAN HARTZEKO DATUAK (Pertsonak Programa)

- Euskal partaidetzak Pertsonak programan izandako emaitzak ere bikainak dira. FP6an partaidetza baxua izanik, FP7ko euskal partaidetza hiru halakotik gora doa Koaderno Estrategikoak planteatutako helburuarekiko.

4.4.2.2.5. Gaitasunak Programa (ETeen Onurarako Ikerketa izan ezik)

Koaderno Estrategikoak 2007-2010erako helburu global bat planteatzen zuen 4 M€-koa *Gaitasunak* programako azpiprograma guztiarako, *ETeen Onurarako Ikerketa* azpiprograma baztertzuz.

Aldi horretako emaitzek nabarmen gainditu dituzte itzaropenak, izan ere 7,10 M€-ko itzulkin guztizkoa lortu da, Euskal Eragileen 51 partaidetzarekin. EEak esleitutako aurrekontu osoa Gaitasunak programako azpiprograma horiek burutzeko 2.761 M€-koa da. Ondoren zehaztuko dira azpiprograma bakoitzaren emaitzak.

• *Ikerketa Azpiegiturak*

Programa honen helburu orokorra FP7an (1.715 M€) Europan dauden azpiegitura hobereenen erabilera eta garapena optimizatzea da. Gainera, interes paneuroparreko azpiegitura berriak sortzera zuzendurik dago zientzia eta teknologiaren eremu guztietan. Europar zientzia-erkidegoak beharrezkoak ditu ikerketaren aitzinaratzeari aurre egiteko eta lagundu egingo diote industriari bere ezagutza-oinarria eta know-how teknologikoa sendotzen.

3,5 M€ itzulkinarekin, 12 euskal partaidetza daude onartutako proiektuetan.

Euskal erakundeek 20 partaidetzatatik, aurkeztutako proiektuen proposamenetan, 12 partaidetza finantzatuak izan dira (arrakasta-tasa %60).

• *Ezagutzaren Erregioak*

Espainia da EB-27ko herrialdeen artean itzulkin handiena (4,6 M€) lortzen duena aurrekontu baxuko azpiprograma honetan (126 M€).

Euskal erakundeek 18 partaidetzako multzoan, nabarmentzekoa da haien arteko lankidetzaren onartutako proiektu guztietan.

Euskal erakundeek 48 partaidetzatatik aurkeztutako proiektu-proposamenetan, 18 partaidetza finantzatu dituzte (arrakasta-tasa %37,5).

• *Beste azpiprograma batzuk: Zientzia eta Gizartea, Ikerketa Ahalmena eta Nazioarteko Lankidetzaren Jarduerak*

Zientzia eta Gizartea azpiprogramaren barruan (330 M€) 6 partaidetza aurkitzen ditugu (0,51 M€) 4 proiektutan.

Nazioarteko Lankidetzaren Jarduerak azpiprograman (INCO) (180 M€) euskal erakundeek bi partaidetza daude.

Ez dago euskal partaidetzarik “Ikerketa Ahalmena” (340 M€) eta “Ikerketaren Garapen Koherentea” (70 M€) azpiprogrametan.

4.4.2.3. Euskal Eragileen analisia tipoka

Sail honetan euskal partaidetza Eragile-tipoka analizatzen da. Horretarako, partaidetza-datuak taldeen arabera sailkatu dira:

- **Enpresak:** termino horren azpian ETEak, Enpresa Handiak eta I+G Enpresa Unitateak elkartu dira.
- **Unibertsitatea:** termino horren azpian UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea elkartu dira. Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritzako Eskola Nagusiak, Gipuzkoan kokatuak, ez du inolako partaidetzarik 2007-2010ean.
- **Zientzia eta Teknologia Eragileak (ZTEak):** termino horren azpian Zientzia eta Teknologikoa Euskal Sarekoak diren erakunde guztiak taldekatu dira, Unibertsitateak eta I+G Enpresa Unitateak salbuetsita.

Hiru talde horiez gainera, sail honetan FP7ko proiektuetan parte hartzen duten Euskal Erakunde Publikoen partaidetza-emaizak aipatzen dira.

Termino orokorretan, partaidetzen %58 ZTBESko Eragileei dagokie (itzulkin osoaren %63,7). Enpresa-sektorea partaidetzen %29 da (itzulkin osoaren %22,7), Unibertsitatea partaidetzen %10 (itzulkinen %8,7) eta Erakunde Publikoak %3 (itzulkinaren %4,9).

ZTBESko Eragileei dagokienez, Koaderno Estrategikoak markaturiko estrategia Teknologia Zentroen partaidetza bikainarekin, enpresen partaidetza haien traktore-papera sendotzen europar proiektuetan eta I+G+b europarrean oraindik parte hartzen ez duten Zientzia eta Teknologikoa Eragile berriak haietan txertatzen jarraitzean oinarrituta zegoen.

ZTBESko Eragileek 121,55 M€-ko itzulkin guztizko bat lortzen dute, 90 M€ lortzearen itzulkin-helburua hobetuz lehenaldi horretarako eta Euskal Eragile guztiek lortutako emaitzen %50eko kuota mantentzeko Koaderno Estrategikoan markatutako nagusitasuna gaindituz.

IK-4 eta Tecnaliako Teknologia Korporazioen Teknologia Zentroak dira nagusiki parte hartzen dutenak. Tecnaliaren partaidetza FP7ko proiektuetan Euskadiko partaidetza guztien %31,7 da eta %33,7 lotutako itzulkin globalean. IK-4 Teknologia Korporazioa partaidetzen %16 da eta Euskadiko itzulkin globalaren %17,2.

Begi-bistakoa izaten hasita dago Teknologia Zentroen trakzio-papera sendotzearen estrategia, gutxienez EEak azkenean finantzaturiko proiektuetan. ZZIT-enpresa arteko lankidetzaren ehuneko⁹ oraingoz %26,16an kokatzen da FP7an, eta horrek esan nahi du gutxi gorabe-

(9) ZZIT-enpresa lankidetzaren %-a: finantzaturiko proiektuen kopurua, zeinetan parte hartzen baitu Teknologia Zentro batek eta euskal enpresa batek Teknologia Zentroen partaidetza-kopuru guztizkoarekiko.

T.4.1 20 euskal erakunde gailenak FP7an (itzulkin-zifren arabera ordenatuak)

	Partaidetza-kop.	Lidergoak
Tecnalia	192	39
IK-4	97	18
UPV/EHU	48	25
Ikerbasque	2	2
CIC Nanogune	12	9
Grupo Iberdrola	15	1
Grupo Mondragón	13	1
ITP - Industria de Turbo Propulsores	9	0
VISESA - Vivienda y Suelo de Euskadi	2	0
CIC biomaGUNE	8	3
Grupo Innovalia	8	5
CTA - Centro de Tecnologías Aeronáuticas	6	0
Bizkaia Xede	1	0
Ibermatica	3	2
Donostiako Udala - Ayuntamiento de San Sebastián	1	0
BCAM - Basque Center for Applied Mathematics	1	1
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	2	0
Progenika	3	0
CEGASA - Celaya, Empanaza y Galdós	5	1
INGEMA	6	0

T.4.2 ZTBESko 15 Eragile gailenak FP7an
(itzulkin-zifren arabera ordenatuak)

	Partaidetza-kop.	Lidergoak
UPV/EHU	48	25
Inasmet	35	13
Labein	37	9
Fatronik	29	5
Tekniker	23	4
Ikerbasque	2	2
Robotiker	27	3
Tecnalia Corporación Tecnológica, A.I.E.	4	1
CIDETEC	16	3
IKERLAN	15	3
GAIKER	15	1
CIC Nanogune	12	6
ESI - European Software Institute	22	2
CEIT	13	2
AZTI	14	1

T.4.3 15 enpresa gailenak FP7a
(itzulkin-zifren arabera ordenatuak)

	Partaidetza-kop.	Lidergoak
Iberdrola Distribución Eléctrica	8	1
ITP - Industria de Turbo Propulsores	9	0
Ibermática	3	2
Progenika	3	0
CEGASA	5	1
Gaia	8	0
Asociación Innovalia	3	0
Fagor Electrodomésticos	3	0
Innoprot	2	0
Aernnova Engineering Solutions	3	0
Estarta Rectificadora	2	0
Dominion Pharmakine	1	0
Proteomika	2	0
Noray Bioinformatics	2	0
Microliquid	2	0

* ETEak, enpresa handiak, I+G enpresa-unitateak, enpresa-elkarteak/klusterrak.

hera onartutako lau proiektuetako batean euskal Teknologia Zentro batek eta euskal enpresa batek parte hartzen dutela.

Halaber, ohargarria da aldi horretan ZTBESko Eragile berriak FP7an parte hartzen hastearren helburua betetzea. Horren lekuko da CIC batzuen abiatze ona (partaidetzen %3,80 eta itzulkinaren %4,20 dira). BERC batzuen partaidetza ohargarria izaten hasita dago FP7an (partaidetzen %3 eta itzulkin osoaren %1,38). Azkenik, interesgarria da aipatzea Euskadiko Osasun Sistema nola hasi den bere ikerketa nazioartekotzen, FP7k finantzaturiko 5 proiektutan parte hartuz, eta 6tan DG SANCO programei dagokienez.

Euskal Unibertsitateek planteatutako helburua FP7ko bere jardueraren gehitze esanguratsua lortzen zentratzea zen, lortu gabeko 22 M€-ko itzulkinaren helburu bat finkatuz, zeren eta emaitza 16,59 M€-koa izan baita, baina haren jardueraren gehitze esanguratsua nabaritu da FP6koarekiko (10 M€), batez ere ideiak eta Pertsonak programei dagokienez (7 M€-ko Jarduera Berrietarako helburua gainditzea lortu dute, 9,09 M€-ko itzulkina lorturik). Azpimarratu behar da proiektu finantzaturiko %83 UPV/EHUaren kontura doazela.

Europar bezala, azken Esparru Programetan euskal enpresaburuaren presentziak jaitsiera mailakatu izan du, enpresa-partaidetzaren %61,6tik FP4an (itzulkinean %48) harik eta FP6ko %34raino (itzulkinean %32). Arrazoi horrengatik, Koaderno Estrategikoak planteaturiko erronka nagusietako bat FP7ari begira enpresak bere partaidetza-kuota berreskuratzea izan zen.

Horrela, bada, enpresa-partaidetza beherantz doala FP7an adierazten dute 2007-2010 aldiko datuek. Enpresa-partaidetak suposatzen du Euskadiko itzulkin globalaren %22,7 (43,22 M€), baina 2007-2010rako planteatutako helburua %33koa zen (56 M€).

Nahiz eta enpresen partaidetza-kopurua FP7an (177 partaidetza) FP6koen aldean txikiagoa izan (233 partaidetza), hala ere, 2007-2010ko enpresa-itzulkinak FP7an (43,05 M€) lortutako itzulkinak baino zertxobait handiagoa da FP6an lortuaren aldean (42,73 M€).

Erakunde Publikoen partaidetzak guztizkoaren %3 esanguratsua (itzulkinean %4,9) adierazten du programa oso desberdinetan tarteko direlarik, esaterako ERA-NETak, eraikuntza jasangarriarekin erlazionaturiko gai-proiektuak edo garraioko energia-efizientziarekin, Ezagutzaren Erregioak programaren proiektuak edo ikertzaileen mugikortasun-ekimenak Pertsonak programaren bitartez.

Azkenik, beste adierazle interesgarri bat FP7ko proiektuak zer Eragilek koordinatzen edo lideratzen dituzten jakitea da. Datu orokorrekin adierazten dute lidergoa %19,80an kokatzen dela, FP6ko lidergoaren emaitzak hobetuz (%13) baina artean zifra lortu gabe FP5ean (%25). Euskal Eragileen 606 partaidetzatatik lehen aldian, 120 proiekturen

liderrak Euskal Eragileak dira, nagusiki IK-4 eta Tecnalia Korporazioen Teknologia Zentroak eta UPV/EHU.

4.4.2.4. Ondorioak

Euskal Eragileen partaidetzak I+G VII. Europar Esparru Programak (FP7) finantzaturiko proiektuetan, 2007-2010 aldian, gainditu egiten ditu 'Euskal I+G+b European, Kuaderno Estrategikoa'n markaturiko itxaropenak.

Euskadik **195,77 M€**-ko itzulkin globala lortu du FP7 eta CIPerako, eta horietatik 5,03 M€ CIPi dagozkio.

Euskal erakundeek FP7an **190,74 M€**-ko itzulkinak lortu dituzte, 606 partaidetzarekin finantzaturiko proiektuetan. Horretara, euskal partaidetza %49,4 hazi da VI. Esparru Programan zehar lortutako itzulkinarekiko (131 M€), 8,8an Koaderno Estrategikoan planteatutako 180 M€-ko helburua gaindituz, gainera, FP7 eta CIParen globaltasunerako.

Partaidetzako helburu partzialak, Gaia/azpiprograma Koaderno Estrategikoan proposatuak, bete egiten dira **NMP, Energia, Ingurumena, Espazioa, Ideiak, Pertsonak eta Gaitasunak** (ETEen Onurarako Ikerketa azpiprograma baztertuz). **IKT** eta **Garraioak** ia lortu egin dituzte proposatutako helburuak. **KBBE** eta **Segurtasun** gaiak planteatutako itzulkinaren %50en gainetik geratzen dira, eta proposatutako helburuen %50aren azpitik geratzen dira bi Gai: Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak eta Osasuna.

Euskal partaidetzako hazkuntza esanguratsuen Gai/azpiprogramatan nabari da: *Pertsonak* (helburuak hirukoiztu egin ditu), *Ideiak* (helburuak bikoiztu egin ditu), *NMP* (%33 hazi da itzulkinan), *Ikerketa Azpiegiturak* eta *Ezagutzaren Erregioak*.

Nabarmentzekoa da Euskal Eragileen kokamendua, batez ere Teknologia Zentroetan, *Joint Technology Initiatives* (JTIak) eta *Public-Private Partnerships* (PPPak). gisako ekimen berrietan. Nabarmentzekoak dira **"Factories of the Future"** eta **"Energy Efficient Buildings"** PPPak eta **"ARTEMIS"** JTIa.

Enpresa-partaidetza (partaidetzen %50 ETEak dira) batez ere *NMP, Aeronáutica, IKT* eta *ETEen Onurarako Ikerketan* kontzentratzen da. Hala ere, euskal enpresek lortutako itzulkinak (43,05 M€) Koaderno Estrategikoak planteatutako helburuak ez ditu iristen (60 M€). Beharrezkoa da enpresa berriak sustatzen jarraitzea, batez ere tokiko edo nazioiko I+G proiektuetan background-a dutenak edo lankidetzatransnasionaleko proiektuetan dagoeneko parte hartu dutenak (ERA-NET, EKAK, etab.) jarduera berrien bitartez esaterako:

- Enpresei laguntza ematen beren ikerketa- eta berrikuntza-jardueren nazioartekotzean (proiektu banakoetatik/tokiko lankidetzatzen → ERA-NETeko proiektu transnasionaletara → FP7ko nazioartelankidetzako proiektuetara).

- "I+G+b europar proiektuen Kudeatzaileen" Prestakuntza Ikastaroak abiarazten.
- Enpresa-ZTBES arteko lankidetzat sustatzen.
- ETEen trakzioa enpresen aldetik FP7ren partaidetzat handiarekin.

Enpresen partaidetzat Teknologia Zentroen trakzio-papera sendotze-estrategiarekiko, gertaera hori begi-bistakoa izaten hasi da. **ZZIT-enpresa arteko lankidetzat-ehunekoa**¹⁰ une honetan %26,16an kokatzen da FP7an, eta horrek hau esan nahi du: gutxi gorabehera onartutako lau proiektutatik batek parte hartzen duela euskal Teknologia Zentro batean eta euskal enpresa batean.

ZTBESi dagokionez, Teknologia Zentroen partaidetzat lortutako itzulkin guztizkoaren %48 da eta euskal partaidetzen %50, aldi horretan gutzian. Azpimarratzekoa da Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) hazkuntza handi bat izan duela FP7ko bere partaidetzat (gutzizko itzulkinaren %7,85) FP6arekiko. CIC batzuk dagoeneko hasiak dira FP7ko proiektuetat parte hartzen, nanoGUNE eta biomaGUNE CICE partaidetzat nabarmentzen delarik. Gainera, interesgarria da aipatzea, nola nazioartekotzen duen Euskadiko Osasun Sistemak bere ikerketa FP7k finantzatutako 5 proiektuat parte hartuz eta DG SANCOren programetako 6tan.

Azkenik, beste adierazle interesgarri bat zer Eragile diren lider FP7ko proiektuetat jakitea da. Datu orokorrekin **lidergoa %19,80 kokatzen dela** adierazten dute, lidergoaren emaitzak hobetuz FP6an (%13) baino oraindik FP5ean zifra artean lortu gabe (%25). Euskal Eragileen 606 partaidetzetatik, lehen aldian, 120 proiektu Euskal Eragileak dituzte lider, batez ere IK-4 eta Tecnalia Korporazioen Teknologia Zentroak eta UPV/EHU. Euskal ETEak partaide dituzten proiektuen %11k haiek dituzte lider, batez ere NMP Gaian.

(10) ZZIT-enpresa lankidetzaren %-a: finantzatutako proiektuen kopurua, zeinetan parte hartzen baitu Teknologia Zentro batek eta euskal enpresa batek Teknologia Zentroen partaidetzat kopuru guztizkoarekiko.



LAUNCH-MICRO Proiektua: "MicroTechnologies for Re-launching European Machine Manufacturing SMEs". Partaideak: Soraluze, Ideko-ik4, Kendu, ONA Electroerosión, Mondragon Assembly eta Mondragon Unibertsitatea.

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011



**EUSKAL I+G+b-KO
PARTAIDETZAREN**
7. EUROPAR
ESPARRU
PROGRAMAREN
HELBURUAK
BERRIKUSTEA
(BIGARREN ALDIA:
2011-2013)

5.1. Sarrera	72
5.2. Metodologia	73
5.3. Gaikako berrikustea Euskal Herriko jardueran FP7an eta CIPen	74
5.3.1. Lankidetza	76
5.3.1.1. Osasuna	78
5.3.1.2. Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia (KBBE)	79
5.3.1.3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (ICT)	80
5.3.1.4. Nanozientziak, Nanoteknologia, Materialak eta Ekoizpen Teknologia berriak (NMP)	81
5.3.1.5. Energia	82
5.3.1.6. Ingurumena (Klima Aldaketa barne)	83
5.3.1.7. Garraioa (Aeronautika barne)	84
5.3.1.8. Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak	85
5.3.1.9. Espazioa	86
5.3.1.10. Segurtasuna	86
5.3.2. Gaitasunak	87
5.3.2.1. ETEen Onurarako Ikerketa	88
5.3.2.2. Gaitasunak Programako gainerako Alorrak	89
5.3.3. Ideiak	89
5.3.4. Pertsonak	90
5.3.5. Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programa (CIP)	90
5.4. Euskadiko jarduera berrikustea eragileka FP7an eta CIPen	91
5.4.1. Zientzia eta teknologiako eragileak	93
5.4.2. Unibertsitate Sistema	95
5.4.3. Enpresak	96
5.5. Euskadiko jardueraren berrikuste globala FP7an eta CIPen	97

5.1. Sarrera

Teknologia Ikerketa eta Garapeneko Zazpigarren Esparru Programak (FP7) Lisboako xedea betetzean zentratzen du bere zeregina, hau da, Europa munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzean 2013rako. Ezagutza-hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza trino-mioa da helburu hori lortzeko tresna nagusia. Euskal Eragileek Seigarren Esparru Programan (6EP) lortutako emaitzak Europar Batzordetik zetorren 131,26 M€-ko itzulkin finantzario batean gauzatu ziren¹. Zifra hori gehitu egin zen Zazpigarren Esparru Programako (FP7) lehen aldian (2007-2010), zeinean guztira 190,74 M€-ko itzulkinak lortu baitira (aldi horretarako 2006an finkatutako helburua 171 M€-koa izan zen.

Itzulkin-zifren gehikuntza %45ekoa izan da FP7ko lehen aldian FP6rekin erkatuta, eta horrek agerian jartzen du tarteko izan diren erakundeek egindako ahalegina euskal partaidetza mantentzen eta hobetzen I+G+b-ko Europar Programetan, horrela Euskadiren presentzia indartuz Ikerketako Europar Gunean (ERA).

Hala ere, Euskal enpresek lortutako itzulkinak aipaturiko Esparru Programetan, nahiz eta ia berdin mantendu diren balio absolututan FP6 eta FP7 bitartean, galdu egiten dute pisu erlatiboa euskal partaidetza globalean %33an murriztean enpresen presentzia gainerako eragileekiko FP6an %21eraino Zazpigarren Esparru Programako lehen aldian.

Unibertsitateak, bestalde, I+G+b-ko Europar Programetan agertutako partaidetza baxua izan du ezaugarri, eta nahiz eta presentzia gehituz joan zen, oraindik hori nabarmenki hobegarria dela esan daiteke.

Testuinguru honek dinamizatzeko ahalegin bat eskatzen die Europar I+G+b-n tarteko diren eragile desberdinei (Enpresa, ETE, CIC, Teknologia Korporazio, Unibertsitate, etab.), FP7ko (2007-2010) lehen aldian bultzatu zen era berean, FP7ko bigarren aldiari (2011-2013) aurre egiteko gorago jotzeko eta aukerak hobeto aprobeatzeko gogoarekin, hori eskatzen baitu I+G+b-ko Europar Programetan parte hartzeak.

Ekintza hau aurrera eramateko, beharrezkoa da euskal jardueraren birplanifikatzeko bat Europar FP7ren bigarren aldirako, helburu batzuk finkatuz, partaidetza koherenteko ikuspegi batzuk markatuko dituztenak, Euskal Herriko I+G+b-n tarteko diren aktore guztiak inplikatuz. Birplanifikatzeko hau Euskal I+G+b-aren Nazioartekotze Politikarekiko adostasunean burutuko da, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta eta FP7an Europar Batzordeak markatutako helburuekin.

FP7z gainera, I+G+b-ko Euskal Eragileek Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programan (CIP) ere parte hartzen dute, Europar Batzordeko Enpresa eta Industriaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen

duen horretan. Ildo horretatik, helburuak finkatuko dira Euskal Eragileentzat eta bi programetarako, hau da, bai FP7rako eta bai CIPerako.

FP7ren lehen aldiak (2007-2010) garrantzi handiko bi faktorek baldintzatzen duten agertoki berri bat izatearen ezaugarria du:

- 2007tik mundu-krisiak eragindako inpaktua.
- Finantzazio publikoak murriztea maila nazional eta erregionalean Estatu Kideetan.

Faktore horiek, Europako Batasuneko I+G+b programetan parte hartzera bultzatzen dutelarik, Zientzia eta Teknologiako Euskal sarearen egituraren bilakaerari elkartuta, FP6 amaitzean (2006) planteatutako I+G+b programetan euskal partaidetzaren helburuak berrikustea burutzeko beharera gidatzen dute. Ildo horretatik, dokumentu honetan Euskal Herriaren partaidetzaren helburuak eguneratu egiten dira FP7ren eta CIPen (2011-2013) bigarren aldirako.

Berrikuste honen helburua euskal erakundeen partaidetza zehatzago eta eguneratuago baten aurreikuspena lortzea da, FP7ren eta CIPen bigarren aldirako europar proiektuetan, zeinek emango baitie aukera erakunde horiei epe laburrera Europar I+G+b-ko euskal jardueraren plangintza burutzeko.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal I+G+b-aren partaidetzaren helburuen berrikustea burutu du 2011-2013 hirurtekorako, zeren eta beharrezkoa baita I+G+b-aren euskal partaidetza Zazpigarren Esparru Programan (FP7) eta Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programan (CIP) 2011-2013 aldian zuzen egituraturik egotea, ahalik eta inpaktu handiena lortzeko xedearekin euskal teknologia eta enpresaren sektoreen inplikazioan Europar Ikerketa Gunean (ERA).

FP7n txertatutako jarduera horien plangintza lau Programa desberdinetan antolatzen da: Lankidetzak, Gaitasunak, Ideiak eta Pertsonak. FP7ko (2007-2013) programa guztientzako Europar Batzordeak bideratutako aurrekontu globala 50.521 M€-koa da. Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programak (CIP), 3.621 M€-ko aurrekontuarekin, zehar-izaerako programa bat izatearen ezaugarria du FP7ko Gai desberdinak bere barruan hartzen dituelarik, haren funtzionamendua sinplifikatzeko aukera emanez. Zazpigarren Esparru Programarako eta CIPerako hornidura ekonomikoak **(1.5.1)** laukian agertzen direnak dira.

(1) Kapitulu honetako zifrak Milioika Eurotan erakusten dira (M€).

T.5.1 EEaren aurrekontua FP7 eta CIPerako (M€)

I+G+b-aren Zazpigarren Esparru Programa	50.521
Lankidetzeta Programa	32.413
Osasuna	6.100
Elikadura	1.935
IKT	9.050
NMP	3.475
Energia	2.350
Ingurumena	1.890
Garraioa	4.160
Sozio-ekonomia	623
Espazioa	1.430
Segurtasuna	1.400
Gaitasunak Programa	4.097
ETeen Zerbitzurako Ikerketa	1.336
Gainerako Alorrak	2.761
Ideiak Programa	7.510
Pertsonak Programa	4.750
JRC - Joint Research Centre	1.751
Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programa (CIP)	3.621

5.2. Metodologia

2011-2013 aldiko jardueren plangintza burutzeko metodologia bat diseinatu da, zeinek enpresa, elkarte, kluster, teknologia-zentro eta unibertsitateen partaidetza-ikuspegitik errealismoz ezartzen baititu helburu posibilista batzuk Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako eragile desberdinek lortzekoak. Ondoren deskribatuko dira helburua berrikustearen prozesua osatzeko eman diren pausoak.

1. Pausoa

Europar mailan I+G+b-ko jardueretan tarteko diren Euskal Eragileen itxaropenak ezagutzeko asmoarekin, FP7ren lehen aldira (2007-2010) bezala, **FP7ren 2011-2013 Jardueraren Plangintza Galdeketa** batzuk prestatu dira. Galdeketa horietan, norbanako-mailan, 2006an egindako kalkuluak adierazten ziren, Euskal I+G+b Europan, Koaderno Estrategikoa prestatu baitzen urte hartan. Hartara, erraztu egiten zen 2011-2013 aldirako aurreikuspen berrien planteamendua.

FP7ko Jarduera Plangintzako Galdeketa horiek lau lauki zituzten eta haietan honako informazioa zetorren atxikita:

- I. Laukiak 2006an planteatutako helburuak agertzen zituen FP7ko lehen aldirako (2007-2010).
- II. Laukiak lehen aldi horretarako (2007-2010) eragileek lortutako emaitzak zekartzan.
- III. Laukiak 2006an planteatutako helburuak xehatzen zituen FP7ren bigarren aldirako (2011-2013).
- IV. Laukia hutsik zegoen FP7ren bigarren aldirako (2011-2013) eragileek beren kalkuluak sar zitzaten diseinaturik zegoen, lehen aldirako beren esperientzia begien aurrean zutela.

Galdeketa horiek 2006ko Inkestan parte hartu zuten eragile guztiei banatu zitzaizkien eta FP7ko lehen aldira proiektuetan partaidetza bat izan zuten guztiei.

2. Pausoa

IV. Laukian inkestatutako eragile bakoitzak proposatutako kalkuluak analizatu ziren eta Galdeketa jasotako informazio Programa eta Gaika (Gai-inputa) eta eragile motaka (Egitura-inputa) egituratu da.

Guztira ziren 238 inkestatik, **204 galdeketa** jaso ziren; erantzunen banaketa honako hau da:

- 51 galdeketa Zientzia eta Teknologiako Eragileenak:
 - Teknologia Korporazioenak (19).
 - CICak (6).
 - Zientzia eta Teknologiako beste Eragile batzuenak (26).

- Unibertsitate Sistemako 7 galdeketa:
 - Unibertsitateak (3).
 - BERCak (3).
 - Ikerbasque (1).
- 133 galdeketa Enpresenak:
 - ETEak (83).
 - Enpresa Handiak (50).
- 13 galdeketa Beste Erakunde batzuenak.

3. Pausoa

Aipaturiko IV. Laukian berrikusitako helburuekin eta FP7ko (2007-2010) lehen aldiaren lortutako emaitzekin, helburu batzuk finkatu dira Programa, Gai eta Eragile motaren arabera. Lehen aldiko emaitzak Innobasquek kudeatutako behatokitik jasota daude, zeinek monitorizatzen baitu Euskal Eragileen partaidetza Esparru Programetan, eta zeinak, gerora, kontrastatu egin baitira Industriaren Garapen Teknologikorako Zentroaren (CDTI) informazioarekin.

Metodologia horri jarraituz eta bigarren aldirako (2011-2013) finkatutako helburu berriak aurkezteko asmoarekin, kapitulu hau honako sailotan egituratzen da:

- Euskal Herriko Jardueraren Gaikako Berrikustea FP7n eta CIPen.
- Euskal Herriko Jardueraren Eragilekako Berrikustea FP7n eta CIPen.
- Euskal Herriko Jardueraren Berrikuste Globala FP7n eta CIPen.

5.3. Euskal Herriko Jardueraren Gaikako Berrikustea FP7n eta CIPen

FP7ko 2011-2013 Jardueraren Plangintza Galdeketatik lortutako emaitzetan oinarrituta, 2011-2013ko bigarren aldiaren berrikusitako helburuak aurkezten dira Programa eta Gai bakoitzerako. Halaber, ikuspegi orokorrago bat emateko asmoarekin, FP6n Euskal partaidetzak izandako emaitzak erakusten dira eta FP7ren lehen aldiari buruzko datuak (2007-2010).

Sail honek Ikerketa eta Teknologia Garapeneko Zazpigarren Esparru Programaren (FP7) egitura bera jarraitzen du, hau da, 4 Programa nagusi, dagozkien Gai-banaketaekin, eta Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programa (CIP):

- Ikerketa eta Teknologia Garapeneko Zazpigarren Esparru Programa.
 - Lankidetzak:
 - Osasuna.
 - Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia.
 - Informazio eta Komunikazioko Teknologia (IKT).
 - Nanozientziak, Nanoteknologia, Materialak eta Ekoizpen Teknologia berriak (NMP).
 - Energia.
 - Ingurumena (Klima Aldaketa barne).
 - Garraioa (Aeronautika barne).
 - Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak.
 - Espazioa.
 - Segurtasuna.
 - Gaitasunak:
 - Ikerketa ETEen Onurarako.
 - Gaitasunak Programako Gainerako Alorrak.
 - Ideas.
 - Ideiak.
- Esparru Programa CIP.

Informazioa aurkezteko modua (**6.5.1**) grafikoan erakusten da: *Datuak bistaratzeko ereduak*. Bertan biltzen dira FP6ren emaitzak, FP7ren lehen aldiko (2007-2011) emaitzak eta FP7ren bigarren aldirako (2011-2013) planteatutako helburuak, era bateratuan erakutsiz bai 2006an planteatutako helburuak eta bai oraingo berrikustekoak.

Datuak honako iturrietatik datoz:


- **FP6:** *Euskal I+G+b Europan, Koaderno Estrategikoa*.
- **Emaitzak FP7/CIP:** Innobasqueren Behatokia, 2011ko maiatza.
- **Helburuak FP7/CIP:** *Plangintza Galdeketak (2011-2013) FP7* eta Eusko Jaurlaritzakoak.
- **Estatuaren Itzulkina:** CDTI.

G.5.1 Datuak bistaratze-eredua

Emaitzak
FP6an lortuak

Emaitzak
FP7 eta/edo CIPeko
2007-2010 aldian
lortuak

Helburuak
FP7 eta/edo CIPeko
2011-2013 aldirako



FP7k Gai honetara bideratutako guztizko aurrekontua. Itzulkinak adierazten duen ehunekoa Gaiaren guztirako aurrekontuarekiko.

Emaitzak FP6n, FP7n eta/edo CIPen lortuak (2007-2010).

Helburu berrikusiak F7 eta/edo CIPeko (2011-2013) aldirako eta **Helburu planteatuak** aldi horretarako 2006 urtean.

Gaioak izan daitezkeen **JTI** eta/edo **PPP**ei dagokien informazioa.

FP6 eta FP7n lortutako **itzulkinen bilakaerari** dagozkion grafikoak eta **Helburu berrikusiak**.

Grafiketan desberdindu egiten dira **Gaien** emaitza globalak **JTI**ek eta/edo **PPP**ek dituztenetatik, hala dagokionean.

Lortutako itzulkinen bistaratze grafikoak, zeinean puntu bakoitzak 100.000 € irudikatzen dituen, emaitzen bistaratzea sinplifikatzeko.

JTIei eta PPPei buruzko informazioa haren margo desberdinduta aurkezten da eta Gaiaren orokorrean txertaturik.

5.3.1. Lankidetzeta

Lankidetzeta Programa, 32.413 M€-ko erkidego-aurrekontuarekin FP7ren zuzkidura handieneko Programa da, eta haren guztizko aurrekontuaren %64 da (50.521 M€). Haren funtsezko zeregina ikerketa-lankidetzeta sustatzea da europar herrialdeen eta beste herrialde kide batzuen artean. Lankidetzeta Programak ikerketa sustatzearen bidez garapen jasagarriari laguntzea finkatzen du helburu nagusizat eta, horretarako, hamar Gai desberdinetan egituratzen da (FP6n Gai Alor deitzen zitzaien) barruti teknologiko eta zientifiko funtsezkoiei buruzkoak.

Ondoren, (G.5.2) grafikoan FP6ko lankidetzeta Programan lortutako emaitza globalen erkaketa bat aurkezten da 2007-2010 aldian lortutako emaitzekin eta FP7ko 2011-2013 aldian finkatutako helburuekin batera.

Itzulkin globalek, hau da, Europar Erkidegotik jasotako diru-laguntzek emaitza baikor bat erakusten dute, izan ere FP7ko lehen aldian (2007-2010) %40an gainditu baita FP6ko finantzatzeko guztizkoaren zifra, aldi horretan 140,45 M€ itzulkin bat lortzean 453 euskal partaidetzarekin europar proiektuetan, haietarik 72 proiektu-lider izan direlarik.

Bigarren aldirako planteatutako Euskal Eragileen aldetik betetako galdeketen analisis bidez finkatutako helburuei dagokienez, zifrak oraindik anbiziotsuagoak dira, 163 M€-ko finantzazio-zifra kalkulatu bat finkatuz, guztira 469 partaidetzarekin proiektutan, eta haietatik 163 izango ziren lider. Ikus (G.5.2) *Lankidetzeta Programa: FP6, FP7 (2007-2010) Emaitzen banakatzea eta FP7rako Helburuak (2011-2013)*.


Bestalde, FP7ko lehen aldian zehar bi ekimen berri jarri dira abian Lankidetzeta Programan, eta horiek JTIak (Baterako Ekimen Teknologikoak) eta PPPak (Partenergo Publiko-Pribatuak) dira. Bi ekimen berri horiek ere kontuan hartu dira hurrengo FP7 aldiko (2011-2013) helburuak finkatzerakoan, eta hori era desberdinduan xehatzen da honako dokumentu honen analisisan.

(T.5.2) eta (T.5.3) Laukiek hurrenez hurren erakusten dituzte JTIen eta PPPen korrespondentziak Lankidetzeta Programa osatzen duten Gai desberdinekin.

Ondorengo sailetan aurkezten dira euskal partaidetzari buruzko datuak Lankidetzeta Programan hura osatzen duten hamar Gaietako bakoitzeko. Gai horietan, (G.5.1) *Lankidetzeta Programa* grafikoan aurkeztu den bezala, honako hauek adierazten dira:

- FP6n lortutako emaitzak.
- FP7n (2007-2010) lortutako emaitzak.

G.5.2 Lankidetzeta Programa. Emaitzen banakatzea: FP6, FP7 (2007-2010) eta Helburuak FP7 (2011-2013)



T.5.2 FP7ko JTIen zerrenda

Gaia	JTI
Osasuna	IMI - Innovative Medicine Initiative
Informazio eta Komunikazio Teknologia	ARTEMIS
	ENIAC
Energia	FCH - Fuel Cells Hydrogen
Garraioa	Clean Sky

T.5.3 FP7ko PPPen zerrenda

Gaia	PPP
Nanozientziak, Nanoteknologia, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak	FoF - Factories of the Future
	EeB - Energy Efficient Buildings
Garraioa	Green Cars

- I+G+b jardueraren helburuak FP7ren bigarren aldirako (2011-2013), aurkeztuz bai 2006an egindako aurreikuspena eta bai oraingo helburu-berrikusteari dagokiona.

Beren barrutian JTI edo PPPren bat duten Gaiak kasuan, ekimen horiei dagozkien zifrak auziko Gaiari dagozkion zifra globaletan sartuta aurkezten dira, baina horrek ez du eragozten, gainera, dagokion Laukiaren behealdean era berezian aurkeztuak izatea xehetasuna ezagutzeko.

5.3.1.1. Osasuna

Osasuna Gaiak FP7ko erkidego-aurrekontuaren %19 hartzen du Lan-kidetza Programarako guztira 6.100 M€-ko balioarekin, eta horrek bigarren postuan kokatzen du hornidura ekonomikoari dagokionez. Gertaera horrek, Ikerketa Zentro Kooperatiboen (CIC) jarduera sendotzeari batuta teknologia-barruti honetan, konfiantza sortzeko aukera ematen du Euskal Eragileen partaidetzan hobetze garrantzitsu bat lortzeko FP7ren bigarren aldirian zehar.

Hobetze beharrezko bat da zeren eta lehen aldiko emaitzak, 4,43 M€-ko itzulkin batekin, FP6an lortutako emaitzen lerro jarraikorra bakarrik markatu baitu, nahiz eta eskura dagoen aurrekontuak hazkuntza garrantzitsua izan (200%).

Kontuan izanik Osasuna Gairako gorde den aurrekontu-hornidura handiagoa FP7an FP6rekin erkatuta, FP7aren bigarren aldirako helburu gisa ezarri da 8 M€-ko finantzazio kalkulatu bat, hau da, gai horretarako Europar Batzordeak bideratutako aurrekontu osoaren %0,13 (6.100 M€). Proposatutako helburuak aurreuposatzen du euskal erakundeen 25 partaidetza burutzen direla proiektutan, eta horietatik 4 I+G+b-ko eragileak izango lituzkete lider (ikus (G.5.3.) Osasuna Gaia).


FP7ren bigarren aldirako 8 M€-tan finkatutako itzulkin-helburuak %18ko gehikuntza ekarriko luke 2007-2010eko lehen aldirian lortutako itzulkinaren aldean (4,43 M€) eta %78 FP6an lortutakoaren aldean (4,5 M€).

Osasuna Gaiak JTI "IMI" (**Innovative Medicines Initiative**), txertatzen du bere barrutian eta haren helburua zehazten da 0,27 M€-ko itzulkin-proiektu kalkulatu batean (ikus (G.5.3.) Osasuna Gaia).

G.5.3 Osasuna Gaia



G.5.4 Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia Gaia (KBBE)



* 3,74 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %7,47 adierazten du.

5.3.1.2. Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia (KBBE)

Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia Gaian euskal partaide-tzak hobetu egin ditu bere emaitzak FP7ko lehen aldian, 3,74 M€ko itzulkin lortu batekin FP6an lortutako 1,77 M€-ren aldean, %111ko hazkuntza iritsiz.

Euskal Eragileen aurreikuspenen analisiaren ondoren FP7an 6 M€-ko helburua lortzea finkatu da, hau da, Gai horretara Europar Batzordeak bideratzen duen aurrekontu osotik %0,31 (1.935 M€). Era berean, planteatutako helburuak aurreikusten du euskal erakundeen 19 partaidetza eta 3 lidergo burutuko direla (ikus **(G.5.4) Elikadura, Nekazaritza eta Bioteknologia Gaia**).

2007-2010eko lehen aldian lortutako itzulkina 3,74 M€-koa izan zela kontuan izanik, 6 M€-ko helburua lortzeak %60 hazkuntza ekarriko luke aipaturiko aldiarekiko eta %239koa FP6koarekiko (1,77 M€).

5.3.1.3. Informazio eta Komunikazioko Teknologiak (IKT)

Informazioaren Gizarterako Teknologiak Gaiari dagokion teknologia-esparruak batere gutxiestekoak ez diren itzulkin-zifrak lortu izanak ezaugarritu du. Hala ere, errealitatea bat da, Gai horretara bideratutako funts garrantzitsuak erabili direlarik (Lankidetzeta Programako aurrekontu handiena, haren %28 hartzen duena, guztira 9.050 M€-rekin) eta Euskal Herriko industriak duen egiturarekin. IKTen Euskal sektoreak itzulkin horiek nabarmen gehitzeko gai izan beharko luke.

Beraz, FP7ren lehen aldiran lortutako emaitzek eta erkidegoak duen aurrekontu osoaren tamainak akuilatu egin beharko lukete Euskal Eragilean jarduera eta hazkuntza garrantzitsu bat lortu FP/ren bigarren aldirako. Pizgarri hori nabaria da lehen aldirako lortutako euskal itzulkinen duten pisua behatzean Europako Batasunera bideratutako aurrekontu osoarekiko, %0,28, eta bigarren aldirako haren hazkuntza kalkulatu, %0,44 lortuz.


FP7ren bigarren aldirako 40 M€-tan finkatutako itzulkin-helburuak %57ko gehitze bat ekarriko luke 2007-2010eko lehen aldirako lortutako itzulkinarekiko (25,51 M€) eta %67 FP6an lortutakoarekiko (24,01 M€) (ikus **(6.5.5) Informazio eta Komunikazio Teknologiak Gaia**).

Informazio eta Komunikazioko Teknologien Gaiak bi JTI txertatzen ditu bere zifra globalen barruan:

- ARTEMIS: **Advanced Research and Technology for Embedded Intelligence and Systems.**
- ENIAC: **European Nanoelectronics Initiative Advisory Council.**

“ARTEMIS” JTIrako 4,96 M€-ko itzulkineko helburu batzuk finkatzen dira, guztira 23 partaidetzatan lortuak eta proiektu baten lidergoa “ENIAC” JTIrako, 0,35 M€-ko itzulkin baten helburuak finkatzen dituzte guztira 2 partaidetzarekin.

6.5.5 Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak Gaia





* 25,51 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %7,18 adierazten du.

6.5.6 Nanozientziak, Nanoteknologiak, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak (NMP) Gaia

FP6

Emaitzak
Proiektuak: 124
Lidergoak: 13

34.750.000 €



● 100.000 € ● FP ● FP - PPPs ● FoF ● EeB

* 53,23 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %32,68 adierazten du.

5.3.1.4. Nanozientziak, Nanoteknologiak, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak (NMP)

Nanozientziak, Nanoteknologiak, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak Gaiak guztira 3.475 M€-ko aurrekontuarekin FP7an (%10,72), laugarren postua hartzen du lankidetzeta Programako Gaien artean aurrekontuaren garrantziari dagokionez. Gai hori da itzulkin eta partaidetza handienak lortzen dituen I+G+b-ko Euskal Eragileen artean, Euskal Herriaren soslai teknologikoak etengabe markatutako konstantea mantentzen duelarik FP1etik hasita.

Errealitate horrekiko koherentzian, NMP Gaian jardueraren emaitzek FP7aren lehen aldiaren hazkuntza indartsu bat erakutsi dute (%53) aurreko Esparru Programan (FP6) lortutako emaitzen aurrean 53,23 M€-ko itzulkinak lortzean beraren 34,75 M€-ean aurrean.

Galdeketen analisiaren ondoren 51 M€-ko itzulkinak lortzea jarri da helburutzat, hau da, Europar Batzordeak Gai horretan bideratutakotik %1,47 lortzea (3.475 M€), 152 partaidetzako aurreikuspen batekin eta 25 proiekturen lidergoa (ikus **(6.5.6) Nanozientziak, Nanoteknologiak, Materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak Gaia**).

NMP Gaian aurkeztutako zifrak xeheki aztertzen badira FP7ko bigarren aldirako Euskal Eragileen finantzazio-aurreikuspenak nola murrizten diren nabari da 2007-2010 aldiarekiko. Hala, 51 M€-ko zifratik abiatu-rik Gai horretan helburu bezala euskal I+G+b-rako gai honetan FP7ren bigarren aldirako, itzulkinaren %4ko jaitziera bat gertatuko litzateke FP7ko (2007-2010) lehen aldiaren lortutako emaitzekin (53,23 M€) alderatuta. Zirkunstantzia hori ulergarri da baldin eta kontuan hartzen bada ahaleginaren gehitze bat aurreikuspen bada ere, berez oso handia dena, bigarren aldia (2011-2013) 3 urte soilekoa dela lehen aldiak izan zituen 4 urteren aldean (2007-2010); hau da, 2007-2010 aldiaren batez beste urtean lortutako itzulkina 13,31 M€-koa da, eta FP7ren bigarren aldirako, berriz, urtearen batez beste 17 M€-ko itzulkina lortzea planteatzen da helburutzat.

NMP Gaiak bi PPP txertatuak ditu bere zifra globaletan:

- FoF: **Factories of the Future.**
- EeB: **Energy Efficient Buildings.**

“Factories of the Future” PPPrako 28 partaidetzako helburu batzuk finkatzen dira guztira itzulkinetan 8,93 M€ emango litzatekeen eta 3 proiekturen lidergoa. “Energy Efficient Building”en kasuan finkatutako helburuak 21 partaidetza eta, 5,56 M€-ko itzulkin kalkulatuak dakartzaten eta 2 proiekturen lidergoa.

5.3.1.5. Energia

Energiaren barrutiak, FP6an “Garapen Jasangarria, Aldaketa Globala eta Ekosistemak” Gai Alorraren barruan kokaturik zegoenak, garrantzi handiagoa hartzen du FP7an Gai bereki bihurtuz 2.350 M€-ko aurrekontuarekin.


Zirkunstantzia hori aukera handi bat bezala aurkezten da gero eta partaidetza handiagoa lortzeko Gai honetan Euskal Eragileen aldetik. Horren froga dira FP7ren lehen aldian lortutako 18,79 M€ak, FP6an lortutako itzulkinarekiko %48 adierazten dutenak.

Hartara, jasotako galdeketetatik finkatutako helburuek joera jarraikorra bat markatzen dute baina zertxobait gorantz jotzen duena aurreikusitako emaitzetan FP7ko bigarren aldirako, nahiz eta kontuan izan FP7ren bigarren aldiaren iraupena hiru urtekoa bakarrik dela lehenak zuen hiru urteko iraupenaren aldean. Hau da, Energia Gaiak planteatutako jarduera-helburuak 2011-2013ko bigarren aldian, 20 M€-ko gutzitzko itzulkinetan finkatzen dira. Zifra horrek %0,85 esan nahi du Europar Batzordeak Gai horri bideratzen dion aurrekontutik (2.350 M€). Ildo horretatik, aurreikusitako itzulkinak Euskal Eragileek europar proiektuetako 53 partaidetzako helburuari dagozkio eta haietako 6ren lidergoari (ikus **(g.5.7) Energia Gaia**).

Hala, 20 M€-ko itzulkin-zifratik abiatuta FP7ko bigarren aldirako helburu bezala, jardueraren %6 bat lortuko litzateke lehen aldian lortutako emaitzekiko (2007-2010) (18,79 M€). Bestalde, helburua betetzeak %57ko gehitzea ekarriko luke FP6an lortutako itzulkinarekiko (12,72 M€).


Energia Gaiak bere barrutian txertatzen du “FCH” (**Fuel Cells and Hydrogen**) PPPa, zeinen helburuak 2 partaidetzatan gauzatu baitira, 2011-2013 aldirako guztira kalkulaturako 53tik Gai osorako, haiekin 0,51 M€-ko itzulkinak lortzeko.

6.5.7 Energia Gaia



* 18,79 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %17,15 adierazten du.

G.5.8 Ingurumena Gaia



* 5,95 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %12,2 adierazten du.

5.3.1.6. Ingurumena (Klima Aldaketa barne)

Europako Batasunaren asmo sendoa ingurumen-gaiekiko argi eta garbi ageri da 1.890 M€ ((FP7rako Lankidetzeta Programaren aurrekontu osoaren %5,83) eskusiboki bideratzean **Ingurumena Gaira**; aldiz, FP6an 1.700 M€ bideratzen ziren “Garapen jasangarri, Aldaketa Global eta Ekosistemak” Gai Alorrera, zeinek, gainera, bere baitan hartzen baitzituen Azalera Garraioa, Energia eta Gobernantza azpi- alorrak.

Bulkada hori FP7ko lehen aldian Euskal Eragileek lortutako Ingurumena Gaiaren jarduera-emaitzetan islaturik ageri da, hobetze nabaria ageri delarik, 5,95 M€-ko itzulkinekin FP6an lortutako 0,65en aldean, %963ko hazkuntza markatuz.

Hala ere, Galdeketetan planteatutako kalkuluek aukera ematen dute helburu bezala 6 M€-ko finantzazio oso bezala finkatzeko, hau da, Europar Batzordeak Gai horretarako bideratzen duen aurrekontu guztizkotik %0,32 (1.890 M€). Itzulkinen 6 M€-ek adierazten dute euskal erakundeen 23 partaidetza lortzea, eta 3 proiekturen lidergoa (ikus **(G.5.8) Ingurumena Gaia**).

5.3.1.7. Garraioa (Aeronautika barne)

FP7k lehen aldiz integratzen ditu garraio mota guztiak Gai bakar batean. Egia bada ere garraioarekin zerikusia duten euskal erakundeen proiektuetan gero eta gehiago parte hartzen dutenak I+G+b-ko ahalmen eta kultura handiko enpresa handiak direla, Teknologia Zentroen presentzia garrantzia irabazten ari da.

Garraioa Gairako jardueraren emaitzek FP7aren lehen aldiaren, goranzko joera bat erakusten dute 22,34 M€-ko itzulkinak lortzean FP6an lortutako 18,07 M€-ekiko, horrela %24ko hazkuntza bat lortuz.

Galdeketen analisiaren ondoren, Garraioa Gaian helburu bezala finkatu da FP7ko bigarren aldirako 26 M€ itzulkin lortzea 55 partaidetzaren eta 3 lidergoren bitartez. 26 M€-ko itzulkin kalkulatu horrek Europar Batzordeak Gai horretarako bideratutako aurrekontu osoaren %0,63 adierazten du (4.160 M€) (ikus **(G.5.9) Garraioa Gaia**).

Gai honetan jasotako teknologia-desberdintasuna, bi azpi-aldorretan identifikatu da:

- Aeronautika.
- Automozioa, Trenbidea eta Itsas Garraioa.

Ildo horretatik, 2011-2013 aldirako helburua 17,16 M€-ko europar finantzazioa lortzea da "Aeronautika" proiektuetan eta 8,84 M€ "Automozioa, Trenbidea eta Itsas Garraioa" proiektuetan. Aurreikuspen horiek euskal erakundeen 36 eta 19 partaidetza adierazten dute.


26 M€-ko itzulkinaren kalkulu horretatik abiatuz %16ko euskal jardueraren hazkuntza bat lortuko litzateke FP7ren bigarren aldiaren lehen aldiaren 2007-2010 lortutako emaitzekiko (22,34 M€). Bestalde, helburu hori betetzeak %44ko hazkuntza esan nahiko luke FP6an lortutakoaren aldean (18,07 M€) (ikus **(G.5.9) Garraioa Gaia**).

Garraioa Gaiak bere zifra globaletan JTI bat eta PPP bat integratzen ditu:

- JTI: **Clean Sky**.
- PPP: **Green Cars**.


JTI "Clean Sky"ren kasuan 5 partaidetzako helburu batzuk finkatzen dira guztira 8,51 M€-ko itzulkinak ekarriko litzatekeenak eta PPP "Green Cars-entzat" 4,64 M€-ko itzulkinak 12 partaidetzarekin eta proiektuetako baten lidergoarekin lortuko liratekeenak.

G.5.9 Garraioa Gaia



* 22,34 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %26,98 adierazten du.

G.5.10 Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak Gaia



5.3.1.8. Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak

Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak gaia Europako Batasunarentzat gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den barruti bat da, 623 M€-ko esleipen bat FP7rako Lankidetzeta Programaren aurrekontu osotik egin izanak erakusten duenez, izan ere FP6an 247 M€ bakarrik esleitu ziren “Hiritarrak eta Gobernantza Ezagutzen oinarritutako Gizarte batean” Gai Alorrean.

Gertaera honek “Gizarte Zientzien eta Humanitateen” barrutia gorantz datorren sektore bat bezala aitortzen du, ikerketa aplikatu eta berritzailean laguntza behar duena bezala, izan ere gizarteari egiten dion transferentziaren bidez, erakundeen kudeaketako gaurko eta geroko arazoak, nola pribatuak (enpresak) hala publikoak (Erakundeak) konpontzeko aukera ematen du.

Nahiz eta sozio-ekonomiarekin zerikusia duten gaiekiko euskal partaidetza ez den garrantzitsua izan, FP7ko lehen aldirian Gizarte Zientziak eta Humanitateekiko jardueraren emaitzek hobetze garrantzitsua erakusten dute, 1,09 M€-ko itzulkinekin FP6an lortutako 0,75 M€-koekin alderatuta, %45eko hazkuntza markatuz.

Ildo horretatik Galdeketeran jasotako informazioek emaitza positiboak ematen dituzte, FP7ko bigarren aldirian barruti sozioekonomikoan jardueraren gehitze bat dakarten helburuak finkatzea ahalbidetzen dutenak, guztira 2 M€-ko finantzazioa lortu arte, hau da, Europar Batzordeak Gai honi esleitutako aurrekontu osoaren %0,32 (623 M€) (ikus **(G.5.10) Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak Gaia**).

Gai honetarako 2 M€-ko itzulkinetik abiatuz FP7ko bigarren aldirian, jardueraren %83ko hazkuntza lortuko litzateke Euskal Herrian 2007-2010eko lehen aldirian lortutako emaitzekiko (1,09 M€). Bestalde, helburua betetzeak %167ko hazkuntza ekarriko luke, FP6an lortutako itzulkinarekiko (0,75 M€).

5.3.1.9. Espazioa

Espazioa Gaiak, urtean 1.430 M€-ko aurrekontu osoarekin GMES (Ingurumena eta Segurtasunaren Mundu Zaintza) aplikazioetan ari den Europar Espazio Programari lagundu nahi dio, zeinen xedea hiritarrei eta Europar espazio industriaren lehiakortasunari mesede egitea baita. Jarduera honek Europar Espazio Politikari garatzen laguntzea bilatzen du, Estatu Kideen, Europar Espazio Agentzia barne dela, eta beste eragile nabarmen batzuen lana osatuz.

Galdeketen analisiak 2010-2013rako euskal jardueraren helburu bezala 2M€-ko itzulkin bat finkatzeko aukera ematen du, hau da, Europar Batzordeak aipaturiko Gaira bideratutako aurrekontu osoaren %0,14 (1.430 M€). Itzulkin hori Espazio-proiektuetan euskal erakundeen 4 partaidetza lortzean oinarritzen da (ikus **(G.5.11) Espazioa Gaia**).

Itzulkinaren 2 M€-ko zenbateko horretatik abiatuta Espazio Gaiaren helburu bezala FP7ko bigarren aldian, jardueraren %17ko murrizte bat gertatuko litzateke 2007-2010eko lehen aldian euskal I+G+b-ak lortutako emaitzekiko (2,41 M€). Kontuan izan behar da aldiaren urte-ko-purua lautik hirura murrizten dela, horregatik egiazki bigarren aldiko urteko ahalegina lehendabizikoaren aldean handiagoa da, hartara, 2007-2010 aldian batez besteko 0,6 M€-ko urteko itzulkina lortu ondoren, FP7ren bigarren aldirako finkatzen den helburuak urteko batez besteko zifra 0,66 M€-raino gehitzen dela esan nahi du.


5.3.1.10. Segurtasuna

Segurtasuna Gaiak Europar Batzordearen 1.400 M€-ko aurrekontu osoarekin terrorismoa eta delinkuentziaren mehatxuen aurrean europar hiritarren segurtasuna bermatzeko beharrezko gaitasuna sortzeko teknologiak eta ezagutzak garatzeko asmoa du. Halaber, hondamendi naturalen edo ezbehar industrialen gertaeren inpaktuari eta ondorioei aurre egiteko asmoa dago, aplikazio zibiletan zentratuz.

Gai honetarako finkatutako jarduera-helburuak FP7ko bigarren aldian, Euskal Eragileek betetako Galdeketen analisiaren ondoren 2 M€-ko europar finantzazio bat lortzean datza, hau da, %0,14 Europar Batzordeak Gai honi esleitutako aurrekontutik (ikus **(G.5.12) Segurtasuna Gaia**).


2 M€-ko zifra horretatik abiatutik Gai honetarako Euskal Eragileen helburu bezala, jardueraren %30eko murrizte bat gertatuko litzateke 2007-2010 lehen aldiko emaitzekiko (2,86 M€), bigarren aldiak hiru urteko iraupena bakarrik duela ahaztu gabe, lehenak dituen lau urteen aurrean.

G.5.11 Espazioa Gaia




* 2,41 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %12,07 adierazten du.

G.5.12 Segurtasuna Gaia:




* 2,86 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %6,6 adierazten du.

G.5.13 Gaitasunak Programa



G.5.14 Gaitasunak Programaren laburpena



5.3.2. Gaitasunak

Gaitasunak Programak Europa osoan ikerketa eta berrikuntza bultzatzea du helburu eta horretarako Europar Batzordeak 4.097 M€ko aurrekontua bideratu du. Ildo horretatik, hau proposatzen du Programak:

- Politiken garapen koherenteari laguntzea.
- Lankidetzeta Programa osatzea.
- Erkidego-politika eta -ekimenei laguntzea Estatu Kideen politiken koherentzia eta inpaktua hobetzeko.
- Sinergiak bilatzea erregio- eta kohesio-politikekin, Egitura Funtsekin, hezkuntza- eta prestakuntza-programekin eta Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programarekin (CIP).

(G.5.13) grafikoak Gaitasunak programan euskal I+G+b-aren partaide-tzari buruzko datuak aurkezten ditu, FP7ko lehen aldian (2007-2010) lortutako emaitzak erakutsiz, bai eta FP7ren (2011-2013) bigarren aldirako jardueraren plangintza ere.

Jarduera-helburua berrikusiek, Programa honetarako, FP7ko bigarren aldian 23 M€-ko itzulkin bat finkatzen dute, proiektutako 94 partaidezaren eta 10 lidergoren bitartez (ikus (G.5.13) *Gaitasunak Programa*).

Gaitasunak Programak zazpi ezagutza-alor espezifiko hartzen ditu bere baitan, sinplifikatzeko bitan taldekatuko direnak:

- Lehen azpitaldea **ETEn** Onurarako Ikerketa Alorra da, Europar Batzordearen 1.336 M€-ko aurrekontua duena eta horrek esan nahi du Gaitasunak Programari esleitutako funts guztien %32.
- Bigarren azpitaldea Gaitasunak Programako gainerako Alorrez osaturik dago, 2.761 M€-ko aurrekontu oso bat hartuz.
 - Ikerketa-azpiegiturak.
 - Ezagutzaren erregioak.
 - Ahalmen ikertzailea.
 - Zientzia eta Gizartea.
 - Nazioarteko lankidetzeta-jarduerak.
 - Ikerketaren garapen koherentea.

Euskal Herrian, ETEen Onurarako Ikerketa Alorrek traktore bezala jokatzeko du Gaitasunak Programan, kalkulaturako itzulkinaren %78 ordezkatuz (FP7ko bigarren aldia, 2007-2010eko lehen aldian lortutako emaitzen %56ren aurrean (ikus (G.5.14) *Gaitasunak Programaren laburpena*)).

5.3.2.1. ETEen Onurarako ikerketa


Gaitasunak Programako Alor honen helburua europar ETEen ahalmen berritzailea sendotzea da, teknologia berrietan oinarritutako produktak eta merkatuak garatzen. Helburu hori lortzeko asmoarekin, Ikerketa azpikontratatzeari, ahalegin ikertzaileak gehitzea, ikerketa-sareak hedatzea, ikerketaren emaitzen ustiapena hobetzea eta “ezagutza” teknologikoa eskuratzea bultzatzen ditu, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko “gap-a” murrizteko xedearekin.

Euskal I+G+b-ak lortutako emaitzak FP6ko **ETEen Onurarako Ikerketa Alorrean** europar diruz lagundutakoaren %13 izan zen (131 M€), adierazle hori NMP, IKT eta Garraioa Gai Alorretan lortutako emaitzek bakarrik gainditu zutelarik. Ildo horretatik, hobetze bat espero zitekeen FP7ko 2007-2010eko aldiko euskal partaidetzan, baina errealtateak erakusten du euskal partaidetzaren murrizte bat gertatu dela, izan ere itzulkinen 10,7 M€ bakarrik lortu dira (horrek adierazten du %38ko jaitsiera bat gertatu dela FP6ko itzulkinetik).

Bestalde, Galdeketetan jasotako datuek aukera ematen digute bai korrik izateko halako punturaino, non FP7ko bigarren aldirako helburutzat ezarri baita 18 M€ lortzea, 75 partaidetzaren eta 8 proiektu-lidergoren bitartez. Itzulkin horiek Europar Batzordeak Gai honetara bideratutako aurrekontuaren %1,35 ordezkatzeko lukete (1.336 M€) (ikus **(G.5.15) ETEen Onurarako Ikerketa Alorra**).


18 M€-ko zenbateko horretatik abiatuak Alor honen 2011-2013ko helburu bezala, euskal jardueraren hazkuntza %68koa izango litzateke 2007-2010eko lehen aldiran lortutako emaitzekiko (10,7 M€).

G.5.15 ETEen Onurarako Ikerketa Alorra




* 10,71 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %9,08 adierazten du.

G.5.16 Gaitasunak Programako Gainerako Alorrak



G.5.17 Ideiak Programa



* 9,13 M€-ko itzulkinak Estatuaren itzulkinaren %1,72 adierazten du.

5.3.2.2. Gaitasunak Programako Gainerako Alorrak

Gaitasunak Programako Alorrak, azpitalde analizatzean kontuan hartzen direnak honako hauek dira:

- Ikerketa-azpiegiturak (1.715 M€).
- Ezagutza-erregioak (126 M€).
- Ahalmen ikertzailea (340 M€).
- Zientzia eta Gizartea (330 M€).
- Nazioarteko lankidetzaz-jarduerak (180 M€).
- Ikerketaren garapen koherentea (70 M€).

Galdeketen analisiak ahalbidetu egiten du helburutzat jartzea FP7ko bigarren aldirako helburu bezala **Gaitasunak Programako Gainerako Alorretarako** 5 M€-ko itzulkin bat lortzea, hau da, Europar Batzordeak Alor horietara bideraturako aurrekontuaren %0,18 (2.761 M€). Hala, euskal erakundeen 19 partaidetza proiektutan izatea aurreikusten da, haietako 2ren lider izango direla kalkulatu (ikus **(G.5.16)** *Gaitasunak Programako Gainerako Alorrak*).

Baldin eta analizatzen badira **(G.5.16)** grafikoan aurkeztutako zifrak, FP7ko bigarren aldirako itzulkinen aurreikuspenak murriztu egiten direla ikusiko da haren lehen aldiarekiko. Analisi horretan kontuan izan behar da, beste behin, bigarren aldiak urtebete gutxiago duela lehenak baino.

5.3.3. Ideiak

Jarduera honetan euskal partaidetza gehitzeko helburua CIC, BERC eta Unibertsitateen paperean oinarritzen da batik bat, izan ere interes estrategikoko jarduerak burutzen dituzte. FP7ko lehen aldiko emaitzek hala frogatzen dute, partaidetzen %100 erakunde horietatik baitator.

FP7ko bigarren aldiran Euskal Eragileek lortu beharreko helburua Ideiak Programako beren partaidetza 17 M€-ko itzulkin bat lortzean kokatzen da (erkidegoko aurrekontuaren %0,23) euskal erakundeen 16 partaidetzarekin eta 12 lidergorekin (ikus **(G.5.17)** *Ideiak Programa*).

Ildo horretatik, 17 M€-ko zenbateko hori lortuz itzulkin-helburu bezala I+G+b Programa honetarako FP7ko bigarren aldirako, FP7ko bigarren aldiran %86ko jardueraren hazkuntza lortuko litzateke 2007-2010eko lehen aldiran lortutako emaitzekiko (9,13 M€).

5.3.4. Pertsonak

Bigarren aldirako planteatutako helburuek (2011-2013) 12 M€-ko itzulkina lortzea bilatzen dute euskal erakundeen 52 partaidetzarekin proiektuetan eta haien erdiaren lider izanez. Horrek esan nahi du %0,25eko finantzazio bat lortzea guztira esleitutako erkidego-aurrekontuarekiko (4.750 M€) (ikus (G.5.18) *Pertsonak Programa*).

Baldin eta analizatzen badira (G.5.18) grafikoan aurkeztutako zifrak ikusiko da nola FP7ko bigarren aldirako %41ean murrizten diren finantzazio-aurreikuspenak 2007-2010 aldiarekiko, bigarren aldiak hiru urteko iraupena baizik ez duela ahaztu gabe, lehenak dituen lau urteren aurrean.

5.3.5. Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programa (CIP)

Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programa (CIP), 3.621 M€-ko aurrekontu esleituarekin, Europar Batzordeak Enpresa eta Industriaren Zuzendaritza Nagusiari eskaintzen dion erantzun osagarria da berrikuntza-alorrean. Programa honek oinarri juridikorako balio izan eta lehiakortasuna eta berrikuntzarekiko erkidego-ekintza guztiekin koherente izan nahi du Lisboako Estrategiaren esparruan.

CIP Programak nola alderdi teknologikoei hala ez-teknologikoei ekin nahi die, FP7k ez bezala, berrikuntza teknologikoari dagokionez, ikerketa eta berrikuntzako prozesuaren ondorengo faseetan zentratuz. Hartara, haren helburuak honako hauek dira:

- Enpresen lehiakortasuna sustatzea, ETEena batik bat.
- Berrikuntza sustatzea, eko-berrikuntza barne.
- Informazio Gizarte lehiakor, berritzaile eta barne-hartzaile baten garapena bizkortzea.
- Energia-efizientzia, energia-iturri berri eta berriztagarriak sektore guztietan sustatzea.


Gainera, CIP Esparru Programak FP7ko azpiprogramei esparru erkide bat ematearen helburua du, dagoeneko abian diren neurri batzuk integratuz eta egitura askoz sinpleago batez hornituz.

Lehiakortasun eta Berrikuntzako Esparru Programaren (CIP) (2011-2013) aldirako finkatutako helburuak 5 M€-ko itzulkin bat lortzea proposatzen du ia aldaketarik gabe mantenduz bigarren aldiaren lortutako emaitzekiko eta Europar Batzordeak Programa horretarako aurrekontuan ezarritako guztiaren %0,14 ordezkatuz. Itzulkinen 5 M€ horiek euskal erakundeen proiektuetako 33 partaidetzatatik etorriko lirateke eta haietako 5en lidergotik (ikus (G.5.19) *CIP Esparru Programa*).

G.5.18 Pertsonak Programa



G.5.19 CIP Esparru Programa



T.5.4 FP7 eta CIPEko itzulkinen banakatzea (2007-2010ko Emaitzak)

Eragile mota	Emaitzak 2007-2010			
	Itzulkina M€	Pisu erlatiboa	Partaidetzak	Lidergoak
Teknologia Korporazioak	99,05	50,6%	306	68
CICak	8,66	4,4%	25	13
Beste ZT Eragile batzuk	8,81	4,5%	49	5
Zientzia eta Teknologiako Eragileak	116,52	59,5%	380	86
Unibertsitate Sistema	27,46	14%	67	31
ETEak	21,75	11,1%	94	12
Enpresa Handiak	19,74	10,1%	70	8
Enpresak	41,48	21,2%	164	20
Beste Erakunde batzuk	10,30	5,3%	29	3
Guztira Orokorrean	195,77	100%	640	140

T.5.5 FP7 eta CIPen itzulkinen banakatzea Eragileka (2011-2013ko helburuak)

Eragile mota	Helburuak 2011-2013				
	Itzulkina M€	Pisu erlatiboa	Partaidetzak	Lidergoak	%*
Teknologia Korporazioak	88,00	40,0%	267	39	
CICak	14,40	6,5%	45	11	
Beste ZT Eragile batzuk	7,60	3,5%	39	5	
Zientzia eta Teknologiako Eragileak	110,00	50,0%	351	55	-6%
Unibertsitate Sistema	38,00	17,3%	87	36	38%
ETEak	33,00	15,0%	105	18	
Enpresa Handiak	33,00	15,0%	97	10	
Enpresak	66,00	30,0%	202	28	59%
Beste Erakunde batzuk	6,00	2,7%	24	2	-42%
Guztira Orokorrean	220,00	100%	664	121	12%

* FP7 eta CIPeko (2011-2013) itzulkinen aldaketaren % FP7 eta CIPekoekin (2007-2010) alderatuta.

5.4. Euskadiko jarduera eragileka berrikustea FP7 eta CIParen

FP7 eta CIParen bigarren aldirako helburuen berrikustea egin ondoren orain arte Programen eta Gaien banakatzean oinarrituta I+G+b Euskal Sistemako Eragile mota bakoitzari dagozkion helburuak erakutsiko dira. Hartara, Zazpigarren Esparru Programako (FP7) eta Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Esparru Programako (CIP) 2011-2013 aldian haietako bakoitzak jokatu behar duen paperaren bistaratzea erraztu nahi da.

Orain arte aurkeztutako emaitzekiko ildotik, Eragile mota bakoitzak erakutsiko ditu:

- Euskal I+G-b-ak lortutako emaitzak FP6an.
- FP7 eta CIParen lehen aldian lortutako emaitzak.
- FP7 eta CIParen 2011-2013 aldirako egindako kalkuluak.

I+G+b-ko Euskal Sistemako Eragileak taldekatzean erabilitako irizpi-deak 2011-2013 aldirako helburuan esleitzean honako hauek izan dira:

- **Zientzia eta Teknologiako Eragileak:** Termino honek bere baitan hartzen ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) Zientzia eta Teknologiako Eragile guztiak, salbuetsirik Unibertsitateak, BERCak, Ikerbasque eta Enpresetako I+G Unitateak. Hau da, Teknologia Korporazioak, CICak, BIOEF, Tarteko Erakundeak eta zientzia eta teknologiako beste erakunde batzuk sartu dira bertan.
- **Unibertsitate-sistema:** Termino honek bere baitan hartzen ditu UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritzako Goi Eskola (Gipuzkoan kokatua), Ikerbasque eta BERCak (Basic Excellence Research Centre) izenekoak.
- **Enpresak:** Termino honek bere baitan hartzen ditu ETEak, Enpresa Handiak eta Enpresetako I+G Unitateak.

Sailkapena kontuan hartuz, **(T.5.4)** eta **(T.5.5)** laukiek FP7 eta CIParen lehen aldian lortutako emaitzak erakusten dituzte bigarren aldirako planteatutako helburuekin batera, Eragile-tipologiaren arabera banakatzea eginik eta eragile mota bakoitzaren itzulkinen ordezkatzen duten pisu erlatiboa adieraziz euskal partaidetzaren guztizkoan.

(T.5.4) eta **(T.5.5)** laukien analitik orokor nabarmengarriak atera daitezke:

- Zientzia eta Teknologiako Eragileek markaturiko helburuek beren itzulkinen iraunkortasuna adierazten dute, zeren eta haien pisu erlatiboak %10eko beherakada izan badu ere, zenbaki absolututan, urteko itzulkina 7 M€ baino gehiagotan hazi baita (kontuan hartuta lehen aldiak 4 urte zituela eta bigarrenak 3).

- Unibertsitate Sistemaren helburua, bestalde, FP7ko lehen aldian lortutako emaitza orokorrak %38 gehitzea da, horrela pisu espezifikoa areagotzen duelarik FP7 eta CIPko Euskal Eragile partaideen artean.


- Enpresarentzat zehazturiko helburuek inflexio-gune bat adierazten dute haien itzulkinen %59ko gehitze bortitza markatzean eta ia %9ko pisu erlatiboa.

Ondoren eragileen pisu erlatiboa erakusten duten grafikoa batzuk aurkezten dira, nola FP7ko (2007-2010) lehen aldiko emaitzetan nola FP/ko (2011-2013) helburuetan (ikus **(g.5.20) Eragileen bilakaeraren laburpena**).

6.5.20 Eragileen bilakaeraren laburpena


Itzulkina FP7 2007-2010
Eragile Taldeka

Beste erakunde batzuk %5,3




Helburuak FP7 2011-2013
Eragile Taldeka

Beste erakunde batzuk %2,7




Itzulkina FP7 2007-2010
Eragileka

Beste erakunde batzuk %5,3



Helburuak FP7 2011-2013
Eragileka

Beste erakunde batzuk %2,7



G.5.21 Zientzia eta Teknologiako Eragileak. Emaitzen banakatzea: FP6, FP7 eta CIP (2007-2010) eta Helburuak FP7 eta CIP (2011-2013)

FP6

Emaitzak
Proiektuak: 304
Lidergoak: 44

70.700.000 €

FP7 / CIP (2007-2010)

Emaitzak
Proiektuak: 308
Lidergoak: 86

116.520.000 €

CIP (2007-2010)

Proiektuak: 22
Lidergoak: 6
2.880.000 €


FP7 / CIP (2011-2013)

Helburuak
Proiektuak: 351
Lidergoak: 55

110.000.000 €

CIP (2011-2013)

Proiektuak: 26
Lidergoak: 4
3.730.000 €



5.4.1. Zientzia eta Teknologiako Eragileak

Zientzia eta Teknologiako Eragileak terminoaren azpian Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (**ZTBES**) Zientzia eta Teknologiako Eragile guztiak bildu dira, salbetsuta Unibertsitateak, BER-Cak, Ikerbasque (Unibertsitate Sistema) eta enpresetako I+G Unitateak). Beste era batera esateko, sail honetan Teknologia Korporazio, CIC, BIOEF, Tarteko Erakundeak eta zientzia eta teknologiako beste eragile batzuen helburuak analizatzen dira.

(G.5.21) grafikoan erakusten dira FP7ko (2011-2013) bigarren aldira ezarritako helburuak "Zientzia eta Teknologiako Eragileak" kontzeptuaren bidez, FP6an eta FP7ko (2007-2010) lehen aldira ezarritako helburuekin batera eta CIP programak 2011-2013 aldira ezarritako helburuekin batera (3,73 M€-ko itzulkinak 26 partaidetzarekin, eta 4 lidergorekin) Zientzia eta Teknologiako Eragileentzat, 2007-2010 aldiko emaitzak bezala.

FP7ko bigarren aldira Zientzia eta Teknologiako Eragileen jarduerarako planteatutako jardueraren helburuak 110 M€-ko finantzazio orokor bat lortzea da, 351 partaidetzarekin proiektutan eta haierako 55en lidergoarekin (ikus **(G.5.21)** *Zientzia eta Teknologiako Eragileak*).


Zientzia eta Teknologiako Eragileentzat finkatutako helburuak FP7ko bigarren aldiraren hiru urteko iraupenerako (110 M€), murrizte arin bat ageri dute FP7ko lehen aldiko lau urteetan lortutako zifraarekin (116,52 M€). Nahiz eta zifra orokorretatik ahalgaitzaren murrizte bat gertatu dela ondoriozta litekeen, itzulkinen urteko batez besteko zifra frogatzen du kalkulaturako helburuak %26ko gehitze bat adierazten duela, 29,13 M€/urtean izateko lehen aldira 36,67 M€/urtean izatera pasatuz bigarrean.

Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta aldea egon iraupenera FP6ko 4 urtearekin, FP7ko bigarren aldira hiru urteetan 110 M€-ko itzulkin lortzea %56ko gehitzea izango litzateke FP6an Euskadik lortutako emaitzarekin (70,7 M€).

Grafikoan dauden zifrek **(G.5.22)**, zeinetan erakusten baitira "Zientzia eta Teknologiako Eragileentzat" finkatutako helburu orokorrak FP7ko Programa desberdinekin banakatuta, honako hau adierazten dute:

- Lankidetzaren Programa da jarduera gehien aurkeztuko lukeena, FP7 eta CIParen guztikoaren %75,1 ordezkatuz, 82,6 M€-ko itzulkinekin.
- Gaitasunak Programak, 13,08 M€-ko itzulkinekin Zientzia eta Teknologia Erakundeak jasotako finantzazio guztikoaren %11,9 ordezkatuko luke.
- Ideiak eta Pertsonak programek, 6,39 M€ eta 4,20 M€-ko helburuekin, hurrenez hurren, jardueraren %5,8 eta %3,8 ordezkatuko lukete FP7ko bigarren aldirian.

G.5.22 Zientzia eta Teknologia Erakundeak: FP7 eta CIPeko (2011-2013) Helburuen Banaketa Programak



G.5.23 Unibertsitate Sistema: Emaitzen banakatzea: FP6, FP7 eta CIP (2007-2010) eta Helburuak: FP7 eta CIP (2011-2013)

FP6

Emaitzak
Proiektuak: 75
Lidergoak: 6

10.500.000 €

FP7 / CIP (2007-2010)

Emaitzak
Proiektuak: 67
Lidergoak: 31

27.460.000 €

FP7 / CIP (2011-2013)

Helburuak
Proiektuak: 87
Lidergoak: 36

38.000.000 €

CIP (2007-2010)


Proiektuak: 4
Lidergoak: 1

1.380.000 €


CIP (2011-2013)

Proiektuak: 5
Lidergoak: 1

1.270.000 €



G.5.24 Unibertsitate Sistema: Helburuen banakatzea FP7 eta CIP (2011-2013) Programara



5.4.2. Unibertsitate Sistema

Unibertsitate Sistema terminoaren azpian honako hauek bildu dira: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritzako Eskola Nagusia —Gipuzkoan kokatua—, Ikerbasque eta BERCak (Basic Excellence Research Centre).

(G.5.23) grafikoan FP7ko (2011-2013) bigarren aldirako ezarritako helburuak erakusten dira Unibertsitate Sistemarako, FP6an eta FP7ko (2011-2013) lehen aldiran lortutako emaitzekin, eta CIP programarako finkatutako 2011-2013 helburuekin (1,27 M€-ko itzulkinak 5 partaidetzatan eta lidergo batean) 2007-2010 aldiran Unibertsitate Sistemak lortutako emaitza bezala.

FP7ko bigarren aldirako planteatutako helburuak Unibertsitate Sistemarako 38 M€-ko itzulkinak lortzea da, proiektutako 87 partaidetzarekin eta haietako 36 lidergorekin (ikus (G.5.23) *Unibertsitate Sistema*).

Itzulkinetan 38 M€ eskuratzearen helburua Unibertsitate Sistemak lortzea FP7ko bigarren aldiran, %38ko hazkuntza izango litzateke 2007-2010eko lehen aldiran eskuratutako emaitzekiko (27,46 M€) eta %262ko gehitze bat FP6an lortutako itzulkinarekiko (10,5 M€).

Grafikoan dauden zifretan (G.5.24), zeinean agertzen baitira Unibertsitate Sistemarako finkatutako helburu orokorrak, FP7ko Programa desberdinetan banakaturik, honako ondorio hauek ateratzen dira:

- Unibertsitate Sistemaren partaidetza Lankidetzak Programan, 17,43 M€-ko itzulkin kalkulatu batzuekin, FP7 eta CIPeko guztizkoaren %45,9 izango litzateke.
- Unibertsitate Sistemak finkatutako itzulkinak Gaitasunak programan 2,82 M€-ko zifrara iritsiko lirateke FP7 eta CIPeko bigarren aldirako guztizko helburuaren %7,4ko ordezkatzuz.
- Ideiak eta Pertsonak Programetan, Unibertsitate Sistema 10,20 M€ eta 6,28 M€-ko itzulkinekin hurrenez hurren, Eragile aktiboena izango litzateke eragile horrentzat kalkulaturako itzulkinen %43,5 batera ordezkatzuz FP7 eta CIPeko guztizkoan.

5.4.3. Enpresak

Enpresak terminoaren azpian Enpresa Txikiak eta Ertainak (ETEak) eta Enpresa Handiak bildu dira, halaber, I+G Enpresa Unitateak barne direla.

(G.5.25) grafikoak honako hauek erakusten ditu: FP7ko (2011-2013), bigarren aldirako euskal enpresen helburuak, bai eta FP6an eta FP7ko (2007-2010) lehen aldirako lortutako emaitzak ere eta Euskal Enpresentzat finkatutako helburuak CIP programan, bai eta 2007-2010 aldirako haiek lortutako emaitza eskasak ere. Ikus daitekeenez, ez da aurreikusten inolako partaidetzarik Euskal enpresentzat CIPen, eta horrek agerian jartzen du begi-bistako ez-egutzat bat Enpresen aldetik Programa horrek eskaintzen dituen aukerei buruz.


FP7ko bigarren aldirako Enpresentzat planteatutako jardura-helburuak 66 M€-ko itzulkinak lortzea da, euskal erakundeen proiektutan 202 partaidetzatan eta 28 lidergotan (ikus **(G.5.25)** Enpresak).

Itzulkinetan 66 M€-ren helburu hori lortzearekin FP7ko bigarren aldirako, jardura-hazkuntzaren %59 lortuko litzateke 2007-2010ko lehen aldirako lortutako emaitzekiko (41,48 M€). Bestalde, helburua betetzeak %53 haztea ekarriko luke, FP6an lortutako itzulkinetikiko (42,73 M€).


(G.5.26) grafikoko zifretatik, zeinetan erakusten baitira Enpresek finkatutako helburu orokorrak, FP7 eta CIPeko Programa desberdinetan banakatuak, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Enpresen partaidetza handiena Lankidetzaren Programak izango luke eta 57,45 M€-ko itzulkinekin, eta horrek FP7 eta CIPeko bigarren aldirako lortu beharreko itzulkinen guztizkoaren %87 esan nahi du.
- Gaitasunak Programa, 6,62 M€-ko guztizko itzulkinekin, Enpresen %10 izango litzateke FP/ eta CIPeko bigarren aldirako.
- Ideiak eta Pertsonak Programek hondar-pisua dute Enpresen kasuan, izan ere elkarrekin itzulkin guztiaren %3 bakarrik lortuko lukete.

G.5.25 Enpresak. Emaitzen banaketa: FP6, FP7 eta CIP (2007-2010) eta Helburuak FP7 eta CIP (2011-2013)



G.5.26 Enpresak: Helburuen banaketa: FP7 eta CIP (2011-2013) Programak



T.5.6 FP6 (2002-2006), FP7 eta CIP (2007-2010) Emaitzak eta FP7 eta CIP (2011-2013) Helburuak. Programak eta Gaika

Programa	Gaia	FP6 (2002-2006)	Emaitzak FP7 (2007-2010)	Helburuak FP7 (2011-2013)
Lankidetzak	Osasuna	4,50	4,43	8
	Elikadura	1,77	3,74	6
	IKT	24,01	25,51	40
	NMP	34,75	53,23	51
	Energia	12,72	18,79	20
	Ingurumena	0,56	5,95	6
	Garraioa	18,07	22,34	26
	Z. Sozioekonomikoak eta Humanitateak	0,75	1,09	2
	Espazioa	—	2,41	2
	Segurtasuna	—	2,86	2
	Guztira Lankidetzak gaiak	97,13	140,35	163
	Ikerketa Jardueren Koordinazioa	—	1,75	0
	Guztira Lankidetzak	97,13	142,10	163
Gaitasunak	ETEen onurarako ikerketa	17,25	10,70	18
	Gaitasunetako gainerako jarduerak	—	8,31	5
	Guztira Gaitasunak	17,25	19,01	23
Ideiak	—	9,13	17	
Pertsonak	—	20,35	12	
EURATOM	—	0,14	—	
BESTE BATZUK FP6*	16,88	—	—	
GUZTIRA FP	131,26	190,74	215	
CIP	—	5,03	5	
GUZTIRA FP eta CIP	131,26	195,77	220	

* Beste batzuk FP6: SSp, Marie Curie, Eranet, S&S, INCO, INNOV eta Public Health.

5.5. Euskal Herriko jardueraren berrikuste globala FP7an eta CIPen

Euskal Herriak Europar I+G+b-n urrats berri bati aurre egiten dio Zazpigarren Esparru Programako (2011-2013) bigarren aldia irekitzearekin eta programa horietan euskal erakundeen partaidetza gehitzearen lehentasunezko helburuarekin.

Jasotako itzulkinetan hazkuntza bat lortzeko xedearekin eta euskal kokamendua Europan hobetzeko, honako arau hauek finkatzen dira:

- Intentsitatez jarraitu Euskal Eragileen artean barruti sendotuei eskainitako ahaleginak, hala nola, Nanozientziak, Nanoteknologiak, materialak eta Ekoizpen Teknologia Berriak (NMP) Gaiak, zeinen itzulkinak FP7ko 2007-2010 aldian Estatuaren itzulkinaren %32,68 ordezkatzen baitu; eta Garraioak, estatuaren itzulkinaren %26,98 ordezkatzen du.
- Sendotzekoak diren barrutietako ahalegina gehitu. Energia, non euskal itzulkinak %17,15 baitira Estatuaren itzulkinetik; Ingurumena (%12,2) eta Espazioa (%12,07).
- Bortizki indartu jarduera hobetzeko aukera garrantzitsua eskaintzen duten Gaietan, hala nola ETEen Onurarako Ikerketan (%9,07 Estatuaren Itzulkinetik), Elikadura (%7,47), Sozio-Ekonomia (%7,33), IKT (%7,18), Segurtasuna (%6,6) eta batez ere Osasuna (%3,91).

(T.5.6) laukiak FP6an lortutako itzulkinen zifra orokorrak erakusten ditu, FP7ko (2007-2010) lehen aldiaren lortutakoak eta bigarren aldirako (2011-2013) finkatutako FP7ko eta CIPeko helburuak. Zifra horiek euskal I+G+b-aren partaidetzak Europan izan duen bilakaera baikorra erakusten dute, Euskal Eragile ikertzaileek egindako ahalegin jarraituari esker. Jasotako datuek FP7 eta CIPeko bigarren aldirako finkatutako helburuen %12ko hazkuntza islatzen dute (220 M€) lehen aldiaren lortutako emaitzekiko (195,77 M€).


(G.5.27) grafikoak Zazpigarren Esparru Programako (FP7) eta Lehiakortasun eta Berrikuntzako Programako (CIP) lehen aldiaren lortutako itzulkinen urteko banaketa irudikatzen du eta bigarren aldiko urteko helburuena.

(T.5.7) Taulak Eragile mota bakoitzarentzat finkatutako helburuen banakatzearen laburpena erakusten du, FP7 eta CIPeko Programe-tako bakoitzeko.

(T.5.7) laukiaren analitik hau ondoriozta daiteke:

- Lankidetzeta Programa da partaidetzeta-maila handiena aurkezten duena Eragile guztien kasuan.
- Ideiak eta Pertsonak Programek partaidetzeta baxua biltzen dute Zientzia eta Teknologiako Eragileen kasuan; hala ere, Unibertsitate Sistemarako europar itzulkinen bigarren eta hirugarren iturria dira hurrenez hurren.
- Bestalde, CIP Programan Enpresek batere partaidetzarik ez izatea nabarmentzen da, eta horrek azterlana eta ahalegin berezi bat meheziko luke tarteko diren erakundeen aldetik egoera hori hobetzeko asmoarekin.

G.5.27 Itzulkinen bistaratzearen urteko banakatzeta: FP7 eta CIP (2007-2010) eta Helburuak FP7 eta CIP (2011-2013)



T.5.7 FP7 eta CIPeko helburuak (2011-2013) Eragileka eta Programaka banakaturik

Helburuak FP7 eta CIP (2011-2013)	Lankidetzeta	Gaitasunak	Ideiak	Pertsonak	CIP	GUZTIRA
Eragileak ZT	82,60	13,08	6,39	4,20	3,73	110
Unibertsitate Sistema	17,43	2,82	10,20	6,28	1,27	38
Enpresak	57,45	6,62	0,41	1,52	0	66
Beste Erakunde batzuk	5,52	0,48	0	0	0	6
Programak Guztira	163	23	17	12	5	220



FUTURE Proiektua: "Flutter-Free Turbomachinery Blades". Partaideak: ITP eta CTA.

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011



**ERA-NET
LANKIDETZA
PROIEKTU**
TRANSNAZIONALAK

6.1. Sarrera	102
6.1.1. ERA-NET Programa	102
6.1.2. ERA-NET Plus Programa	102
6.2. Euskadiren kokamendua ERA-NETen	103
6.2.1. ERA-NET Programaren garrantzia Euskadirentzat	103
6.2.2. Euskal partaidetza ERA-NETen	106

6.1. Sarrera

ERA-NET eskema Europako Batasunaren ekimen bat da, nazio- eta erregio-gobernuei zuzendua, haien ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programen artean koordinazioa eta lankidetzak bilatzera bideratua, zientzia eta teknologiaren edozein alorretan mugaz gaindiko lankidetzak proposameneko deialdi irekiak praktikan jartzeko, “bottom-up” planteamendu baten bitartez.

ERA-NET eskemaren barruan bi tresna bereiz desberdinu daitezke:

- ERA-NET Programa.
- ERA-NET Plus Programa.

6.1.1. El Programa ERA-NET

ERA-NET eskema laguntza-tresna bat da ERArantz (European Research Area) aurrera egiteko eta ikertzaileen zirkulazioa sustatzeko, bai eta zientzia- eta teknologia-erabileraren ere. ERA-NETen jardueraren balantzea eginez eskema honek arrakasta izan duela nabarmen daiteke nazio- eta erregio-programa desberdinen loturaren bitartez nazio- eta erregio-jardueren lankidetzak eta koordinazioa sustatzeko ezarritako helburuei dagokienez.

Lanabes horrekiko interesa haziz joan da Zazpigarren Esparru Programan (FP7) zehar, izan ere hori frogatzen du 47 ERA-NET berri gehitu izanak aurreko programan sortutako 71 ERA-NETeko zerrindari. Hala eta guztiz ere, agentzia eta ministerio asko ERA-NET kopuru handi bati gehitzeko joera urrituz joan da azken urteetan, eta gero eta sarriago ikusi da ERA-NETetan parte hartzea irizpide gako batzuek agintepan zegoela, hala nola masa kritikoa lortzea eta beste herrialde/erregio batzuen helburu estrategikoen artean doikuntza hobea erdiestean baita.

Bi proiektu daude, Europar Batzordeak bultzatuak, ERA-NETen eragina eta onurari buruzko informazioa jasotzeko bereziki diseinatuak. Proiektu horiek, ERA-LEARN eta NETWATCH deituek, ERA-NETen balio erantsia finkatzen laguntzen dute antzeko izaera duten beste lanabes batzuekiko.

ERA-LEARN proiektua 2009 eta 2010 bitartean garatutako laguntza-ekintza bat da eta FP7k finantzatua honako helburu hauekin:

- Hurbiltze-jarduerak onak identifikatzea eta baterako deialdiak inplementatzerakoan egiturak eta oinarriak lortzeko errazteko.
- ERA-NET portfolioa monitorizatzeko eta erabakiak hartzeko oinarriak ematea eta horien bitartez dauden ERA-NETetako partaidetza hautatzeko edo ERA-NET berri bat sortzeko.
- ERA-NETetan epe luzeko monitorizatzaren egitura erraztea finantzazio-programen artean interakzio jasangarriak sortzen lagunduz.

NETWATCH proiektua (www.ec.europa.eu/netwatch) informazio-plataforma bat da I+G-rako lankidetzak transnazionalerako, ERA-NETak bereziki azpimarratzen dituen; bestela esateko, ERA-LEARN proiektuak “front end-a” da. NETWATCH proiektuaren helburuak hauek dira:

- Informatu.
- Analizatu.
- Elkarren arteko ikaskuntza sustatu.
- Jarduera onen adibideak, analisiak eta kasuak aurkeztu.

“ERA-NETs on Stage 2010 Final Report”, dokumentuaren arabera, zeinek jasotzen baititu martxoaren 2010ean Bruselan ERA-NETen urteko jardunaldian burututako ekarpenak, bi planteamendu daude etorkizuneko ERA-NET eskemaren jarrerari buruz.

Planteamenduetako bat ERA-NETen bilakaeran joera bat izatean oinarritzen da ERA-NET Plus ekintza baterantz gerora Joint Programme batean garatu eta inplementatzeko litzatekeena; bilakaera mota horrek eskala handiagoko egitura baterantz mugimendu bat inplikatzeko luke.

Baina ERA-NET guztiak ez lirateke nazioz gaindiko formetarako mugituko: ordezko beste bide bat “ERA-NET Light” deitua izan liteke. Eredu hori ERA-NET kudeatzen duten agentzia taldeetako bat sortzean datza, eta gero kide asoziatuen kopuru handi bat, ERA-NETek sortutako jardueretan denbora mugatu batez parte hartuko dutenena, hala nola Baterako Deialdiak egitearen partaidetza. Garrantzitsua da estrategia egituraren aurrekoa dela gogoan izatea, eta malgutasuna funtsezkoa dela sare dinamikoak eratzeko.

Indarrean dauden ERA-NETetako batzuetan planteatzen diren beste helburuetako batzuk “programa jasangarri” baterantz lan egiteko aukera da. “Programa jasangarri” horrek erraztu egingo luke Deialdiak irekitzen jarraitzea Batzordearen laguntzaren beharrik gabe. ERA-NETetako helburuen jasangarritasuna Batzordeak egindako azterlan baten arabera, gaur egun ERA-NETen %50ek posible ikusiko luke beren jarduerak jarraitzea; aldez, beste %50ek beharrezko ikusiko luke Batzordearen laguntza baterako jarduerak burutzeko.

6.1.2. ERA-NET Plus Programa

ERA-NET Plus FP7ren lanabes bat da ERA-NET eskema indartzeko sortua. Tresna berri honek, ERA-NETek bezala, adoretu egiten ditu I+Garen finantzazio-programen kudeatzaileak eta jabeak lankidetzan lan egitera, baterako deialdi bat eginez nazio- eta erregio-finantzaziorako programen bidez. “Plus” tresna berri horrek dakarren dimentsio berria Batzordeak pizgarri ekonomiko berri bat ekartzea da diru-laguntza transnazional konprometituen zenbatekoa gehitzeko, pizgarri hori erkidego-funtsen bitartezko diru-laguntza osotik %33ra iristen delarik.

ERANET Plus bi urratsez eraturako ekintza bat da:

· **1. Urratsa. ERA-NET Plus:** Aldi hau ERANET Plusen “set-up”arekin hasten da, non agentzia partaide guztiek diru-zenbateko bat konprometitzen baitute (“common pot” birtuala edo erreala) proiektuak finantzatzeko eta Europar Batzordeak konprometitu egiten du bestalde finantzazio erkidearen heren bat. Batzordearen finantzazioa jaso ahal izateko kontuan hartu beharreko oinarritzko irizpide bat baino gehiago daude:

- Baterako Deialdi bakar bat egitea.
- Deialdia egiteko guztira planeaturako aurrekontua ezin da izan 5 M€ baino txikiagoa Batzordearen ekarpena barne dela.
- ERA-NET Plusek ezin du iraun 5 urte baino gehiago.

Batzordeak egindako ekarpen honek lagundu egiten die agentziei proiektu kopuru handiago bat finantzatzeko, zeren eta diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa gehitu egiten baita.

Deialdira aurkeztutako proposamenek bi urratseko prozesu bat gainditu behar dute.

- Lehen urratsean Deialdia antolatzen duten herrialdeetako agentziek ebaluatu egiten dituzte aurre-proposamenak azken proposamen bat aurkeztera zeintzuk gonbidatuko dituzten erabakitzeko.
- Bigarren urratsean ebaluazio zentralizatu bat egiten da, kanpo-ebaluatzailez osatutako ebaluazio-panel baten bitartez. Ebaluazio horren azken emaitza proiektu-ranking bat da, partzuergoak aldeez aurretik onarturik, EERA bidaltzen dena.

· **2. Urratsa. ERA-NET Plus:** ERA-NET Plus: Urrats hau EERA egindako Deialdian onartutako proiektuei ematen dien onarpenarekin hasten da eta ERA-NET Plus amaitzean bukatzen da. Aldi horretan diruz lagundutako proiektuen monitorizazioa egiten da, agentziek aldizka egindako txostenak eskuratzen dizkiotelarik EERA monitorizatzeko horri buruz.

Azpimarratu behar da Batzordearen papera, ondorio guztietarako, kide finantzatzaile berezi batena dela, Baterako Deialdirako metaturako guztizko aurrekontuaren %33rainoko ekarpena egin dezakeena.

6.2. Euskadiren kokamendua ERA-NETen

ERA-NET Programarekin lortutako arrakasta ikusirik Seigarren Esparru Programan (FP6) Batzordeak lanabes hori bultzatzearen aldeko apustua egin ez ezik ERA-NET Plus ekintzaz indartu du. Euskaditik apustu hori bera jarraitu da; FP6n erregioaren jardura ordurako nabarmena zen herrialde/erregio desberdinen artean, izan ere 9 ziren Euskadi partaide zuten ERA-NETak. FP7ren 2007-2010 aldian, Euskadik ERA-NETen eskeman jardura gehitzearen aldeko apustua egin ez ezik, gainera abian jarritako bederatzia ERA-NET Plusetako batean parte hartzea erabaki du.

6.2.1. ERA-NET Programaren garrantzia Euskadirentzat

Azken urteetan Euskadik ahalegin garrantzitsua egin du bere I+G-a hobetzeko. FP7n lortutako esperientziak balio izan du ERA-NETek balio izan duela eta oraindik ere balio duela nazioartekotzerako sarbide bat dela europar proiektuetan aurretiazko esperientziarik izan gabe bere I+G-a nazioartekotzen hasi nahi duenarentzat. Tarteko maila bat, batez ere ETEentzat, FP7ko I+G proiektu handietarako. Politika horrekiko koherentzian, Euskadik gehitu egin du bere partaidetza ERA-NETen aldeko apustua eginez Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planak (ZTBP) proposatutako alor estrategikoetara lerrokatutako gaiekin, hala nola mikro- eta nanoteknologia, fabrikazioa, bioteknologia, sare elektriko adimendunak, eko-berrikuntza, elikadura-segurtasuna eta merkatu liderrak. **(6.6.1)** grafikoak erlazio hori erakusten du ZTBParan arteko alor estrategikoen eta ERA-NETen partaidetzaren artean.

Euskadik erreferentziako erregio bezala iraun du ERA-NETetako partaidetzan. Horren froga da jaso duen laguntza Europar Batzordearen aldetik Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila lider izan duen eta Innobasquek koordinatu duen ERA-NET MANUNETen. MANUNET kontsideratu du EBak ERA-NET hoberentzat eta “arrakastarako gako” bezala definitu du.

(1.6.1) laukiak gaur egun jardunean dauden proiektu guztien zerrenda erakusten du liderrekin eta haien jardura-alorrekin.


Ondoren ERA-NET proiektuak aurkezten dira, zeinetan Euskadi partaide izan den edo oraindik izaten ari den:

· **MANUNET (2006-2014):** Eusko Jaurlaritzaren ekimen bezala jaiotako ERA-NET bat zen, aurrera eginez ERAra iristeko **Manufacturing** fabrikazio-teknologiaren barrutian. Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila lider zuen ekimen hau, 2004an hasi zen fabrikazio-alorrean pisu garrantzitsua eta finantzazio-programa propioak zituzten erregioak eta herrialdeak identifikatzen zituena. Azterlan hori oinarri izan zen Europar Mapa ba-

ten azterlanarekin ERA-NET MANUNETeko (2006-2010) FP6 sortzeko, urtero deialdiak irekiz joan dena fabrikazioko ikerketako nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera eskainiz enpresei eta, batez ere, ETEak ERaren partaide izatera animatuz. Hainbestekoa izan da partaidetzaren arrakasta ERA-NETen bizitzan (2009an aurkeztutako ETEen eta proiektuen kopuruak bikoiztu egin zuen 2007an lortutakoa), non Batzordeak onartu egin duen ERA-NET beste lau urtez jarraitzeko proposamena berriz ere Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila lider izango duen Innobasqueren koordinaziopean (www.manunet.net).

- **MATERA (2005-2011):** FP6n sortutako ERA-NET bat zen, **Materia-len** teknologien barrutian europar herrialde eta erregioetako finantzazio-programa desberdinen arteko lankidetzara areagotzea eta material berritzaileekin eta Europar Industrian haiek ezartzearekin zerikusia duen ezagutza indartzea helburu dituen. Proiektu honen koordinatzailea Tekes finlandiar agentzia da. Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Innobasquekin batera, kide asoziatu bezala parte hartzen du ERA-NET honean, materialekin zerikusia duten proiektu transnasionaletan parte hartzeko aukera emanez (www.matera.fi).
- **ERNEST (2008-2012):** Turismoaren barrutiko ERA-NET bat eta haren helburua ordezkari nazional eta erregionalen bitarteko koordinazioaren eta lankidetzaren garapen jasangarrian aurrera egitea. Ekimen honen bitartez, ERNESTek erraztu egin nahi du ikerketa turismoan, batez ere turismo jasangarri eta lehiakorrean, maila europarreko gobernantzan eta garapen-politikan eragin dezakeen horretan. Proiektu honen koordinatzailea Toscana (Italia) erregioiko Direzione Generale Sviluppo Economico da eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak bazkide bezala parte hartzen du Basquetour eta Innobasquekin batera (www.ernestproject.eu).
- **SAFEFOODERA (2004-2009):** Europar herrialdeen eta erregioen arteko lankidetzara zuzenduriko ERA-NET bat da, bai eta haien baterako partaidetza ere **Elikadura Segurtasuna** barrutiko ikerketa-proiektuetan. Haren bi deialdi transnasionalen arrakastarengatik, gobernu partaideetako batzuek beren jardueri jarraipena ematea erabaki dute programa jasangarri baten bitartez. Jasangarritasun horrek berekin dakar gobernu horiek beren gain hartzea hirugarren deialdi transnazonal bat kudeatzearen kostuak Elikadura Segurtasunean proiektuak finantzatu ahal izateko beren finantzazio-programen bitartez. Proiektu honen koordinatzailea Zientzia eta Berrikuntzako Norvegiar Ministerioa da; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Saila partaide da partzuergoaren kide bezala ELIKArekin batera (www.safefoodera.net).

G.6.1 ERA-NETak tresna lerrokatu bezala Euskal I+G-a eta FP7rekin



T.6.1 Gaur egun aktiboak diren proiektuak liderrekin eta haien jarduera-alorrekin

Proiektua	Liderra
MANUNET: Manufacturing-a	Eusko Jaurlaritza
MATERA: Materialak	Finlandia: Tekes
ERNEST: Turismo jasangarria	Toscana Erregioa: Regione Toscana
SAFEFOODERA: Elikadura Segurtasuna	Norvegia: NICE
SMARTGRIDS: Sare Elektriko Adimendunak	Holanda: NL Agentzia
ETB-PRO: Bioteknologia	Austria: BMWA
EURONANOMED: Nanomedikuntza	Frantzia: CA
MNT-ERA.NET II: Mikro- eta Nanoteknologiak	Austria: FFG
LEAD-ERA: Merkatu liderrak	Valoniako Erregioa: DGOEER
ECO-INNOVERA: Eko-berrikuntza	Alemania: PTJ-Julich
MATERA+: Materialak	Finlandia: Tekes

- **SMARTGRIDS (2008-2012):** SmartGridsen (**Sare elektriko adimendunak**) arkitektura eskala handian integratzeko koordinatutako ikerketa bat burutzea bermatzeko helburuarekin sortutako ERA-NET bat da. ERA-NET SmartGridsek ikerketa transnasionaleko jardueren garapena sustatzen du, Europar Azpiegitura Elektriko Adimendun baten garapena bizkortzeko helburuarekin. Proiektu honen koordinatzailea Ekonomia Ministerioko NL holandar agentzia da; Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak “Management Board-en” bazkide eta kide bezala parte hartzen du Innobasquerekin batera (www.eranet-smartgrids.eu).
- **ETB-PRO (2009-2012):** ERA-NET EuroTransBio (2006-2008), FP6 proiektuaren jarraipena da, eta Euskadik bertan parte hartu zuen hasieratik era aktiboan “Management Board-eko” bazkide eta kide bezala. ETB-PRO berrikuntzako proiektu transnazonal lankidetzakoak bultzatzera zuzendurik dago **Bioteknologiaren** sektorean. Gainera, lan egiten du haren jardueri jarraipena ematen programa jasangarri bat garatzearen bitartez. Proiektu honen koordinatzailea Austriako Ekonomia, Familia eta Gazteriaren (BMWFI) Ministerio Federala da; Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ERA-NETaren lehen atalean egiten zuen bezala parte hartzen du “Management Board-en” bazkide eta kide bezala Innobasquerekin batera (www.eurotransbio.eu).
- **EURONANOMED (2009-2012):** ERA-NET bat da, europar aktoreen lehiakortasuna sustatzeko helburuaren sortua Nanomedikuntzan I+G proiektuentzako laguntzaren bitartez lankidetzatza transnazonal eta diziplina-anitzean mundu akademiko, kliniko eta industrialeko partaidetzekin (ETEekin batez ere) Proiektu honen koordinatzailea Ikerketa Atomikoaren Agentzia Frantsesa da(CA); Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak sozio eta “Steering Committee-ko” kide bezala parte hartzen du Innobasquerekin batera (www.euronanomed.net).
- **MNT-ERA.NET II (2009-2011):** ERA-NETen jarraipena da, **Mikro eta Nanoteknologiaren** barrutian, FP6, MNT-ERA.NETen sortua (2006-2008). Aurreko aldiaren lortutako esperientzia aplikatuz, ERA-NET hau doitu egin zaio FP/ren eskakizun berriei lankidetzatza hobetzeko finantzazio-agentzien, industriaren, teknologia-zentroen eta unibertsitateen artean eragile nagusien europar sare bat bermatzeko duena mikro eta nanoteknologiaren barrutian. Proiektu honen koordinatzailea Ikerketaren Sustapenerako Austriar Agentzia (FFG) da; Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak “Steering Committee”ren bazkide eta kide bezala parte hartzen du Innobasquerekin batera (www.mnt-era.net).
- **LEAD ERA (2009-2012):** ERA-NET bat da, ikerketara eta berrikuntzara bideratutako erregioz gaidiko programak koordinatzeko hel-

buruarekin sortua, **Merkatu Askeen** europar ekimenaren gai berri-zaileenen eta oinarri teknologikoen barruan:

- E-Osasuna.
- Ehungintza Babeslea.
- Eraikuntza Jasangarria.
- Birziklatzea.
- Bioproduktuak.
- Energia Berriztagarriak.

Proiektu honen koordinatzailea Valonia (Belgika) erregioko Ekonomia, Enplegua eta Ikerketako Zuzendari Nagusi operazionala (DGOEER) da; Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak "Steering Committee-ko" sozio eta kide bezala parte hartzen du Innobasquerekin batera (www.leADERa.net).

· **ECO-INNOVERA (2010-2014):** ERA-NET bat da, FP7n sortua, eko-berrikuntzaren eremuan europar herrialde eta erregio desberdinen arteko lankidetzaren areagotzea eta **eko-berrikuntzak** lantzen dituen lan-eremu desberdinekin zerikusia duen ezagutza indartzea helburu dituen, hala nola birziklatze aurreratua edo ekoizpen eta kontsumo jasangarria eta haien aplikazioa Europako Industrian. Proiektu honen koordinatzailea PTJ-Julich alemaniar agentzia da, eta IHOBE eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak urteko Baterako Deialdietan parte hartzen dute beste alderdi estrategikoagoetan bezala (I+G+b-ren geroko agenda bat diseinatzea eko-berrikuntza teknologikoan...) (www.eco-innova.eu).


· **MATERA+ (2009-2013):** FP7n abiarazitako ERA-NET Plusetako bat da ERA-NET MATERAtik datorren ekintza bezala. Proiektu honen helburua Deialdi bakar bat abiaraztea da **Materialen** barrutian. Proiektu honen koordinatzailea TEKES finlandiar agentzia da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak sozio bezala parte hartzen duelarik Partzuergoan Innobasquerekin batera (www.matera.fi).

6.2.2. ERA-NETeko Euskal partaidetza


FP6n lanabes hau abian jarri zenetik Eusko Jaurlaritza tarteko izan da euskal industria-ehunerako funtsezkoak diren 12 ERA-NET ekintza baino gehiagotan, honako gaietan: fabrikazioa, bioteknologia, mikro eta nanoteknologiak, materialak, energia berriztagarriak, eko-berrikuntza, elikadura-segurtasuna, etab. gaur egun erreferentziako erregio bezala kokatuz Europan.

Eusko Jaurlaritzak bere finantzazio-programetako batzuen bitartez, Innobasque, IHOBE eta ELIKA gisako agentzien lankidetzarekin I+G+b proiektu transnasionaletarako Deialdiak batera irekitzen parte hartu du. Hartara, lortu da urtean-urtean Euskal enpresen partaidetza teknologia-zentroekin eta unibertsitateekin gero eta handiagoa izatea.


G.6.2 Urtero mobilizatutako Euskal Enpresak



G.6.3 ERA-NET bakoitzean aurkeztutako proiektuen eta onartutako proiektuen zerrenda



G.6.4 I+G-ko Euskal Inbertsioa ERA-NET proiektutan (M€)



Hala frogatzen dute zifrek. 2006an, 46 euskal enpresak parte hartu zuten Deialdi horietan eta, aldiz, 2010ean zifra hori bikoiztu egin da (ikus **(G.6.2)** *Urtero mobilizatutako euskal enpresak*).

Urtero I+G+b proiektu transnazionalen kopurua euskal partaidezarekin gehituz doa, %30ekoa delarik finantzatutako proiektuen arrakasta-tasa eta arrakasta-tasa hori handiagoa da FP7rekin erkatuta baino. Deialdi horiek laguntza handikoak dira ETEentzat, zeren eta lanabes simple eta malguagoak baitira beren I+G-a nazioartekotzeko.

(G.6.3) grafikoan erakusten dira Euskadi partaide duten aurkeztu eta onartutako proiektuak ERA-NET proiektu desberdinetan. Nahiz eta nabarmentzekoa izan euskal partaidez Fabrikazio ERA-NETen (MANUNET 114 proiektu jasotzeraino iritsi da euskal partaidezarekin bere lehen aldian 2006tik 2010era doan horretan), halaber nabarmentzekoa da beste ERA-NET batzuetan duen partaidez mikro eta nanoteknologiak, bioteknologiak edo berrikiago merkatu liderretan edo sare elektriko adimendunetan txertaturik. ERA-NET horietako batzuk beren lehen deialdia irekitzea besterik ez dute egin eta dagoeneko badute partaidez aktiboa.

(G.6.4) grafikoan euskal enpresek guztira mobilizatutako kantitateak erakusten dira onartutako proiektuak burutzeko, zeina baita 30 M€ baino zifra zertxobait handiagoa I+G+b-ko azken 5 urteetan.

I+G+b

EUSKAL I+G+b EUROPA
KOADERNO ESTRATEGIKOA 2011



“HORIZON 2020”
(2014-2020)
IKERKETA ETA
BERRIKUNTZA
FINANTZATZEKO
EUROPAKO
BATASUNEKO
ESPARRU
PROGRAMARAKO
SARRERA

7.1. Europa 2020 Estrategian helburuak lortzeko lanabesak ..	110
7.1.1. Estrategia-esparrua	110
7.1.2. Ekimen enblematikoak	110
7.1.3. Berrikuntzarako Batasuna (“Innovation Union”)	111
7.1.4. Berrikuntzarako Europar partenergoak (European Innovation Partnerships “EIP”)	111
7.2. Europako Batasuneko Esparru Programa Lantze-prozesua Ikerketa eta Berrikuntzarako “Horizon 2020”	112
7.3. Esparru Programak planteaturiko agertokiaren sintesia “Horizon 2020”	116
7.4. Esparru Programaren aurrean Euskal Herriaren kokagunea “Horizon 2020” (2014-2020)	116
7.4.1. Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programaren egiturari buruzko iritzia “Horizon 2020”	116
7.4.2. Enpresa Txiki eta Ertainen papera indartzea	117
7.4.3. Partenergo Publiko-Pribatuak	117
7.4.4. Lehiaketa-aurreko ikerketa berrikuntza eta merkatuarekin lotu beharra	117
7.4.5. Finantzazio-programen sinplifikazioa	118
7.4.6. Programa erregional, nazional eta europarren arteko koordinazioa	119
7.4.7. Zientzia eta berrikuntzaren gizarte-dimentsioa	120

7.1. Europa 2020 Estrategian helburuak lortzeko lanabesak

7.1.1. Estrategia-esparrua

Datorren zazpi urtekoan garatuko den erkidego-politika guztia “Europa 2020” strategiari loturik egongo da eta 5 helburu kuantitatibo handi lortzea bilatzen du:

- Biztanleria aktiboaren bolumenaren gainean %75eko enplegu-maila lortzea (20 eta 64 bitartean daudenei buruz ulertzen da).
- Barne Produktu Gordinaren %3 I+G-ko jardueratara bideratzea.
- 20/20/20 klima-helburuak lor daitezela:
 - Karbono-dioxidoaren igorpenen %20ko murriztea.
 - Energia berriztagarrien kuota guztiaren %20ra iristea.
 - Energia-kontsumoan efizientzia %20ra iristea.
- Ikasleen %40k gutxienez lor dezala “hirugarren heziketa-maila” deritzona, gutxi asko unibertsitate-mailako edozein kualifikaziorekin identifikatua; aldiz, murriztu dadila eskola-porrota deritzona %10aren azpitik egon arte.
- Eragotz dadila eskusio- eta pobrezia-arriskua, gutxienez, 20 milioi europarrentzat.

7.1.2. Ekimen enblematikoak

Lehen aipatutako helburu estrategiko handiak lortzeko asmoarekin, batez ere enplegua eta hazkundera sustatzearekin lotuak, Europako Batasunak eta Nazio Administrazioek beren ahaleginak 7 ekimen enblematiko handiren inguruan koordinatzea hitzartu dute (“Flagship Initiatives”) (G.7.1).

- Hazkuntza Adimendunarako** (Smart Growth)
 - Agenda digitala Europarako (Digital Agenda for Europe).
 - Berrikuntzarako batasuna (Innovation Union).
 - Gazteak mugimenduan (Youth on the Move).
- Hazkunde Jasangarrirako** (Sustainable Growth)
 - Europa efizientea baliabideen erabileran (Resource Efficient Europe).
 - Industria-politika bat globalizazioaren arorako (An Industrial Policy for the Globalisation Era).
- Hazkuntza barne-hartzailerako** (Inclusive Growth)
 - Agenda bat lanbide eta enplegu berrientzat (An Agenda for New Skills and Jobs).
 - Pobreziaren aurkako europar plataforma (European Platform Against Poverty).

G.7.1 Europa 2020 Estrategia



7.1.3. Berrikuntzarako Batasuna (Innovation Union)

Logikoki, ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-gaian “Innovation Union” da ekimen berrien noranzkoa gobernatzeko duen “Flagship Initiative”. Planteamendu hori honako hiru printzipio hauetan oinarritzen da:

- Ahalegin berritzaileak zentratu “Europa 2020” estrategian identifikatutako erronka handiak lortze aldera.
- Berrikuntza ulertu eta artatu kontzeptuaren ikuspen zabal batetik, ikerketa-prozesutik datorrena ez ezik negozio-, diseinu- eta balio erantsi handiko zerbitzu-eredu berriak tartean sartzen dituen ez-teknologikoa ere txertatuz.
- Aktore eta erregio guztiak inplikatu, ez bakarrik enpresa handiak, ETEak ere bai, sektore publikoa, ekonomia soziala eta hiritar norbakoak.

“Innovation Union” esparruko jokabideak hona bideraturik egongo dira:

- Ezagutzaren oinarria sendotu eta zatiketa murriztera.
 - Bikaintasuna sustatuz heziketan eta garapenean.
 - Europar Ikerketa Gunea errealitate bihurtuz (European Research Area – ERA).
 - Berrikuntzaren finantzazio-baliabide europarrak kontzentratuz “Flagshipak” finkatutako lehentasunetan.
 - “European Institute of Innovation and Technology” (EIT) sustatuz berrikuntzaren gobernantzako eredu bezala Europar..
- Ideia onak merkatura eraman.
 - Enpresa berritzaileen finantzaziorako sarbidea hobetuz.
 - Berrikuntzaren merkatu bakar bat sortuz.
 - Asmo-irekitasuna sustatuz eta Europaren sortze-ahalmen guztia kapitalizatuz.
- Gizarte- eta lurralde-kohesioa hobetu.
 - Berrikuntzaren onurak Batasun osoan zehar hedatuz.
 - Gizarte-onurak gehituz.
- Ahalegin guztia berrikuntza benetan haustaileak lortzeko. Horretarako europar berrikuntza-partenergo deituak proposatzen dira (European Innovation Partnerships).
- Politikak baliatu Batasunaz kanpoko baliabideak erakarriz.
- “Innovation Union” errealitate ukigarri bihurtu.
 - Ikerketa eta berrikuntzako sistemak eraberrituz.
 - Ezarritako helburuetarantzko aurrerapena egoki neurtuz.

7.1.4. Europar Berrikuntza Partenergoak (European Innovation Partnerships “EIP”)

“Flagship” “Innovation Union-en” adierazitako jardueren artean mezezi du nabarmentzea “European Innovation Partnerships” deituak abian jartzearekin zerikusia duena, zeren eta engranaje indartsua izan baitezake Europako Batasuneko Esparru Programarekin Ikerketa eta Berrikuntzaren Finantzaziorako 2014-2020 aldira (Horizon 2020).

EIPak Europako Batasuneko berrikuntza eta ikerketarako planteamendu berri bat bezala definitzen dira. Erronkek bideraturik egongo dira eta onura sozialera eta harekin lotura duten sektore eta merkatuen modernizazio lasterrera bideratuak. Dagoeneko badiren lanabes batzuen planteamendu teknologiko hutsa baino urrunago joango dira, esaterako JTIna (Joint Technology Initiatives).

Bigarren mailan, EIPek berrikuntza-kate osoan jokatu dute, Europa-, estatu- eta erregio-mailako aktore guztiak inplikaturik, eta aldi bereko eran.

Azkenik, EIPek hobeto koordinatu eta lerrotu beharko dituzte aurretiazko tresnak eta ekimenak, bai eta haiek osatu ere beharrezkoa denean.

Batzordeak dagoeneko identifikatu ditu EIPetako batzuk eratzeko gai liratekeenak:

- Hiri-barrutiak klima-aldaketaren eta energia-erronkei aurre egiteko.
- Uraren erabilera kalitate handia eta efizientzia segurtatzeko.
- Negutegi-efektuko gasen igorpena garraioan murrizteko.
- Gizarte digitaletik datorren europar lehiakortasuna sustatzeko.
- Efizienteki ekoiztutako elikagai-hornikuntza hobetzeko.
- Gero eta zahartuagoa den europar biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzeko.

Identifikazio horrez gain, urrunago joan da, partenergo espezifikoa abiarazteko prestatze-lana burutuz honakoetan: “Water efficiency”, “Non-energy raw materials”, “Smart mobility”, “Agricultural productivity and sustainability” eta “Smart, liveable cities”. Gehigarri gisa, esperientzia pilotu bezala, dagoeneko abiarazita dago EIPa “Active and healthy ageing-en”.

7.2. Europako Batasunaren Esparru Programa Lantze-prozesua Ikerketa eta Berrikuntzarako "Horizon 2020"


Deskribatutako testuinguru politiko eta estrategikoan, lehen pausoak ematen hasita daude Europako Batasunaren etorkizuneko Esparru Programa lantze-prozesua Ikerketa eta Berrikuntzarako "Horizon 2020". Bide horretan bereziki garrantzitsua da Batzordeak sortutako dokumentu hau: "Green Paper: From Challenges to Opportunities: Towards a Common Strategic Framework for EU Research and Innovation Funding", 27 galderako galde-sorta bat planteatzen zuena, tarteko edozein, publiko edo pribatuk, kolektibo edo pertsonalek erantzun zezakeena 2011ko maiatzaren 20 arte, programa berria jaiaraziko zuen talde-gogoetari laguntzeko asmoz.

Programa finantzazioko sistema integratu bat bezala eratzten da, Ikerketa eta Garapen Teknologikoko Esparru Programaren (FP7), lehiakortasunaren eta Berrikuntzaren Esparru Programa (CIP) eta Berrikuntza eta Teknologia Europar Institutuaren (EIT) bitartez gaur arte burutuak izan ziren finantzazio guztiak estaltzen dituen, finantzazio horiek batera ezarri daitezzen era koherente eta malguan.

Era hartara, bide adimendun bat sortzen da Europan ikerketari eta berrikuntzari laguntzeko, bai eta dagokion bikaintasuna areagotzeko ere eta ideia onak merkatuetara iritsi eta hazkuntza ekonomikoa eta lanpostu jasagarriak sortuko dituztela segurtatzeko. Hartara, ikerketa eta berrikuntza askoz hobeto koordinatuak eta engranatuak egongo dira, gaurko munduak planteatutako erronkak gainditzera bideratuak, beste potentzia global handiekiko lehian.

Kontzeptu berria 7. Esparru Programan, CIPen eta EITek abiarazitako lehen KICetan (Knowledge and Innovation Communities) metatutako esperientziatik sortzen da. Ondorioa hau da: ekimen horiek guztiak balio handikoak direla europar garapenerako baina, aldi berean, akats edo muga jakin batzuk izan dituztela, gainditu beharrekoak direnak. Horrela, geroko finantza-esparruak bere hobetze-ahaleginak hemen zentratu beharko dituela ulertzen da:

- Helburuak argitu, eta horiek nola bihur daitezkeen laguntza-jarduera, malgutasunari eutsiz eta gorantz datozen politiken beharrei erantzuteko gaitasuna gutxitu gabe.
- Konplexutasuna murriztu: denborarekin, EBeko ikerketa eta berrikuntzako programek, bai eta haren tresna guztiak ere helburu gehiegiri kontu egin behararen eta finantzazioa gehiegi zatitzearen inpresioa eman dute. Gainera, Batasunean eta Estatu Kideen beren arteko koordinazio gabeziak konplexutasuna ezarri dio sistemari eta bikoiztasunak eta inefizientziak sortu ere bai. Baikor hitz egiten da Batasuneko Hitzarmeneko 185. artikulua ezartzeari lotutako esperientziez, ERA-NETez eta Joint Programming Initiatives-ek (JPIs) emandako lehen pausoez. Hala ere, haien efikazia



V-MusT.net Proiektua: "Virtual Museum Transnational Network". Partaide: Virtualware.

handiagoa finantza-konpromiso indartsuago bati loturik ikusten da nazioko eta erregioako agintarien aldetik.

- Balio erantsia gehitu eta bikoiztu eta zatitzea saihestu.
- Partaidetza sinplifikatu, administraziokoaren pisua, eta laguntza eta ordaintzea lortzeko igarotzen den denbora murriztu, aldi berean planteamendu fiskalizatzaile bat ezarriz, konfiantzan oinarritua baina zorrotz ezarritako helburuak jarraituz.
- Handitu egin behar da erkidego-programan orain arte zailago zuten erakundeen partaidetza. Ildo horretatik, beharrezko jotzen da industria-partaidetza gehitzea, oso bereziki enpresa txiki eta ertainen, emakumeen protagonismoa, herrialde kide berrien pisu erlatiboa gehitzea, bai eta hirugarren herrialdeekiko lankidetzaz hazteare.
- Batasunaren lehiakortasuna eta ahalegin ekonomikoaren gizarte-inpaktua gehitzea.

Horregatik, eta galde-sortaren erantzunen emaitzak nola ezartzen diren ikustearan zain, "Horizon 2020" Esparru Programaren orientatzea jatorrian honako honek determinatzen du:

- *Working together to deliver on Europe 2020*: Hemen behin eta berriz ekiten zaio "Horizon 2020" Esparru Programak gaur egun FP7, CIP eta EITen barreiatutako baliabideak bildu eta bateratzearen beharrari. Horrek "leihatila bakar" gisako bat ekarriko du berekin, IKT tresna erkidez hornitua, programa askoz sinplifikatuagoa eta berrikuntzaren kate osoa estaliko duena bihurtuz.

Sinplifikatzaiek beste testuinguru batzuetan ere agertu beharko du, kostuen oroharreko prezioan kalkuaren erabilera handituz edo onuradunen jarduera kontableak onartuz.

Aldi berean, malgutasun handia beharko da finantzazio-moduen askotarikotasun zabal bat ezartzeko, berrikuntzaren ziklo osoa estaltzeko dagoeneko aurreratutako asmoarekin, eta abiadura handiagoko bat erabakiak hartzean eragile jakin batzuk erakartzeko, ETEak batik bat.

Halaber, geroko kohesio-politikaren garrantzia gehitzea ere behar da, erregio-mailan ikerketa eta berrikuntzako gaitasun berriak sortzeko aukera emango duena espezializazio-estrategiak ezartzearen bitartez. Eta barreiatze geografiko halako horrekiko aldi berean, ahaleginen biltze bat burutu beharko da "Europa 2020-k" ezarritako lehentasunen inguruan.

- *Tackling societal challenges*: "Flagship" "Innovation Union"ek geroko finantzazio-programak helburu nagusiekin estukiago lotzea eskatzen du, eronka sozioekonomikoak gehiago azpimarratuz. Hori guztia, jakina, hobeto gaitzeko, europar barrutik aurre egin behar zaien erronkak behar bezala identifikatuz. Nahiz eta "Grand Challenges-en" behin betiko identifikazioak, geroko programak burutu beharre-

koak oraindik denbora labur batean itxaron beharko duen, dokumentu batzuek dagoeneko aurreratzen dute behin betikotik oso hurbil egongo den zerrenda bat:

- Climate change.
- Health and ageing.
- Use of natural resources.
- Energy security.
- Clean transport.
- Land use.

Beste "Grand Challengeren" bat agian gehituko den oso zaila da identifikaturik daudenak baztertuak izatea.

Nahiz eta gaur eguneko finantzazio-eskemek ahalegin ohargarria egin duten aipaturiko helburuak lortzeko, funtsean bulkada teknologikoaren bitartez, esperientziak muga batzuk erakutsi ditu beharrezko malgutasuna, sormena eta jakintzagaiartekotasuna lortzeko. Hala ere, lankidetzaz sareak ezartzean oinarritutako formula (esamolde hori erreserba batzuekin gaur eguneko FP7ren "Cooperation" Programa buruzkoa bezala interpreta daiteke) hil edo bizikoa izango dela onartzen da europar ehun ikertzailearen sostengatzerakoan.

Hain zuzen ere gauzen egoera hori gaitzeko sartzen du EBak "European Innovation Partnership", kontzeptua, eskaintza eta eskaera bateratzen dituen "Challenges" deituei aurre egiteko. Erkidegoaren dokumentuak tarteko diren eragile guztien lerrokatze egoki horren adibide bezala energia-"SET-Plan-a" (Strategic Energy Technology Plan) jartzen du, zeinek, EBaren arabera, lehentasun argiak behar bezala definituriko gobernantza-egiturak eta egingako aurrerapenaren jarraipen- eta ebaluazio-funtzio ongi egituratua baititu.

- *Strengthening competitiveness*: Europak emaitzak hobetzea behar du eragin sozioekonomikoa sortzeari dagokionez ikerketatik eta berrikuntzatik, laborategiko emaitzen transferentziari oraindik lasta ezartzen dioten eragozpenak gaituz garapen-, merkaturatze- eta ezarpen-urratsetara. Horretarako industria behar da, lehentasunak determinatzerakoan paper nagusia burutuko duen industria bat "Public, Private Partnerships-en" (PPP) bitartez (orain arte "Factories of the Future", "Energy Efficient Buildings", "Green Cars" eta "Future Internet-en" PPPek krisiaren ondoren mobilizatutako "Recovery Plan-ari" zerbitzatu diote, eta industriak ia erabat erabakitako lan-programen berritasuna ekarri dute. Aitorpen hau esperientziaren baliozkotasunaren onarpen tazitu bat da eta jarraipen-berme posible bat 2014-2020 aldiari).

IEra berean, beharrezkoa da finantza-laguntza hedatzea kontzeptuaren proba, saiakera, instalazio pilotua eta frogapen-planta bezalako urratsetara; bai eta proiektu osteko jarraipena, arau aurre-

ko ikerketa, jabetza industrialak preserbatzea eta izaera ez-teknologikoko berrikuntza estaltzea ere.

Hemen gaur egun argitaratutako testuek kontzeptu berri bat sartzen dute, "Key Enabling Technology" formula bezala interpretagarri izan daitekeena, zeinen bidez batzordeak jarraipena emango bailioke "Cooperation" indarreko programari. Hala, "Horizon 2020" Esparru Programa egitura matritzial halako batez hornituko litzateke, eta hori sei "Grand Challenges" "Key Enabling Technologies-ekin" (teknologia horiek ezinbestekoak dira erronkei arrakastarekin aurre egiteko) gurutzatzearen emaitza da (G.7.2): "Key Enabling Technologies", gaur arte aipatuak, honako hauek dira:

- Nanotechnology.
- Micro and Nanoelectronics.
- Advanced Materials.
- Photonics.
- Biotechnology.
- Advanced Manufacturing Technologies (azken honek izaera horizontala luke, aurrekoen alderdi industrialak barnean hartuz).


Puntu honetan arestiko gogoetek berriro aipatzen dituzte Zazpigarren Esparru Programan abian jarritako esperientziak industriapartaidetza estimulatzeke helburuarekin. "European Technology Platforms" (ETPak), "Joint Technology Initiatives" (JTIak) aipatzen dira eta lehen aipatutako PPPak. Azkeneko dokumentuek baieztatzen dute ekimen hauen guztien arrakasta tarteko direnen konpromiso indartsu batetik, gobernantza sinplifikatu eta efizientetik eta jarduerak inplementatzeko egitura egoki batzuetatik pasatzen dela.

EITek negoziara bideratutako bere planteamenduan jarraitu behar du, inbertsio pribatua berrikuntzan mobilizatuz. Aldi berean, eta SETplanen testuinguruan ("Strategic Energy Technology Plan"), "European Industrial Initiatives"ak (EII) abiarazi dira sektore publiko eta pribatuari beren "technology roadmap-en" baterako garrantzia ahalbidetzeko. EII horiek honako hauek dira:

- "Solar Europe" (PV and CSP).
- "European Wind".
- "Bio-Energy Europe".
- "European CO₂ capture, transport & storage".
- "European electricity grid".
- "Sustainable nuclear fission".

Baliteke SET-Plan energetikoa paradigma izatea, zeinetan oinarrituko diren beste antzeko ekimen batzuk jarduera ekonomikoaren funtsezko beste sektore batzuen inguruan. CIP esperientzia ere berriro aipatzen da, bereziki baikorra ETEen lehiakortasunari buruzko txostenen arabera, berrikuntzaren alderdi ez-teknologikoetan azpimarra jarritz. Uste izatekoa da aipamen horiek guztiek, berriz ere,

G.7.2 Grand Challenges eta Key Enabling Technologies-en arteko harremana



haren jarraipenaren bere gain-hartze taktikoa adierazten dutela “Horizon 2020” Esparru Programaren testuinguruan

Gaur egun 2014-2020 aldiak eskura dauden aurreikuspenek ETEen partaidetza handiago baten garrantziaz hitz egiten dute; partaidetza horri paragrafo batek nabardura ezartzen dio honako hau baieztatuz: “ez dela ahaztu behar ETEen behar askoz hobeto artatzen direla erregio-mailako laguntza proportzionatuaren bidez, kohesio-funtsak barne direla”.

2014-2020 aldirako planteamendu berriak atentzioa deitzen du gogoraraziz ikerketaren eta berrikuntzaren finantzazio pribatuaren maila baxua botila-lepo handi bat dela geroko europar garapenerako. Ildo horretatik “Green Paper-ak” “Risk Sharing Facility-k”, CIPeko finantza-tresnek Europar Inbertsioen Bankuaren Taldearen lankidetzak lortu duen arrakasta jasotzen du merkatuaren akatsak gainditzeko orduan. Aurreko esperientzia horietan oinarriturik, etorkizuneko ikerketa eta berrikuntzako programek intentsiboki erabili beharko dituzte finantza-tresna horiek (“Budget Review-n” proposaturiko “EU Equity and Risk Sharing Platform” EBeko mekanismoen bitartez) ikerketaren emaitzak merkaturatzea, enpresa berritzaileen hazkuntza eta azpiegitura handietako inbertsioak sustatzeko.

Eskema berriak planteamendu berriak ere kontsidera ditzake, batez ere azken erabiltzaileak inplikatze asmoarekin eskaeraren estimulari asoziatuak, publikoak eta pribatuak, urrats goiztiarretan eta berrikuntza-prozesuan. “Innovation Union” kontzeptuak aprobetxatu egin nahi du erosketaren publikoaren ahalmen guztia berrikuntza sustatzen, urrats aurre-komertzialean garatutako eragiketak barnean sartuz. Hori guztia gauzatu daiteke oraindik indarrean dauden CIP eta FP7ren testuinguruko ekintza pilotuetan.

· *Strengthening Europe’s science base and the Europe Research Area*: europar zientzia oinarritzak munduko emankorren artean dago, nahiz eta beharrezkoa izan aitortzea ez dituela nahikoa bikaintasun-nitxo sakonerako egitura-aldaketak sortzeko oinarritzko ikerketan.

Estatu Kideek arduradun nagusiak izaten jarraitzen dute ikerketa publiko lehiakor baten eraikuntzan; aldiz, erkidegoaren laguntzak balio erantsiaren ekarpena egin dezake Ikerketako Europar Gunearen eraikuntzari egindako ekarpenaren bidez (“European Research Area” ERA).

FP7an zehar, “Ideiak” programaren kudeaketaren arduraduna den “European Research Council”, sortzea urrats handi bat izan da europar bikaintasunerantz oinarritzko ikerketan. 2014-2020 aldian hura indartzea etor liteke nola kudeatuko duen programaren pisu erlatibotik hala erabilitako tresnetatik. Ikasi beharra dago mundu-mailako bikaintasuneko ikerketa-erakundeak mantentzea lortu du-

ten erregio eta herrialdeetatik, funtsean finantzazioa biltzeari eta erakunde-laguntzako proiektu eta eskema berriei emandako laguntzen konbinazio onari esker.

Epe luzera, munduko bikaintasuna soilik lortu eta mantendu ahal izango da Europa osoko ikertzaileak baliabide egokiak baldin badituzte eta beharturik badaude lehiaren aritzera haintzatespen-maila gorenak lortzeko. Horrek Estatu Kideei oinarritzko ikerketaren modernizazioko agenda anbiziotsuak eskatzen dizkie, bai eta haien finantzazio-formulak ere.

Erkidego-agintaritzak programari buruz gaur egun duen jarrerak Marie Curieren ekintzak arrakasta handizat hartzen ditu ikertzaile berrien prestakuntzan eta ezagutza-transferentzian, batez ere hezkuntza- eta industria-munduaren artean egindako trukeen bitartez. Hori, berriz ere, zantzu indartsu bat da CSFRI ekimen horiek mantentzearen alde.

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, planteamendu ongi desberdinak erabiltzearen beharra aldarrikatzen da lankide den “third country-ren” tipologiaren funtziotan; beti ere elkarrekikotasuna eta oreka egokia bilatuz europar lehiakortasuna sendotzearen helburuen eta erronka globalen erantzun zuzenaren artean.

7.3. “Horizon 2020” Esparru Programak planteatutako agertoki berriaren sintesia

Aurreko informazioa laburtuz eta interpretatuz, honako hauek dira joera handiak, zeinen gainean itxuraz oinarrituko den “Horizon 2020” Esparru Programa berria:

- Gaur eguneko ikerketa eta berrikuntzako programa guztien integrazioa ekimen bakar baten testuinguruan efikazia handiago baten azken asmoarekin sortutako ezagutza berriaren emaitzak merkaturatzerakoan.
- Berrikuntzako osagaiaren gero eta garrantzi handiagoa, izaera ez-teknologikoko berrikuntza barne dela.
- Konplexutasun eta sinplifikazio gutxiago; erronka handietan ahaleginak bildu behar direla eta administrazio-kudeaketa erraz, laster eta bateratuagoa esan nahi du horrek.
- Izaera matritzaleko programa-egitura, “Erronka Handien” “Teknologia Ahalbidetzailerikiko” (“Key Enabling Technologies”) intersektzioz.
- “Cooperation”, programari seguru asko eutsi egingo zaio, bai eta neurri handiagoan edo txikiagoan arrakastatsutzat jo diren ekimenak eta egiturak, hala nola: Marie Curie, “Public Private Partnerships” (PPPak), “European Research Council”, “Joint Technology Initiatives” (JTak), etab.
- Gero eta sinergia handiagoa programaren eta industria-inbertsioa finantzatzeko beste tresna batzuen artean.
- I+G+b-ri laguntzeko nazio- eta erregio-programetikiko koordinazio handiagoa.

7.4. Euskal Herriaren jarrera “Horizon 2020” (2014-2020) Esparru Programaren aurrean

Nahiz eta oraindik goiz izan “Horizon 2020” Ikerketa eta Berrikuntzako Europa Batasunaren Esparru Programaz hitz egiteko, izan ere oraindik ezezagunak dira haren funtzionamenduaren lerro nagusiak eta aurrekontua, europar-mailan I+G+b jardueratan dabiltzan Euskal Eragile nagusien multzoak adostu egin du dokumentu bat, zeinek islatzen baitu Europar Batasuneko Esparru Programen funtzionamenduaren alderdi garrantzitsuenei buruzko jarrera bat, ondoren agertuko duguna.

7.4.1. Iritzia “Horizon 2020” Berrikuntza eta Ikerketako Esparru Programaren etorkizuneko egituraz

Azken informazioen arabera “Horizon 2020” Ikerketa eta Berrikuntzako Programa berria hiru zutabetan egituratzen da: oinarritzko ikerketa eta mugikortasuna, lehiakortasunerako ikerketa eta Erronka Handietarako ikerketa (“Grand Challenges”). Egitura horrek sinplifikatu egin lezake gaur eguneko Esparru Programa, sistema konplikatzen duten tresna eta prozedura berriak sortzera jo baitu.

- Proposatutako programa-egituran bereizi egiten dira lehiakortasuna eta erronka sozialak. Euskal Herriak gizarte-berrikuntza lehiakortasun-erronkekin eta enplegua mantentzearekin ulertzen da, ez era independentean.
- Oinarritzko da “Horizon 2020” Esparru Programaren muina lankidetzako ikerketa izatea, kontuan hartzen bada Lankidetzako programa VII. Esparru Programan.
- Beharrezkoa da gaur eguneko programa-egitura errotik sinplifikatzea, halako moldez non “leihatila bakar” (one stop shop) kontzeptura iristea lor dadin berrikuntza eta ikerketako Europa programa guztientzat eta, gainera, laguntza-programen izapideak uniforme bihurtzea proiektuak aurkeztu, ebaluatu eta negoziatzeko prozedura bakarrak hornituz, denbora laburragoetan.
- “Bottom-up” ideiak Eragile gehiagok parte hartzearen motor gisa: garrantzitsua da leku gehiago ematea “behetik gora” sortutako ideiei. Gaur eguneko Esparru programak gehiegi gidatzen du ikerketa dagoeneko definitutako “topic-etara”, eta horrek mugatu egin dezake sormena, berrikuntza eta erakundeen partaidetza ere ez badituzte ikusten islaturik beren ikerketa-estrategiak aipatutako “topic” horietan. “Horizon 2020” Esparru Programa Berrikuntza Irekiko planteamenduz hornitu beharko litzateke eta parte hartzeko gune irekiago eta informagoak (bottom-up) sustatu, zeinetan izango baitu kokagunea nola ikerketak hala mugikortasunak eta/edo berrikuntzak, sortutako sareen eta proiektu formalen kanpotik. Halaber, hori izan liteke enpresa berriak parte hartzera bultzatuz litzatekeen bide bat, ETEak batez ere. Gaur egun “ETEen Onurarako Ikerketa-k” bakarrik ahalbidetzen du proiektu mota hau, baina Euskadiko partaidetza-esperientziaren arabera, ez da jotzen enpresentzat behar bezain erakargarria denik. Programa hori berrikusi eta hobetzea proposatzen da.
- Ideiak programa funtsezko eta arrakastazko tresna bat izan da VII. Esparru Programan. Beraz, baikorra da programa horri jarraipena ematea Europar bikaintasuneko Oinarri Ikerketa sustatzeko. Ideak programaren barruan ikertzaileen mugikortasuna arrakastarako faktore gehigarri bat izan liteke.

- Ikertzaileen mugikortasun-bulkada mundu akademikoaren eta enpresarialaren artean: orain arte People programak pisu handiagoa ematen dio pertsonen mugikortasunari ikerketa-erakundeen artean. Beharrezkoa da unibertsitateetatik eta ikerketa-zentroetatik enpresetarako eta alderantzizko mugikortasuna finantzatzeko duten jarduerak indartzea.
- Lankidetzaproiektuen egiturari dagokionez, malgutasun bat proposatzen da partzuergoak izatea ahalbidetu ahal izateko moduko partener kopuru mugatu batekin, haren barne-funtzionamendua erraztuko duena; neurri horrek erraztu egingo luke tamaina murriztuko Enpresa Produktiboen partaidetza (ETEak) eta aldi berean izaera estrategiko edo estandarizatzailea duten proiektuetarako 30 partener baino gehiagoko partzuergoak izan daitezzen; efektu hori lortzeko berrituratu egin beharko litzateke proiektuen tipologia.

7.4.2. Enpresa Txiki eta Ertainen papera indartzea

Europar aberastasunaren oinarria eratzen duten ETE Tamainako Enpresa Produktiboen kopurua handia izanik, erkidego-mailan I+G+b jardueratan haien partaidetza errazten duen edozein ekintza etorkizun jasangarriago bat haiei segurtatzen arituko zaie gaur eguneko ekonomia-testuinguruan. Gainera, ETE Tamainako Enpresen artetik, bi talde handi bereiz daitezke Europar Programetan parte hartzeko era desberdinak dituztenak:

- Enpresa txiki, edo ertainak, I+G jarduerak burutzeko barne-gaitasuna dutenak, zeinen partaidetzaren alde egin daitekeen honelako politikien bitartez:
 - Partaidetzaren gutxieneko bati eutsi proiektu handien %15 eta 20 bitartean proiektu handietan.
 - Laguntza-mekanismoak bultzatu IP motako I+G-ari edo ETEentzat STREPS motakoa, deialdi irekiagoekin ikerketa-gaiei dago-kienez, eta sozioen kopuru mugatu batekin.
 - ETEen presentzia erraztu proposamenak ebaluatzeko irizpideen bitartez.
- Enpresa txiki edo ertainak I+G jarduerak burutzeko barne-gaitasunik gabeak, zeini “Research for the benefit of SMEs” Programek balio ukaezinen ekarpena egin diezaiekeen, haren funtzionamendua optimizatzen bada bakarrik, ordea. Ildo horretatik, I+G jarduera azpikontratatzeko asoziatuko liratekeen enpresen taldeak sortzea erraztuko duten dinamikak babestea izan liteke hobekuntza bat.

7.4.3. Partenergo Publiko-Pribatuak

Eragile zientifiko-teknologikoen eta euskal enpresa askoren esperientzia Partenergo Publiko-Pribatueta (PPPetan), batez ere “Factories of the Future” eta “Energy Efficient Buildings-etan”, oso baikorra da ekimen mota honen eratzearen lehen urratsetatik tarteko izateak barruti pribatuari ahotsa eman ahal izan dio, behetik gora, ikerketa-estrategiak erabakitzea ahalbidetu du europar ekimen hauetan. Hala eta guztiz ere honako hau proposatzen da:

- PPPen arauak, prozedurak eta kudeaketa homogeneotzen lan egitea.
- Erabateko gardentasuna aurrekontuak maneiatzen (diru publikoa beti erakunde publikoek kontrolatu behar dute).
- Kasu guztietan ikerketako enpresen eta erakundeen bidezko sarre-ra monitorizatu.

7.4.4. Ikerketa aurre-lehiakorra berrikuntza eta merkatuarekin konektatzeko beharra

Euskaditik ikerketa baliagarria aldeztu da, balioa sortuko duten lanpostuak emango dituena. Horretarako, erabakigarria da “Horizon 2020” Esparru Programak bere barruan hartzea berrikuntzaren ziklo osoa, arrakasta frogagarriko emaitzak dituzten proiektuei aukera emanez frogapeneko eta merkatuetan sartu eta haiek desberdintzeko faseetaraino iristeko.

Ildo horretatik, inplementatuak izan daitezkeen honako jarduerak proposatzen dira:

- **Finantzazio automatikoko mekanismoak** ikerketaren emaitzak ustiatzea segurtatzeko dutenak. Adibideak:
 - **Luzapen-mekanismoak:** Finantzazio automatikoa Ikerketa Esparru Erkidea berriaren bitartez emaitza arrakastatsuek frogatuak dituzten I+G europar proiektuei.
 - **“Label” mekanismoa:** Finantzazio automatikoa nazio- edo erregio-programen bitartez emaitza arrakastatsuek frogatuak dituzten I+G europar proiektuei.
 - Kontuan izan ikerketa berrikuntzarekin eta merkatuarekin lotzeko dagoeneko garatutako jarduera onak, adibidez, Lehiakortasun eta Berrikuntzako Esparru Programan (CIP) Eko-berrikuntzako merkatuan erreplikazio-proiektuak, frogapen-proiektuak Energia Gaiako deialdietan VII. EPN edo EITek EITek abiarazitako KICetan Jarduera on horiek gaur egun begietsitakoak baino barruti gehiagotara transferitzea. Mekanismo mota horren kasuan, alderdi pribatutik inplikazioa ekonomiko handiago bat beharko litzateke, eta aldi berean txikiago bat alderdi publikotik, ikerke-

tatik eratorritako produktuak edo zerbitzuak ustiatzeko ahalbi-deekiko enpresa-konpromisoaren erakusgarri gisa.

• **Pertsonen transferentzia inpaktua sortzeko:** Ikertzaileen mugikortasuna sustatzea era malguan proiektuaren beraren bizitzaren barruan, batez ere enpresarantz, bai eta partzuergoen geometria aldakor bat ahalbidetzea, hau da, kide berriak sartu ahal izatea ustiapen- eta/edo industrializazio-urratsak burutzeko baina jabetza intelektualeko eta ikerketa-urratsean lortu diren emaitzen patenteak mantenduz.

• **ERA-NET ekimenen jarraipena** ikerketa aplikatuari laguntzeko baliozko formula bezala: azken urteetako emaitzek erakusten dute **ERA-NET ekimenek** abiarazitako deialdiek:

- Aukera ematen dutela VII. EPn baino Partzuergo txikiagoetan eta merkatutik hurbilago daudenetan lan egiteko.
- ETEen partaidetza sustatu eta errazten dutela.
- Finantzazio-mekanismo bat eratzen dutela prozedura sinplifikatuago batzuekin.
- Politika eta programa nazional eta erregionalen koordinazioa lortzen dutela proiektu transnazionalak finantzatzeko, ERA eraikitzen lagunduz.

Ildo horretatik “Horizon 2020” Esparru Programan ekimen hauek lagundu eta indartzea proposatzen da, finantzazio gehigarri ere bai EEn aldetik. Ildo horretatik, ERA-NET PLUS formula administratibo konplikatu da gobernu nazionalak eta erregionalek beren gain har dezaten, beraz berrikustea aholkatzen da.

• Berrikuntza Adierazleak finkatzea: emaitzen jarraipen egoki bat egiteko emaitzen ustiapenarekiko adierazle koherente batzuk finkatzea komeniko litzateke, hau da, emaitza baikor batzuk emango balira horiek sarituko litzatekeen finantzatze-faktore aldakor batzuk egotea. Adierazle horiek bete beharko litzatekeen funtzioen artean hauek nabarmentzen dira:

- Adierazleek, ahal den neurrian eta proiektuaren edo tresnaren bizitzako une jakinetan haren jarraipena determinatzeko balio beharko lukete; hau da, “go/no go” motako adierazleak izan beharko lukete, ebaluazio eraginkorra egiteko gai izatea eta behar izanez gero, bai proiektuak eta bai tresnak “hiltze-” erabakia hartzeko.
- Proiektu-mailako eta programa-mailako adierazleak beharko lirateke (“Grand Challenges-ek” nolako bilakaera duten jakiteko, adibidez). Programa-adierazle horiek enblematikoak edo alderdi programazkoen adierazgarriak izan beharko lukete; adierazle horiek programa bakoitzari esleitutako aurrekontuak aldatzeko aukera bultzatu beharko lukete haien emaitzen arabera.

- Adierazle-sistema egoki bat tresna egoki bihur liteke Bulkada estrategiko bat emateko Gizarte Berrikuntzarekin zerikusia duten gaiak.

Proiektuen jarraipena errazteko “Gehigarritasuna” ebaluatzen aukera emango duten adierazle batzuk ezartzea proposatzen da, hiru barruti bereiziz:

- “Input” gehigarritasuna: Euro publiko bakoitzak eragin dezala alderdi pribatuak ere gutxienez euro bat mobilizatzea, finantzazio pribatuaren palanka-efektua eta efektu biderkatzailearekin; palankaz jasotze hori erregio-finantzazioari ere ezarri beharko litzaike.
- “Output” gehigarritasuna: Alderdi publikoak egindako euro baten ekarpenak sor dezala emaitzak ezartzearen bidez gutxienez euro 1eko eragin/onura. Adierazle horien adibide bat sortutako patenteak eta haren ustiapenarekin kideuriko diru-sarrerak izango lirateke.
- “Portaera” gehigarritasuna: Euro publiko bakoitzak, lehen esandakoaz gainera, sor ditzala enpresen portaera berritzailean aldatetarako, halako moldez non finantzazio publikoa kenduz gero, portaera hori mantenduko den. Ildo horretatik iradokitzen da I+G partzuergo bateko bazkideek lortutako berrikuntza eta lorpenen historiala kontuan har dadila proposamenak ebaluatzerakoan.

Bestalde, proposatuko diren adierazle-sistemek lerrokatutik egon beharko lukete Europar Berrikuntzako Adierazle Panelkoekin (IUS), neurketa-sistemari koherentzia bat bilatzeko.

7.4.5.

Finantzazio-programak sinplifikatzea

Esparru Programan etengabeko bilakaerak, urteetan zehar, hobekuntza argiak ekarri ditu; gaur egun, hala ere, tresna, prozedura, ebaluatze-prozesu etab. Desberdinak izateak buruko min ugari sortzen ditu, bai eta enpresa asko Europa Programetara ezin hurbildu ahal izatea mekanismo horiek duten konplexutasunarengatik. Horrengatik guztia-rengatik ezinbestekoa da nola prozedurak hala mekanismoak errotik sinplifikatzea proposamenak aurkeztu eta proiektuak garatzeko, bai eta finantza-mekanismoak ere, zeinek eskatzen baitute sinpletasun handiago bat programa guztietarako, batez ere ETEei eskainitakoetan.

Funtzionamendu-prozedurei dagokienez, hobekuntza sail zabal bat identifikatu daiteke, eta horien artean honako hauek nabarmendu daitezke:

• Tresna Telematikoak

Kudeaketak egiteko leihatila bakarra behar dela nabaritu da. Par-taideen sarbidea erraztuko duen web tresna bateratu bat, identi-

fikazio-kode bakar batez hornitua (PIC) "Horizon 2020" Esparru Programaren edozein deialdirako balioko lukeena bai eta Zuzendaritza Orokorren beste programa batzuetarako ere. Gainera sarbide horren zerbitzuak ZO guztien justifikazioetara heda litezke, homogeneoak eta digitalki tratatuak izan daitezzen.

Tresna erkide honek tresna egonkorra izan beharko luke, sistemen eguneratzeak onak dira, modifikazioak jarraituak ez direnean eta aurretiaz erabiltzaileei haien berri ematen zaienean Baliozkotzeei dagokienez, ulertzen dugu tresna honek baliozkotze-sistema sinplea izan beharko lukeela, ETEentzakoak batez ere, modifikazioak egiteko aukera eman eta etorkizuneko Esparru Programetan baliozkotze bezala balio dezan.

• Gardentasuna eta efizientzia

Kontua da "Horizon 2020" Esparru Programa barne-hartzailea era efizientea izatea, sinplifikazioa eta gardentasuna haren funtzionamendua gidatuko duten bi elementu izatea, egitura sinpleago bat lortzeko helburuarekin, gabeziak dituzten edo zuzen funtzionatzen ez duten tresna zaharkituak ezabatuz eta, gainera, helburuak eta bitartekoak egitura nazional/erregionalekin lerrotatuz. Prozedurek sinpleagoak izan beharko lukete, ebaluatze-prozesu hobetu bat izan dezatela, Programaren bizi-zikloko urrats desberdinetarako sarbidea eman dezatela eta kontabilitate-printzipio sinple, argi eta bateratuekin, konplexutasun-maila globala lortu nahi den helburuarekiko egokia izan dadin: errore-aukera murriztu eta iruzur posibleak saihesteko. Etorkizuneko "Horizon 2020" Esparru Programarako jarduera ontzat jotzen da EEaren aldetik justifikaziotan prestakuntza ematea eta kontsultak ebazteko kontaktuko pertsonak erraztea.

Work Programmes-en zirriborroetarako sarbideak berdina eta goiztiarra izan beharko luke, bai eta kontaktuko pertsonarekin komunikatzeko aukerak ere ZO bakoitzean ideien atariko operatika eta txkeatzeari dagokionez.

• Deialdien egitura

Deialdien egiturari dagokionez, urtea joan eta urtea etorri egonkorak izan beharko luketela kontsideratzen da, proposamena aurkezteko urrats pare bat edo birekin topic-aren arabera. Arrazionalizatu egin beharko lirateke alderdi batzuk Energia eta Osasuna alorrei buruzko kasua izan daitekeenez, zeinak, lan espezifikoko beren programaz landa, programa desberdinetan barreiaturik agertzen baitira, nahiz eta efizienteagoa litzatekeela elkarturik mantentzea uste den, zeren eta informazioa galtzen baita eta gaiarekin zerikusia duten programetarako sarbidea. Programak irekiagoak eta "bottom-up" prozesua (FET, Reasearch for SME...) erraztea iradoki-

tzen da, eta horrekin definituriko topic-etan egokitu daitezzen proiektuak makilatu behar izatea saihestuko litzateke.

• ERA-NET

ERA-NET proiektuak abian jartzerakoan haien kopurua mugatzea, edo gutxienez hobeto planteatzea proposatzen da, Estatuena eta Erregioen finantzazioaren koordinazio eta egituratze handiago bat ahalbidetzeko eta konpromisoen, ebaluazioen, laguntza homologagarriak emateko denbora-arauen maila hobeak lortzeko, eta abarretarako.

• Sinplifikazio finantzarioa

Esparru programetako alderdi finantzarioetan sar daitezkeen hobeakentzei dagokionez honako hauek aipa daitezke:

- "Average cost" ideia baikorra da. Baimena ematen da erregio/herrialde bakoitzeko kontabilitate propioko arauak ezartzeko, "2 kontabilitate" pare pare eraman beharrik ez izateko.
- Arau orokor gisa, baztertu egiten da "Lump Sum" kontzeptua eta haren erabilera beste aukera kontablerik ez dagoen kasuan bakarrik egin daitekeela kontsideratzen da.
- Aurre-finantzazioaren eskemari eustea iradokitzen da.
- Aholku ematen da Batzordeak ordainketak egin ditzan behar bezala justifikatu bada, bazkideetakoren batek egin ez badu ere.
- Proiektuan egokitzen diren baina justifikazio-alditik kanpo gertatzen diren kostuak justifikatzeko aukera proposatzen da ("0" urratsa, edo frogapen-proiektuak).

7.4.6.

Programa erregional, nazional eta europarren arteko koordinazioa

I+G+b jardueratako partaidetza europar mailako lankidetzan onuraturri da, nola Enpresentzat hala Teknologia Zentroentzat eta Unibertsitateentzat, eta kontaktu-sare zabala finkatzeko aukera emateaz gainera, finantzazio-iturri garrantzitsu baten ekarpena egiten die jarduera horietarako, eta eskuratutako ezagutzak merkatu berrietara produktu berriei sartzeko aukera ematen die.

Edozein modutara, I+G+b jarduerari laguntzeko sare bat finkatu ahal izateko, produktu berritzaileak sortzea eta ehun industrialaren jasangarritasuna lortu ahal izatea erraztuz gaur eguneko ekonomia globalizatuko testuinguruan, beharrezkoa da **arauen lerrotzea eta koordinazioa indartzea tresna erregional/nazional eta europarren artean**, hau da, I+G+b-aren finantzaziorako esparru erkide bat behar da. Hartara programa erregional eta/edo nazionalen integratze mailakatu baterantz jo beharko litzateke, nahiz eta aldaketa horien in-

plementazioa ataza zaila dela iruditu epe labur eta ertainean lortzeko araudi-aldaketa bat eskatzen baitu.

Ekintza koordinatu bat burutu ahal izateko maila erregional, nazional eta europar desberdinen artean, soluzio bat izan liteke gai desberdinak finantzatzea finantzazio-aukeren aldaera zabal bat izateko, baina modu hori bide interesgarria izango balitz ere nahikoa baliabide duten enpresa handientzat proiektu mota desberdinak egin ahal izateko eta maila guztietan finantzazioa eskatzeko, hala ere ondorio ezkorra izango luke ETEentzat, zeinen baliabideak esleitzeko gaitasuna askoz mugatuagoa baita.

Beraz, euskal industria-egiturak programa desberdinak (erregionalak, nazionalak eta europarrak) lerrokatuak egotea behar du, **I+G lerro estrategiko erkide bat izatea**, gai beretan lan egiteko aukera emango duena (adibidez, CENIT espainiar mailan, eta Etorgai euskal mailan, europar finantzazioaren erreplikak dira). Gainera, maila-egitura hori sortzeak aukera emango lieke enpresei, urteak igaro ahala, erregio-mailatik europarreraino igotzeko (ERA-NET eskema). Enpresentzako laguntza-prozesu hau, ETEentzako batik bat, haien I+G jarduerak europar-mailara bideratzera gidatua garrantzi handikoa da, zeren eta erregio-mailako aukera finantzarioak murriztzak baitira.

Ildo honetatik, aukeretako bat **erregioek proposamenak finantzatzea izango litzateke, European ongi balioetsiak izan bai baina finantzatuak izatera iritsi ez direnak**. Proposamen horiek erreskatatuak izan litezke, adibidez ERA-NET deialdien bitartez. Horretarako beharrezko izango litzateke mekanismo sinpleren bat sustatzea, zeinen bidez proposamena aurkezte hutsa aski izango bailitzateke finantziorako sarbidea izateko, baina horrek gaur indarrean dagoen araudiaren aldaketa eskatuko luke. Hala, eta kontuan izanez kofinantzazioa gaurko egoeran utopia bat bezala aurkezten dela, European finantzatuak izan ez dena finantzatzeko aukera planteatzen da, kofinantzazioaren ordez.

Nolanahi ere, Tresnen arteko edozein koordinazio nazioen eta erregioen finantzazioaren egituratzean sostengatu beharko litzateke baina gaurkoa baino (ERANET, Eureka, Eurostars) koordinazio handiagoarekin eta konpromiso-maila azpimarratuagoekin ebaluazio-arau erkideak, laguntza homologagarriak emateko arau tenporalak, etab. izatera iritsi ahal izateko "ERANET Plus" tresnaren kasuan. Desiragarria litzateke egitura eta funtzionamendu zehaztuago bat izatea, "learning by doing" delakoa saihesteko.

Gainera, eskalaren maila baxueneko jarduerak errazteko, proposatzen da **Inbertsioen Europa Bankuaren** mekanismoek gai izan beharko luketela barrutirik txikienetara (**inbertsio txikiak**), iristeko, horregatik gehitu egin beharko lirateke arrisku partekatuko tresnak alderdi pribatu

tu tarteko izan dadin batez ere proiektuaren emaitzak ustiatu behar diren urrats haietan.

7.4.7. Zientzia eta berrikuntzaren gizarte-dimentsioa

Euskal Herrian ustea da gizarte-berrikuntzak integraturik egon behar duela lehiakortasun eta enplegua mantentzearen erronkekin, horregatik "Horizon 2020" Esparru Programa ez da gai izango haren eragin potentziala optimizatzeko aktore inplikatu guztien erabateko integratuz gabe, eta horrenbestez ezin izango dira lortu ERAren helburuak zientziaren eta berrikuntzaren gizarte-dimentsioa bertan sartu gabe. **Zientziaren gizarte-dimentsioa zeharlerroko** gai bezala kontsideratu beharko litzateke aplikatu daitezkeen tokian kontuan hartu behar dena, hala kultura zientifiko eta berritzaile bat sustatzera jotzen duen estrategia bat bultzatzeko maila guztietan eta Esparru Erkideko Zientzia eta Teknologiako edukietan gizartea tartean sartuago egotearen beharrari erantzun diezaiola.

Horregatik kontsideratzen dugu **jakintzagaiartekotasuna eta partaidetza eragile-aniztuna bultzatu behar direla** nola partenergoetan hala I+G+b-aren edukietan alor desberdinetan, bai eta irabazi-asmorik gabeko sektoreko erakundeetan, **hirugarren sektore** bezala ezaguna den horretan, eragile gako eta berrikuntzen azken onuradun bezala kontsideratuak izan beharko lukete, ETEez gainera. Kontua da Europa eskemetan sarrera ematea "hain handiak ez diren eragileei" eskuarki presente egoten diren erakunde handiez gainera.

ESFRIren portaera Europako ikerketa-azpiegituretan politikak ezar-tzeko planteamendu koherente bat egitea da, eta ekimen zehatzei buruz nazioarteko negoziazioen inkubatzailerik bezala jokatzeko. ESFRI bereziki Europar Mapa bat prestatzen ari da interes paneuroparreko ikerketa-azpiegitura berriak sortzeko.

ETE

250 langile baino gutxiagoko enpresa independentea denbora osokoen baliokide direnekin, urtean 40 M€-ko negozio bolumena txikiagoa duena edo 27 M€ baino gutxiagoko balantzea duena, bere kasuan kapital sozial partekatua %25 baino gutxiagorekin enpre-sa handien aldetik (inbertsio-elkarteak edo arrisku-kapitalekoak izan ezik), finkatua eta Europako Batasunak finantzatzeko aukera duen herrialde batean jardueratua duena. Teknologia-estimuluko neurrien efektuetarako, bazterturik geratzen dira enpresa aholkulariak eta I+G zerbitzuak bakarrik ematen dituztenak.

ETP (European Technology Platform) Europar Teknologia Plataforma

Teknologia Plataformak sektore bakoitzeko industriako ordezkari garrantzitsuenen taldekatzeak dira, zeinek elkarrekin lan egiten bai-tute Ikerketa Estrategikoaren Agenda definitu eta inplementatzeko helburuarekin (Strategic Research Agenda, STA) Europar Teknologia Plataformak zenbait alorretan sortu dira, zeinetan europar lehiakor-

(1) Eskerrak ematen dizkiegu CIC marGUNEri eta Tekniker-IK4ko Javier Garciarri Eranskina hau egi-tean emandako laguntzarengatik.

tasuna, hazkuntza ekonomikoa eta ongizatea epe ertain eta luzeko aurrerapen ikertzaile eta teknologiko garrantzitsu baten baitan dauden. ETPEk lagundu egin dute Gaiak definitzen FP7ko Lankidetzaren Programan, industriarentzat garrantzi berezia izan duten alorretan batik bat. SRAren inplementazioa lankidetzaren Programak lagundurik egongo da egiazko balio erantsia eratzen duten alorretan.

FP (Framework Programme) - Esparru Programa

Esparru Programa da tresna nagusia eta haren bitartez Europako Batasunak I+G+b-a bultzatzen du.

FP5 (Framework Programme Five) Bosgarren Esparru Programa (1998-2002)

Bosgarren Esparru Programaren helburua industria-lehiakortasuna eta europar hiritarren bizi-kalitatea gehitzea zen.

FP6 (Framework Programme Six) Seigarren Esparru Programa (2002-2006)

Seigarren Programak lankidetzaren ikerketari eta ikerketako ahaleginak integratzeari laguntzen zion, mugikortasuna eta koordinazioa sustatzen ditu, eta ikerketaren mugikortasunean inbertitzen du Europako Batasuneko beste politikak bultzatuz.

FP7 (Framework Programme Seven) Zazpigarren Esparru Programa (2007-2013)

“Hazkuntzarako ezagutzaren europar ikerketa-gunea eraikiz”. FP7 Europako Batasunaren lehiakortasun- eta enplegu-beharrei erantzuteko diseinaturik dago.

ICT (Information and Communication Technologies)

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak.

IST (Information Society Technologies)

Informazioaren Gizartearen Teknologiak.

Itzulkin

“Itzulkin” izendapena Europar Batzordearengandik lortzen den Finantzazioa izendatzeko erabiltzen da, I+G+b laguntza-programa desberdinen bitartez. Izendapen hori, Europar Batzordeko aurrekontuak, zeinetatik eratortzen baitira Esparru Programetan banatutako funtsak, Estatu kideen ekarpenen baturatik sortuak izatetik eratzen da, eta haietako bakoitza ordezkagarritasun-ehuneko baten arabera determinatzen da (Espainiar Estatuari %8 bat dagokio Europako Batasuneko guztizkoan). Horregatik Estatu espainiarreko eragile guztiak lortutako finantzazioaren zifra batzen direnean sortzen den zenbatekoa Estatuaren ekarpen guztizkoarekin erkatzen da, eta kasu ho-

retan “itzulitako” zifra hitz egiten da “ekarpen-zifra” kontrajarriz, erkatetaren balantzea baikorra edo ezkorra den jakiteko azken helburuarekin.

NMP (Nanotechnology and nanosciences, knowledge-based multifunctional materials and new production processes and devices)

Nanoteknologiak eta nanozientziak, ezagutzaren oinarritutako material funtzio-aniztunak eta ekoizpen prozesuak eta dispositibo berriak.

PCEIS 2006-2009

Enpresa Lehiakortasuna eta Gizarte Berrikuntzaren Euskal Plana 2006-2009.

SRA (Strategic Research Agenda) Ikerketa Estrategikoaren Agenda

Ikus “ETPreko definizioa”.

TTZZ: Teknologia Zentroak

Euskal Herriko barruti zientifiko eta teknologikoan jarduera garatzen duten eragileak.

UCPs: University Contact Points

University Contact Points izenekoak lan-taldeak dira VII. Esparru Programako Gai Alorretan, eta horien helburu nagusia Unibertsitateen, Unibertsitate Departamentuen, ikerketa-taldeen eta abarren europar jarduera koordinatzea da, ahaleginak eta lortutako emaitza globala optimizatzeko helburuarekin.

ZTBES: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea. SARETEK 1997an jaio zen Eusko Jaurlaritzaren bulkadaz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren erabilera bultzatzen saiatzen diren erakunde publiko eta pribatu guztien ahaleginak batzeko asmoz, Euskal Herriko enpresa-lehiakortasuna hobetzeko eta garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko.

9.4.3. VII. Esparru Programari buruzko glosategia

Ondoren Europako Batasuneko dokumentuetan erabilitako terminologiaren hautespen bat aurkezten da, eta ohiko erabilerako terminologia aipatuaren ezagutza aski ez bada ere hartan aktiboki parte hartzeko, hala ere erraztu egiten du programei eta deialdiei buruzko dokumentu osoen irakurketa, bai eta solaskidetzaren ere, ofizialki onarturiko hizkuntza erkidea erabiliz, beste edozein europar eragilerekina.

Gainera, gehitu beharra dago hau ez dela glosategi orokor bat, baizik eta lehenetsi egin direla LANKIDETZA Programak erabilitako terminoak.

Azkenik, hitz garrantzitsuenak aurkezteko hautatutako hurrenkera ez dela alfabetozkoa nabarmendu behar da, baizik eta orokorrenetik partikularrenera garatu dena edo, beste aukera batzuetan, erkidego-dokumentuen hurrenkera jarraituz. Halaber, hitz gakoak beren ingelesezko terminologian tratatzen dira, izan ere Esparru Programako dokumentu guztiak hizkuntza horretan irakurtzea gomendatzen da. Euskarazko itzulpena orientagarria da eta ez du derrigor bat etorri beharrik itzulpen ofizialetan erabilitako terminologiarekin.

9.4.3.1. Programa glosategia

Framework Programme - Esparru Programa

Ikerketako Esparru Programa I+G-ari laguntzeko tresna bat da urte askoko iazera duena barruti kontinentalean. Haren zazpigarren bertsioak, gaur egun indarrean dagoenak 2007 eta 2013 urte bitarteko aldia hartzen du bere barruan.

Specific Programmes - Programa espezifikokoak

VII. Esparru Programa 4 programa espezifikotan banatzen da: Cooperation, Ideas, People eta Capacities.

Cooperation - Lankidetzaren

Formula tradizionalena da eta haren bidez funtzionatzen zuten aurreko Esparru Programek. Funtsean europar partzuergo multinazionalen burututako ikerketa estimulatzen nahi da, zeinek aldi berean mundu akademikoko bazkideak, teknologia-zentroak eta enpresak berenganatzen baitituzte. Ikerketa horrek "lankidetzaren proiektuen" forma har dezake, eta bertan bazkide bakoitzaren rol eta lan jakin bat burutzeaz, sareak, beste ikerketa-programa batzuen eta nazioarteko lankidetzaren koordinazio-formulak beste ikerketa-programa batzuekiko koordinazio-formulak eta nazioarteko lankidetzaren egiteaz arduratzen da, hirugarren herrialdeetako erakundeekin (EBeko kide ez diren eta izateko hautagai ere ez direnekin).

Ideas - Ideiak

Programa espezifikoko hau berria da, eta europar ikerketa oinarrikoena estimulatzen nahi du, ezagutza gehitzearen helburuarekin. Programa hau Ikerketako European Research Council, Europar Ikerketa Kontseilua deritzonak gobernaturik dago, zeinek administratzen baititu Frontier Research - Zientziaren Mugako Ikerketa deritzonari esleitutak, talde banakoek burutua europar testuinguruan lehiatuz, barruti zientifiko eta teknologiko guztietan.

People - Jendea (Pertsonak)

Kontua da, mugikortasunaren bitartez batez ere, europar ikertzaileak gai bihurtzea, batik bat haien karrera profesionalean zentratuz eta I+G sistema nazional desberdinen arteko harremanak estutuz.

Capacities - Gaitasunak

Programa espezifikoko honetan ikerketa eta berrikuntzarako ezinbestekoak diren baliabide jakin batzuen finantzazioa eta estimulari ekin nahi zaio: ikerketa-azpiegiturak (instalazio handiak, lehentasunez) eta haien erabilera partekatua eta optimizatua, ETEen onurarako ikerketa, kudeaketa-ikerketako "klusterrak" erregioa, europar erregioen ahalmen ikertzaile guztia desblokeatzea konbergentzia-prozesuan, zientziak gizartearekin duen harremanari buruzko gaiak eta nazioarte-lankidetzako ekintza horizontalak.

9.4.3.2. Beste definizio batzuk

Themes - Gaiak

VI. Esparru Programan lehentasunezko gaiak deitzen zirenak dira. Funtsean, glosategi honetan axola diren efektuetarako, azpi-programak dira (dimentsio handiko izendapen hori gorabehera), zeinetan banatzen baita Lankidetzako programa espezifikoa. 10 Gai dira:

- Health - Osasuna.
- Food, agriculture and biotechnology - Elikadura, nekazaritza eta bioteknologia.
- Information and communication Technologies - Informazioa eta komunikazioaren teknologiak.
- Nanosciences, nanotechnologies, materials and new production Technologies - Nanozientziak, nanoteknologia, materialak eta ekoizpen berriko teknologia.
- Energy - Energia.
- Environment (including climate change) - Ingurumena (Klima-aldaketaren barne).
- Transport (including aeronautics) - Garraioa (aeronautika barne).
- Socio-economic sciences and the humanities - Zientzia Sozioekonomikoak eta Humanitateak.

- Security - Segurtasuna.
- Space - Espazioa.

“Researcher driven” research Ikertzailearengandik bideratutako ikerketa

“Ideiak” programan diruz laguntzen den ikerketa mota definitzeko erabiltzen dena. “Lankidetzatza” programan, adibidez, gertatzen denaren aurka, non baitaude lehentasun kopuru mugatu bat finkatzen duten lan-programa batzuk, “Ideiatan” Europako Erkidegoan dauden ikerketa-talde banakoen ekimen asketik burutzen da lehiakidetzatza.

Research infrastructures - Ikerketa-azpiegiturak

Europar zientzia-instalazio handiak definitzeko nagusiki erabiltzen den terminoa. Esparru-programa honek baliabideak izendatzen ditu haren erabilera hoberako eta erkidego ikertzaile osoak sarbidea izan dezan eta, lehen aldiz, instalazio berri handiak eraikitzeko.

Regional research driven clusters Ikerketaren bideratze erregionalerako “Klusterak”

Hau ere berria da esparru-programa honetan, eta interes handikoa da Euskadirentzat; erregioaren papera aitortzen denez gero kasu haietan, zeinetan egitura ikertzaile eta/edo sozioekonomiko erasonek berek kutsu erregional bortitza baitute.

Joint Research Centre (JRC) - Ikerketako Zentro Batua

JRC EBeko ikerketako zentro publiko bat da, eta bertara daude izendatuak esparru-programako aurrekontuko dirusail zehatz batzuk.

European Institute of Innovation & Technology (EIT)

EITa Europako Batasuneko Batzordearen, beste administrazio nazional, industria, unibertsitatea, ikerketa-erakundeak eta abarren jarduera konbergentetik jaiotzen da.

Partaidetzatza pribatu oso handi batekin, bai finantzazioan eta bai kudeaketan, aldaketa kualitatiboaren elementu katalizatzaile bihurtu nahi du europar gizartearen berrikuntza-gaitasunean.

Gaur arte, EITen ekarpen nagusia “Knowledge and Innovation Communities” (KICs) izenekoak abian jartzea da. Lehen une batean eraturako lehen hiru KICak hauek dira:

- Climate change mitigation and adaptation (Climate KIC).
- Sustainable Energy (KIC InnoEnergy).
- Future Information and Communication Society (EIT ICT Labs).

Knowledge and Innovation Communities (KICs)

Partzuergo lankideak dira, finantzaz eta legez egituratuak, nahiz eta geografikoki eta gaien arabera Europako lurralde osoan barreiatu egon. KIC bakoitzaren helburua munduan bere barrutiko lider bihurtzea da, eragin neurgarriak emateko gai delarik Europako testuinguru lehiakorrean. KIC bakoitzak kontuan izaten ditu prestakuntza-alderdiak, bai eta ikerketakoak eta industria-berrikuntzakoak ere.

Joint Programming Initiatives

JPIak deituek ekimen aldeaniztunak ordezkatzeko dituzte, Batasuneko estatu batenak baino gehiagorenak baina ez guztienak elkarrekin, erronka espezifiko bati aurre egiteko. Gaur arte, Batzordeak eta estatu partaideek honako hauek aitortzen dituzte:

- Agriculture, food security and climate change.
- Cultural heritage and global change - a new challenge for Europe.
- A healthy diet for a healthy life.

JPI berriak ere identifikatu eta definitu ere egin dira:

- Connecting climate knowledge for Europe (Click’EU).
- Healthy and productive seas and oceans.
- More years, better lives - the potential and challenges of demographic change.
- The microbial challenge - an emerging threat to human health.
- Urban Europe - global challenges, local solutions.
- Water challenges for a changing world.

Knowledge-based society Ezagutzan oinarritutako gizartea

VII. EPan begietsitako neurri guztien azken helburua da. Europak bere jarrerari eutsi ezin dionez gero lehiakortasuneko faktore tradizionalak hobetzearen bidez (lehen gaien prezioa, soldata-kostua...), teknologiaraz joz bakarrik, besteek ez dakitena eginez, mantentzeko ekonomia dinamiko eta hazkuntzako bat geroko belaunaldiei enplegua seguratu diona.

European Technology Platforms Europar Teknologia Plataformak

Plataformak abian jartzea, inolako zalantzarik gabe, VII. EParen beritasun nagusia da, aurrekoarekin erkatuta. Teknologia-plataformak ekimen pribatuak dira, sektore produktibo industrialak lider dutenak, baina eragile ikertzaile guztien lankidetzatza berenganatu behar dutenak (enpresak, teknologia-zentroak eta unibertsitateak) eta ikerketaren eremu kritikoei kontu egiten dietenak europar lehiakortasun, hazkuntza eta biztanleriaren ongizaterako, epe labur eta luzean. Nahiz eta plataformek ekimen industrialaren emaitza bezala jaiotzeko behar

duen, EBeko Batzordeak halakotzat hartzen dituenen bakarrik dute izazera ofizialaren karta.

Europako Batasunak aitortutako teknologia-plataformak hauek dira:

- Advanced Engineering Materials and Technologies - EuMaT - Materialen eta haien teknologien ingeriaritza aurreratua.
- Advisory Council for Aeronautics Research in Europe - ACARE - Aholku Kontseilua aeronautika-ikerketarako Europan.
- Embedded Computing Systems - ARTEMIS - Sistema txertatuak.
- European Biofuels Technology Platform - BIOFUELS.
- European Construction Technology Platform - ECTP - Eraikuntzaren Europar Teknologia Plataforma.
- European Nanoelectronics Initiative Advisory Council - ENIAC - Europar ekimeneko Aholku Kontseilua nanoelektronikan.
- European Rail Research Advisory Council - ERRAC - Europar Ikerketako Aholku Kontseilua trenbidean.
- European Road Transport Research Advisory Council - ERTRAC - Europar Aholku Kontseilua errepidezko garraioaren inguruko ikerketan.
- European Space Technology Platform - ESTP - Espazioaren Europar Teknologia Plataforma.
- European Steel Technology Platform - ESTEP - Altzairuaren Europar Teknologia Plataforma.
- European Technology Platform for the Electricity Networks of the Future - SMARTGRIDS.
- European Technology Platform for Wind Energy - TPWIND.
- European Technology Platform on Smart Systems Integration - EpoSS.
- European Technology Platform on Sustainable Mineral Resources - ETP SMR.
- Farm Animal Breeding and Reproduction Technology Platform - FABRE TP.
- Food for Life - FOOD.
- Forest based sector Technology Platform - FORESTRY - Oihan-sektorearen Teknologia Plataforma.
- Future Manufacturing Technologies - MANUFUTURE - Geroko Fabrikazio Teknologia.
- Future Textiles and Clothing - FTC - Geroko ehun eta arropak.
- Global Animal Health - GAH - Animalia osasun globala.
- Industrial Safety ETP - INDUSTRIALSAFETY.
- Integral Satcom Initiative - ISI.
- Mobile and Wireless Communications - eMOBILITY.
- Nanotechnologies for Medical Applications - NANOMEDICINE.
- Networked and Electronic Media - NEM.
- Networked European Software and Services Initiative - NESSI.
- Photonics 21 - PHOTONICS.
- Photovoltaics - PHOTOVOLTAICS.
- Plants for the Future - PLANTS.

- Renewable Heating and Cooling - RHC.
- Robotics - EUROP.
- Sustainable Nuclear Technology Platform - SNETP.
- Sustainable Chemistry - SUSCHEM.
- Waterbone ETP - WATERBORNE.
- Zero Emission Fossil Fuel Power Plants - ZEP.

Teknologia plataformen helburuak datozen urteetarako lehenetasun industrial eta teknologikoak eragitea da eta "Strategic Research Agendak" lantzea eta hartatik eratorriak, "Multiannual Roadmaps" deituak, zeinetatik bestalde lehenetasunak eta "topic-ak" ondorioztatuko diren deialdi desberdinetarako.

Public-Private Partnerships (PPPs)

VII. EP abian jarri eta gero, eta krisi ekonomikoaren aurkako ekintzen esparruan ("Recovery Plan"), Europako Batasuneko batzordeak, teknologia-plataformetako batzuek aurretiaz egindako lana oinarritzat harturik, argi berdea eman die "call" eta aurrekontu propioak dituzten lau ekintza publiko pribaturi, nahiz eta EPko "Themes"en testuinguruan txertaturik:

- Factories of the Future (FoF).
- Energy Efficient Building (EeB).
- Green Cars.
- Future Internet.

Etorkizunerako esparru juridiko berri bat bilatu nahi da Batzordearen eta elkarte pribatuen arteko lankidetzari hori estaliko duena, zeinek beren baitan hartuko baitituzte industriaren interesak eta ikerketako erakundeak. Kasuetakoren batean, dagoeneko badira elkarte pribatuak publikoarekiko hitzarmenaren alderdi pribatua izateko asmoa dutenak:

- European Factories of the Future Research Association (EFFRA): PPP FoFen testuinguruan.
- Energy Efficient Building Association (E2BA): PPP EeB testuinguruan.

Strategic Research Agenda Ikerketa Agenda Estrategikoa

EBeko Batzordeak teknologia-plataforma desberdinei markatu dizkien helburu nagusiak bakoitzaren ikerketa-agenda estrategikoak lantzea da. Aldaketa teknologikoaren europar protagonista nagusiei eskatzen zaie, era adostuan, proposa dezatela ikerketa-lehenetasunen agenda bat, epe ertain eta luzera lehiakortasun eta jasangarritasun-arazo guztiak begiets ditzala (batez ere epe luzera). Teknologia-plataformek bete egin dute erantzukizun hori eta guztiak dituzte beren SRAak.

Road Maps - Ibilbide-orriak

Strategic Research Agendas (SRAs) izenekoak landu ondoren teknologia-plataforma desberdinak deituak izan ziren berehalako aplikazioako dokumentu batzuk presta zituzten, ikerketako lehenetasun espezifikoa definitzen zituztenak, VII. EP hasieratik, lan-barruti premiazkoenak zein diren finkatuz eta hurrengo urteetan zeintzuei aurre egin dakiekeen. EBeko Batzordeak oso kontuan izan ditu SRAak eta "road mapak" lan-egitarauak idazterakoan. Izatez, begi-bistakoa dirudi teknologia-plataformek egindako lana izan dela oinarri nagusia lan-programak lantzerakoan. Gaur egun programen definizioaren erantzukizun hori "Public-Private Partnerships" (PPPs) elkarte pribatuara aldatzen ari.

Support to trans-national cooperation

Lankidetzatza transnazionalari laguntza

Esaldi honek "Lankidetzatza" programaren aipamena egiten du eta lau modalitatetan gauzatuko dela nabartzen du: Collaborative research, Joint Technology Initiatives, Co-ordination or research programmes eta International Co-operation. Termino horiek ondoren analizatuko dira.

Collaborative Research - Lankidetzatza Ikerketa

Hau da EBeko Batzordeak laguntzak emateko nagusiki erabili duen eta erabiliko duen formula. Funtsean ikerketako partzuergo-era bat definitzen du, oso izaera desberdineko erakundeen lankidetzatza bermatzen duena (unibertsitateak, ikerketako zentro publikoak, teknologia-zentroak, enpresak, aholkularitzak...), ezinbesteko nazioartekotasun batekin (zeinek lagunduko baitu zientzia- eta enpresalokarriak estutzen Batasuneko herrialde desberdinen artean). Formula horrek rol desberdinak inplikatzeko ditu nazioarteko partzuergo bateko bazkide desberdinentzat, bai eta bakoitzak duen gaitasun osoa gomendatu zaion ataza burutzeko ere.

Lankidetzatza-ikerketa, bestalde, finantzazio-eskema desberdinen azpian sar daiteke: collaborative projects - lankidetzatza-proiektuak, Networks of excellence - bikaintasun-sareak, co-ordination/support actions - koordinazio-/laguntza-ekintzak (eskema desberdin horiek tratatu izango dira lankidetzatza-ikerketako 4 modalitateak amaitu ondoren).

Joint Technology Initiatives (JTI)

Baterako Teknologia Ekimenak

JTIak teknologia-plataforma gutxi batzuetatik sortzen dira, artatutako barrutiaren garrantziak eta Europarentzat estrategia-planteamen duak azken onera eramateko beharrezkoak diren baliabideek hala eskatzen dutenean. JTIek izaera juridiko propioa dute, inbertsio pribatuaren partaidetzatza garrantzitsu batekin, bai eta Batzordearen lagun-

tza publikoarekin ere (Esparru Programaren zuzeneko laguntzarekin eta European Investment Bank-n (Europar Inbertsio Bankua) kredituen bitartez). JTIen formula GALILEO, europar GPS proiektu handiarentzat hautatutakoaren antzekoa da, eta legez Batasuneko Hitzarmenaren 171. artikuluan sostengatzen da, edo programa espezifikoa baten erabakien oinarrian (Specific Programme Decisions), Batasuneko Hitzarmeneko 166. artikulua araberak. JTIak halakotzat identifikatu eta onartu dira honako irizpide hauen azpian:

- Ekimenaren balio erantsia europar mailan.
- Garapen eta argitasun maila bilatzen diren helburuen definizioan.
- Konpromiso finantzario eta industrialaren sinesgarritasuna eta garrantzia.
- JTIaren eragin-maila industria-lehiakortasunaren eta hazkuntza ekonomikoaren gain.
- JTIen laguntzaren garrantzia barruti zabalagoko erkidego-politikei.
- Laguntza nazionalak, eragimena eta etorkizunean industria-finantziorako gaitasuna konprometitzeko ahalmena.
- Beste aukerarik ez izatea dauden tresnen oinarriarekin bilatzen diren helburuak lortzeko.

Gaur egun dauden JTIak hauek dira:

- Innovative Medicines Initiative (IMI).
- Embedded Computing Systems (ARTEMIS).
- Aeronautics and Air Transport (CLEAN SKY).
- Nanoelectronics Technologies 2020 (ENIAC).
- Hydrogen and Fuel Cells Initiative (FCH).
- Global Monitoring for Environment and Security (GMES).

JTIek izan dituzte arazo batzuk beren jardueran, eta horregatik Europako Batasunaren Batzordeak lankidetzatza publiko-pribatuko formula berriak bilatzen ditu. Edozein kasutan, haiek guztiek beren programa-funtz propioak kudeatzen dituzte, beren deialdiak egiten dituzte eta proiektuak onartzen dituzte (haietako batzuetan bada estatu kideen kofinantzazioa).

Coordination of non-Community research programmes Erkidegokoak ez diren ikerketa-programen koordinazioa

Erkidegokoak ez diren ikerketa-programen koordinazioa bideratutako ekintzak finantzatu dira, bereziki programa nazionalak eta erregionalak. Jarraitu nahi diren eskemak ERA-NET programak (glostegei honetan geroago landuko dena) hornitzen dituenak dira eta Europar Erkidegoak ikerketa nazionaleko programetan, era bateratuan inplementatuetan (Batasunaren Hitzarmeneko 169. artikuluan). Gainera, modalitate horrek osagarritasuna eta esparru-programaren eta beste programa batzuen eta gobernu arteko egituren arteko sinergia hobeto ahalbidetuko du, hala nola EUREKA eta COSTen artekoa. Europar Erkidegoaren partaidetzatza era bateratuan inplementatutako ikerketa nazionaleko programetan (Batasunaren Hitzarmeneko

169. artikulua arabera) bereziki garrantzitsua da eskala handiko europar lankidetzarako, "geometria aldakorreko" planteamendu bat jarraituz behar edo interes erkideak partekatzen dituzten estatu kideen artean. 169. artikulua babesean erabakitzen diren ekimenak estatu kide desberdinen arteko solaskidetzak estuan identifikatuko diren alorrean arduratuko dira, honako irizpideak jarraituz:

- Ekimenaren garrantzia erkidego-helburuak lortzerakoan.
- Bilatzen den helburuaren garrantzia eta VII. EParen helburu orokorrak lortzeko haien garrantzia.
- Programa nazional operatibo edo aurreikusitako aurrez izatea.
- Balio erantsi europarra.
- Masa kritikoa, tarteko diren programen tamainarekin eta kopuruarekin zerikusia duena, eta finantzatzen dituzten jardueren antzekotasun-maila.
- 169. artikulua bilatzen diren helburu espezifikoetara egokitzea.

Internacional Cooperation - Nazioarteko Lankidetzak

Nazioarteko lankidetzak "hirugarren herrialdeekin" burutuko dena bezala ulertzen da, hau da, Batasunaren atal ez direnekin egina. Lankidetzak hori begiesten deneko terminoetako bat esparru-programan begietsitako jarduerak guztiak hirugarren herrialdeetakoak diren erakundeen partaidetzara irekitzea da. Beste aukeretako bat da lankidetzak espezifikoak ekintzak abian jartzea, gai-alor bakoitzean, baldin eta hirugarren herrialdeekin interes erkideko lehentasunak identifikatu badira, aldebiko edo alde askotako akordioekin lotuak.

Collaborative Projects - Lankidetzak Proiektuak

"Funding schemes" (finantzazio-eskema, lehenago "tresnak") deitutako lehena eta garrantzitsuenak dira. Herrialde desberdinetako partaidetzeko partzuergo batek burututako proiektuak dira, ezagutza berri bat lortzeko, teknologia berri bat garatzeko, produktu berri batzuk eskuratzeko edo ikerketa-baliabide erkide berriak abian jartzeko asmoarekin elkartzen direnak. Lankidetzak-proiektuak tamainaz aldakorak dira txikienetik edo eskala ertainetik hasi eta burutzeko baliabide-bolumen handiak mugiarazten dituzten proiektu integratzaile handienetarakoak.

Networks of Excellence - Bikaintasun-sareak

Kontua, hemen, baterako ikerketa-programei, eremu jakin batean beren jarduerak integratzen dituzten erakunde-taldeek inplementatuei laguntzen saiatzea da, epe luzeko lankidetzak baten esparruan. Baterako ikerketa-programa hauek abian jartzeak partaide diren erakundeen konpromiso formal bat eskatzen du, zeinaren bitartez hitzarmenez determinaturik geratzen baitira kolektiboaren esku jarritako baliabideak eta jarduerak.

Coordination and support actions

Koordinazio eta laguntzako ekintza espezifikoak

Jarduera periferikoetara bideratuak daude, ikerketa-jarduerak eta beste politika batzuk koordinatu eta bultzatzera (sareko lana, trukeak, ikerketako azpiegitura handietarako sarbide transnaziionala... erraztuz, eta azterlanak eta konferentziak sustatuz).

Individual Projects - Banako Proiektuak

Ikerketa talde banakoek burutzekoak. Proiektu mota hau nagusiki "Ideiak" programarekin erlazionatzen da European Research Council-ek (ERC) kudeatuko duen ezagutzaren mugako proiektuak bultzatzeko helburuarekin.

Support for training and career development of researchers Ikertzaileen karreraren garapen eta ikaskuntzarako laguntza

Jarduera mota hau batez ere "People" programan kontzentratzen da, eta Marie Curie ekintzei buruzkoak dira nagusiki.

Research for the benefit of specific groups (in particular SMEs) Interes-talde espezifikoekin onurarako (ETEentzat bereziki) ikerketa

Aurrean dauzkagun proiektuek, zeinetan ikerketarik gehiena unibertsitateek, ikerketa-zentro publikoek eta teknologia-zentroek egiten baitute, kolektibo jakin batzuei mesede egiteko asmoa izaten dute, eskuarki ETEen talde edo elkartei eta industria-sektore osoei egiten diete. Termino honek VII. EPko CRAFT eta "Collective Research" formularen programa oinardekoak estaliko ditu, CRAFT eta "collective" formularen oso antzekoak direnak ETEentzako neurrietan ez dago lan-programarik eta planteamenduak "bottom-up" motakoak dira. ETE banakoei zuzenduriko modalitateak 1 eta 2 urteren arteko iraupena begiesten du, 0,5 eta 1,5 M€ arteko aurrekontu bat eta 5 eta 10 bitarteko bazkide kopuru bat. Bestalde, ETEen elkarteetara bideratutako modalitatea, 2 edo 3 urte bitarteko iraupena aurreikusten du, 1,5 eta 4 M€ arteko aurrekontu bat eta 5 eta 15 bazkide bitarteko kopuru bat.

Small or medium scale focused research projects

Eskala baxuko ekintzak ezagutza handitzeko helburuz gidatuak

Termino berri honek VI. EPko STREP ("Specific Targeted Research projects" - Helburu jakin batzuetara bereziki bideratutako ikerketa-proiektuak) motako proiektuak ezagutarazten ditu del VI PM. Funtsen lankidetzak-proiektuen aipamena egiten da (ohar bedi nolako anabasa sortzen den orain "collaborative" eta "cooperative" nahastuz), dimentsio txiki edo ertainekoak (eskuarki ez dute gainditzen 5 M€-ko aurrekontu globalik. VII. EPn batez besteko diru-laguntza

3 M€-ren ingurukoa izango litzateke), berrikuntza-maila garrantzitsu batekin (gutxienez “Themes” batzuetan).

Large scale integrating projects - Eskala handiagoko ekintzak

Hauek ere lankidetzaproiektuak dira. Kasu hauetan badirudi terminologia berriak lehen “integratu” deitutako proiektuei buruz ari dela, eta haien aurrekontuak 14 M€ ingurukoak izan litezke (10 M€-ko diru-laguntza batekin, hau da “Theme” NMP estimazioa). Proiektu horiek, I+G atazez gainera beren baitan izan behar dituzte frogapen-, prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak.

Halaber, “large scale integrating projects” deituak ere izango dira, zeinen batez besteko tamaina askoz txikiagoa baita. NMP-ko 4 M€ inguruko batez besteko diru-laguntza izango lukete, eta 15 eta 20 bazkide arteko kopurua izango lukete.

Calls for proposals - Proiektuetarako deiak

“Gaiak” barrutian Europar Batzordeak argitaratu eta dagokien bere WorkProgrammes edo Lan-programetako deialdi desberdinei buruzkoak dira. Call-etako bakoitzean, Batzordeak honako hauek definitzen ditu: argitalpen-data eta aurkezpenaren data-muga, proposamenaren aurkezpeneko urrats (stage) kopurua, Call-ei izen datutako aurrekontu globala, hark estalitako topikoak, jarraitu beharreko ebaluazio-prozedura bai eta proiektuaren partaidetza, ebaluazio eta inplementazioari buruz bete beharreko eskakizun posibleak ere.

National Contact Points (NCPs) - Kontaktu-gune nazionalak

Kontaktu-gune Nazionalak estatu kideen 27 gobernuetako bakoitzak finkatu eta finantzatutako egiturak dira. Herrialde bakoitzeko NCPak laguntza pertsonalizatua ematen dute (eta proposatzailearen hizkuntza berean) honako urrats hauetan: prestaera, Europar bazkideak bilatzea, Europar Batzordearekin negoziatzea, hitzarmena izapidetzen eta proiektua egikaritze-fasean bertan ere bai.

Maila espainiarrean NCPen sarea CFTIak (Teknologiako Industriaren Garapenerako Zentroa) kudeatzen du nagusiki, bai eta Unibertsitate eta Ikerketa Zentro batzuek ere.

9.4.3.3. Glosategi arauemailea

Indirect Action - Zeharkako Ekintza

Legezko termino honen bidez definitzen du Batzordeak esparru-programaren diru-laguntza duen edozein proiektu, baina Batzorde bereko Joint Research Centrek egikaritzen ez duena.

Legal Entity - Legezko entitate

Pertsona fisiko eta juridikoei buruz esaten da, zeinak existitzen baitira lege nazional edo nazioartekoaren aurrean, legezko nortasunarekin,

eta zeinak haren izenean jarduteko, eta dagozkien eskubide eta betebeharrak egikaritzeko gai diren.

Foreground

Termino honek esparru-programak finantzatutako proiekturen batean zehar sortutako ezagutzaren aipamena egiten du, babestua izateko gai izan ala ez. Printzipioz “Foreground” jabetza garatzen duenarena da; baina ongi finkaturik egon behar du “consortium agreement-en” zer ekarpen duen bazkide bakoitzak “foreground-en” gain. Baldin eta “consortium agreement-ek” ez badio ezer horri buruz, garatutakoaren gaineko jabetza bazkide guztiena izango litzateke, beren atal proportzionalan. Printzipioz proiektu bateko bazkide guztiak beharturik daude erdikide bezala ezartzera ezinbestekoa “foreground-a” beste sozioek beren atazak burutu ditzaten proiektuan.

Background

Aitzitik, hemen partzuergo bateko bazkide desberdinek europar proiektua burutu baino lehenago zituzten ezagutzen aipamena egiten ari gara. “Foreground-aren” kasuan, hil-edo-biziko garrantzia duenez gero behar bezala zehaztea “consortium agreement-en”. Bestela, “background-en” atal bat “foreground” bezala errebindika liteke, partekatua izateko moduan.

Participant - Partaide

Legezko edozein erakunde zeharkako ekintza batean parte hartzen duena (Batzordeak finantzatutako proiektua) eta, ondorioz, proiektuko hitzarmenean (“grant agreement”) erabakitako eskubideak eta betebeharrak dituen.

Grant Agreement - Emate Akordioa

Batzordeak bere laguntzetako baten partzuergo onuradunarekin izenpetzen duen hitzarmena.

Third Countries - Hirugarren Herrialdeak

Europako Batasunaren kide ez den edozein herrialde da (definizio hau aldatu egiten da VI. Esparru Programan erabilitakoarekiko). Printzipioz hirugarren herrialdeetako edozein erakundek parte har dezake Europako Batasuneko Esparru Programan; hala ere desberdintasun ugari daude batzuen eta besteen tratamenduan. Juridikoki arazo gutxien dutenak “associated” (beherago definituak) deituak dira. Era berean, badira zenbait Gai egoeraren arabera eta gai jakinetan, garapenerako herrialdeekiko lankidetzari begiesten dutenak. Azkenik, “Intelligent Manufacturing Systems” (IMS) bezalako nazioarteko lankidetzaren esparruetan izan ezik, hirugarren herrialde garatu bateko erakunde baten partaidetza (EEBB, Japonia, Kanada, Australia) Europarentzat onura-terminotan onartzen da: Europar beste bazkide posiblekin

ez legokeenean “background” horrekin, edo erakunde horren presentziak bikaintasuna bermatzen duenean beste era batean ezin lortuzkoa den maila batean.

Candidate Countries - Herrialde Hautagaiak

Europako Batasunean sarbide gutxi-asko berehalakoa dutenak. Herrialde hautagaiak herrialde kideen tratamendu bera dute.

Associated Country - Herrialde Asoziatua

Hirugarren herrialde bat da Erkidegoarekin nazioarteko akordio baten atala dena, zeinen azpian laguntzen baitu bere erakunde jarduerak finantzatzen esparru-programan, bai bere osotasunean edo haren ataletakoren batean. “Associated countries” zerrenda bat eratzen dute, etengabe alda daitekeena, aldi-aldi eta deialdi espezifiko bakoitzean kontsultatu behar dena, bazkide guztien legezko egoera jakiteko.

International Organisation - Nazioarteko Erakundea

Batasunaz bestelako gobernu arteko erakundea, nazioarteko legeen aurrean nortasun juridikoa duena. Hedaduraz, aipaturiko nazioarteko erakundeen baitan dagoen edozein agentzia espezializatu.

International European Interest Organisation Nazioarteko Europar Erakundea

Nazioarteko erakundeei buruz esaten da, zeinetan bazkide gehienak estatu kide edo asoziatuetakoak baitira, eta zeinen helburu nagusia lankidetzaren zientifikoa eta teknologikoa Europan sustatzea baita (izatear horretakoak dira COST edo EUREKA).

International cooperation partner country Nazioarteko lankidetzaren eskatzen duen hirugarren herrialdea

Batzordearen terminologian, garatuaren taldekidea ez den hirugarren herrialde bat. Bere diru-sarreatik honelakoa izan daiteke:

- Low-income.
- Lower-middle-income.
- Upper-middle-income.

Public Body - Erakunde Publikoa

Lege nazionalen arabera halakotzat finkatutako edozein erakunde, bai eta nazioarteko erakundeak ere.

SMES - ETEak

Enpresa mikro, txiki eta ertainak dira 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EC Gomendioaren arabera. Definizio hori bete behar dute halakotzat parte hartu nahi duten enpresek ETEentzat izendatutako programetan:

- **Mikroenpresa:** 10 pertsona baino gutxiagori lana ematen diena eta zeinen urteko negozio-bolumenak 2 M€ gainditzen ez dituen.
- **Enpresa txikia:** 50 pertsonari baino gutxiagori lana ematen diena eta zeinen urteko negozio-bolumenak edo balantze orokorrak 10 M€ gainditzen ez dituen.
- **Enpresa ertaina:** 250 pertsona baino gutxiagori lana ematen diena eta zeinen urteko negozio-bolumenak 50 M€ gainditzen ez dituen edo urteko balantze orokorrak 43 M€ gainditzen ez dituen.

Work Programme - Lan Programa

Proposamen bat aurkeztea posible deneko barruti zientifikoa eta teknologikoen zerrenda espezifiko aipatzen du, programa espezifiko edo Gai (“Theme”) baten barruan. Gai irekiekiko proposaturiko proiektua desegokia izateak automatikoki uko egiten dio eskaerari.

Funding Schemes - Finantzazio Eskemak

Batzordeak mekanismo hauen bitartez laguntzen die lankidetzaren ekimenei. Dagoeneko aurreratu da lehenagoko “tresnak” direla eta haien barruan daudela bikaintasun-sareak, SSCPak, etab.

RTD performer - RTDeko ataza-betetzailerak

Ikerketa eta garapen teknologikoa burutzen duten eragileak, erakundeak dira hemen talde espezifiko batzuen mesederako finantzazio-eskematari. Kasurik garrantzitsuenak ETEen (CRAFT eta “Collective research-en” lehenagoko eskemak, “Collaborative-rekin” nahastu behar ez direnak) mesederako proiektuak dira.

Minimum Conditions - Gutxienezko Baldintzak

Lehenago hautesgarritasun-irizpide deituek, oraindik hasita gutxienezko eskakizunen aipamena egiten dute erakunde bat onuradun izan dadin lankidetzaren motako “indirect action” batean. Gutxienezko baldintzak honako hauek dira:

- Gutxienez herrialde kide edo asoziatu bateko hiru erakunde legezko parte hartu behar dute, bakoitza herrialde desberdin batean dagoelarik.
- Legezko hiru erakundeek independenteak izan behar dute elkarrekiko.

Independence - Independentzia

Bi erakunde independentzat jotzen dira:

- Baldin eta batek ere ez badu kontrolik bestearen gain, hau da, kapitalaren %50 baino gehiago duela edo administrazio-kontseiluan boto-eskubideena (zuzenean edo zeharka).
- Ez badute “holding” bat eratzen, egitez edo legez, edo bi erakundeetako erabakitzaileen erabaki askez.
- Hala ere, ez da kontrol-harremantzat joko:

- “Kontrolatzailea” inbertsio-erakunde publiko bat, inbertitzaile erakundezko bat edo arrisku-kapitaleko konpainia bat izatea.
- Bi erakundeak erakunde publiko beraren jabetza edo hark gainbegiratuak egotea.

Two-step evaluation procedure Bi urratseko ebaluazio-prozedura

VII. EParen lankidetzak-ekintza zeharkakoen atal bat bi urratsetan ebaluatzen da. Lehenean eskuarki proposamenaren kalitate zientifiko eta teknologikoa bakarrik ebaluatzen da, bai eta “Theme-ren” programa espezifikorekiko eta lan-programarekiko doitzea, halaber, Batasunaren printzipio etikoak betetzea. Lehen urratseko proposamen hori era laburtuan aurkeztuko da, prestaera-kostuak ahalik eta gehien murrizten saiatuz. Proposamena lehen fase horretan onartzen bada, partzuergoari eskatuko zaio bigarren urratsa prestatzea, haren deskribapen askoz zehatzagoarekin oraingoan.

Independent Experts - Aditu Independentek

Batzordeak bermatu egiten ditu aukera-berdintasuna eta haren hautespen-prozesuaren objektibotasuna, besteak beste, proposamenak ebaluatzeaz arduratuko diren aditu independenteak erabiliz (kideen ebaluazioa).

Appointment Letter - Konpromiso Gutuna

Aditu independenteek izenpetzen dute eta interes-gatazkarik ez duela bermatzen du, eta halako interes-gatazkarik sortuko balitz ebaluatze-prozesu jakin baten aurretik, garaiz emango luketela haren berri.

Consortium Agreement - Partzuergo Akordioa

“Grant agreement-a” ez bezala, hau ez da Batzordearen eta zeharkako ekintzaren betearazleen arteko akordio bat, baizik eta haien barne-harremanak arautzen dituen akordioa talde bezala. “Consortium agreement” hori derrigorrezkoa da ekintza finantzatuarako, eta honako hauek izan behar ditu bere baitan:

- Partzuergoaren barne-antolara.
- Batzordearen finantza-esleipena banatzea.
- Barne-eztabaidak ebazteko modua.
- “Grant agreement-ean” aurreikusitako arau gehigarriak eta hornidurak.

Coordinator - Koordinatzailea

Proiektuaren koordinatzailea da, eta honako atalez arduratu behar du:

- Bazkide guztiek eskakizunak betetzen dituztela segurtatu “Grant agreement-ari” atxikitzeko.

- Batzordearengandik diru-laguntzak jaso eta “consortium” eta “Grant agreement-ak” erabakitakoarekin adostasunean haiek banatu.
- Batzordearen esleipen finantzarioari buruzko erregistroak eta kontuak eraman, eta Batzordeari egindako banatzearen berri eman.
- Bitartekari-lana egin partaideen eta Batzordearen arteko komunikazio efiziente eta zuzenerako.

Eligible Costs - Kostu Hautesgarriak

Batzordeak finantzatzeko zeharkako ekintza burutzeari egotz dakizkiokeenak dira. Zuzenekoak eta zeharkakoak izan daitezke. Zuzeneko kostuak justifikatzeari dagokionez, ez dago zalantzarik: dedikazioko orduen kopurua, enplegatuen ordu-kostuak, suntsikorren fakturak, inbentariagarriak eta bidaiak... justifikatu beharra dago. Zeharkako kostuen kasuan, Batzordeak kalkulu-esparrua hautatzeko aukera ematen du batzuetan (beti erakunde onuradunaren izaera juridikoaren eta kontabilitatea eramateko hark duen modua kontuan hartuta):

- **Total indirect eligible costs (full costs-FC) - Zeharkako kostu hautesgarri guztizkoak:** Formula honetara kontabilitate analitikoak duten erakundeek bakarrik jo dezakete. Azaldu egin beharko dituzte beren kalkulua oinarritzen duten barne-irizpide kontableak, eta Batzordeak finantzatzeko zeharkako ekintzaren jarduera zehatzetarako haien esleipena.
- **Flat rate - Zeharkako kostuen kalkulua zuzenekoek ehuneko finko bezala:** Erakundearen izaeraren, eta zeharkako ekintzaren arabera, onuradunak zeharkako kostu batzuetara jo dezake, zeinak sortzen baitira ehuneko finko jakin bat ezartzetik zuzeneko kostuei.
- **Lump sum - Batura globala:** formula honetan Batzordeak prezio bat erabakitzen du jarduera jakin baterako. Adibidez, ikertzaile baten kostua urtebetez bikaintasun-sare batean 23.500 €/urtean ikertzaileko).

Upper funding limits - Gehieneko laguntza-mugak

Zeharkako ekintzaren, onuradunaren izaeraren eta jarduera-motaren arabera, erabakita daude diru-laguntzaren gehieneko muga batzuk eta ondoren datozen hauek dira:

- Ikerketa eta garapen teknologikorako (RTD jarduerak) Batzordearen esleipen handiena kostu hautesgarri guztizkoen %50 da. Hala ere, erakunde publikoek, heziketa ertain eta goreneko zentroek, ikerketa-zentroek eta enpresa txiki eta ertainek %75rainokoa lor dezakete (“noraino” oso zaila da definitzen; kasurik aldekoenean beti izan daiteke, guztiarekin ere ez dago erabat determinaturik zereikiko den %75 hori).
- Frogapen-jardueretarako Batzordearen esleipenik handiena %50ekoa da.

- “Frontier research actions”, “coordination and support actions” tes-
tinguruko jardueretarako eta ikertzaileen karrera garatu eta haien
prestakuntzan sartutako finantzazioa kostu hautesgarri guttiz-
koaren %100eraino irits daiteke.
- Partzuegoaren kudeaketa-jardueretarako (“management”), kon-
tu-ikuskaritzen ziurtatzeak barne direla laguntza kostu hautesgarri
guttizkoaren %100eraino irits daiteke (baldin eta “management-ak”
ez badu aurrekontu osoaren ehuneko jakin bat gainditzen. Aurreko
Esparru Programan muga hori %7an zegoen). Aurreko Esparru Pro-
grametan kontu-ikuskaritzak derrigorrezkoak ziren bazkide guztien-
tzat, urtero. Esparru Programa honetan Batzordea ehuneko bat
ofizioz atxikitzen mugatzen da, egindako arrisku-estimazioaren
(risk assessment) arabera.

Non-eligible costs - Kostu ez-hautesgarriak

Zeharko ekintzetan diruz lagundu ezin daitezkeenez esaten da. Es-
plizituki ez hautesgarritzat jotzen dira: zeharkako zergak (BEZ bar-

ne), interesak, geroko galera posibleen hornidurak, dibisa-aldake-
tan sortutako galerak eta, edozein kasutan, mozkin-tarteak. Gaurko
krisi ekonomikoarekin Batzordeak behin eta berriz adierazten du
diru-laguntzak kostu-aurrekontuen gain ematen direla, ez merkatu
prezioen gain. Hori da hain uzkur agertzearen arrazoia azpikontra-
tazio esanguratsuak onartzeko.

European Investment Bank Europa Inbertsio Bankua (EIB)

Europar proiektuetan parte hartzen dutenek badute Batzordearen
diru-laguntzak kredituz osatzeko aukera.

Risk-Sharing Finance Facility Finantza-arriskua partekatzeko tresna

Batzordeak eskuratzen duen laguntza EIBak goian aipatutako kredi-
tuetarako funtsak izan ditzan.



MACPLUS Proiektua: "Component Performance-driven Solutions for Long-Term Efficiency Increase in Ultra Supercritical Power Plants". Partaidea: Tubacex.

